


HERRITARREN **PARTAIDETZA** **ERRAZTEKO** GIDA PRAKTIKOA

LAN KOLEKTIBORAKO AURREZ
AURREKO TRESNA ETA BALIABIDE
DIGITAL HAUTATUAK





HERRITARREN PARTAIDETZA ERRAZTEKO GIDA PRAKTIKOA

LAN KOLEKTIBORAKO AURREZ
AURREKO TRESNA ETA BALIABIDE
DIGITAL HAUTATUAK



Nafarroako Gobernua
Herritarrekiko eta Erakundeekiko
Harremanetako Departamentua



Gobierno de Navarra
Departamento de Relaciones
Ciudadanas e Institucionales



Dokumentu hau Nafarroako Gobernuko Herritarren Arretarako eta Partaidetzarako Zerbitzuak argitaratzen duen koaderno-sail batekoa da. Sail horren bidez, partaidetza hobetzen eta zabaltzen lagundu nahi da, plangintza-eta kudeaketa-tresna izan dadin Nafarroako toki-erakundeetan.

Editorea: Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua. Nafarroako Gobernua

Colaboratu: Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa (NUFK)

Edukiak: Raquel Bustos eta Javier García [Entretantos fundazioa]
Diego Chueca [inteligenciacolectiva.es] —4. kapitulua: Partaidetza digitaleko tresnak—

Diseinua eta maketazioa: Javier García [todocambia.com]

Inprimatzea: Gráficas Lizarra SL

Lege-gordailua: LG NA 448-2018

Bibliografietan, lan hau honela aipatu behar da:

Bustos, R.; García, J. eta Chueca, D. (2018) **Herritarren partaidetza errazteko gida praktikoa. Lan kolektiborako aurrez aurreko tresna eta baliabide digital hautatuak.** Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua. Nafarroako Gobernua



CONTENIDO

1 AURKEZPENA.....	7
Hemen darabilgun partaidetza kontzeptuaz	7
Partaidetzaren erabilerak gogoratuaz.....	7
Arauek (ere) ezarritako betebeharra.....	8
Partaidetza: gobernu-konpromisoa eta tokiko erakundeek gero eta gehiago aintzatetsitako helburua	8
Kalitate handiagoko partaidetzarantz	9
Prozesuak diseinatzen eta gauzatzen laguntzeko gida.....	10
2 TALDE-LANERAKO OINARRIZKO AHOLKUAK	11
Non kokatzen ditugu aholku hauek.....	11
Taldeekin eginiko lanak gardentasuna behar du konfiantza sortzeko	11
Parte hartzeko prozesu baten kalitatea hobetzeko aholkuak.....	11
Irekitzearen garrantzia	12
Komunikazio-trebeziak.....	12
Entzute aktibo enpatikorako teknikak.....	12
Neutraltasuna.....	13
Komunikazio asertiborako teknikak.....	13
Lengoaia berbera mintzatzea: nork bere burua ulerraraztea	13
Pertsuasio-ahalmena areagotzeko aholkuak.....	13
3 AURREZ AURREKO PARTAIDETZARAKO TEKNIKA	15
01 AEkarpenak txartelekin / ideia-jasa.....	17
02 Arazoen zuhaitza	20
03 Barometroa.....	23
04 Munduko kafea	26
05 Parte hartzeko kartografia / Mapa kolektiboa	30
06 Koherentziometroa	33
07 Izan litezkeen koadroa	35
08 AMIA.....	37
09 Delphi metodoa	39
10 Deriba edo ibilbidea.....	42
11 Indar-esparruaren diagrama	44
12 Diana, basoa eta beste ebaluazio-teknika batzuk	46
13 Eztabaidatzeko inkestak	50
14 Espazio irekia	52
15 Ishikawaren diagrama	55
16 Kasu-azterketa / Gonbidatu bereziak.....	58
17 Errazte grafikoa.....	60

18	Eztabaida-taldeak	62
19	Balioeste-ikerketa	66
20	Simulazio-jokoa	68
21	Hamar galderak	70
22	Denbora-lerroa.....	72
23	Mapa emozionala.....	74
24	Marko logikoa	76
25	Phillips 6 6.....	79
26	Proposamenak lehenestea	81
27	Soziograma edo mapa soziala.....	84
28	Etorkizuneko tailer edo eszenarioak.....	87
29	Bozketa haztatuak.....	90
30	Ebaluazioaren eta jarraipenaren behatokia	92

4 | PARTAIDETZA DIGITALEKO TRESNAK 95

01	DemocracyOS.....	97
02	Adhocracy	98
03	Consul.....	99
04	Decidim	100
05	Consensus.....	101
06	Assembl.....	102
07	Loomio.....	103
08	Appgree.....	104
09	Consider.it.....	105
10	Argüman.....	106
11	Nova-Ideo.....	107
12	LiquidFeedback	108
13	Reddit	109
14	nVotes	110
15	Agreedo.....	111
16	Trello.....	112
17	Sli.do	113
18	Poli.is.....	114
19	Change.org.....	115
20	Osoigo	116
21	Represent Boundaries	117
22	Pombola	118

5 | PARTAIDETZA-PROZESU BAT DISEINATZEKO AHOLKUAK 119

6 | ERREFERENTZIAK 125





1 | AURKEZPENA

HEMEN DARABILGUN PARTAIDETZA KONTZEPTUAZ

Partaidetza kontzeptua zabala eta anitza izan daiteke. Izan ere, pertsona edo erakundeen prestakuntzari eta/edo esperientziari loturik erabiltzen da; hain zuzen ere, parte hartzea sustatzen duten ikuspegi edo metodologiak baliatuz lan egiten zuten testuinguruetan lan egin zezaketen pertsona eta erakundeez ari gara. Bestalde, esparru formaletik kanpo, izendapena (partaidetza, parte hartu, parte-hartzaile...) egiazki askotariko egoera eta jardunbideez aritzeko baliatzen da.

Guri dagokigun testuinguruan, herritarren partaidetza da edozein jardunbide sozial, zeinaren bidez gizarteak eragina izan nahi baitu politikan edo kolektiboari dagokion beste edozein esparrutan. Partaidetza-ekimen batzuk instituzioei dagozkie, eta beste batzuk herritarrek eta gizarteko taldeek sustatzen dituzte.

Dokumentu honetan deskribatzen diren tekniketako asko edozein esparrutako erakundeez, kolektiboek edo taldeek sustatutako beste esperientzia eta testuinguru batzuetan aplikatu daitezkeen arren, Administrazioek sustatutako eta bultzatutako ekimenen esparruan gaude zehazki, herritarrek erabaki publikoetan esku har dezaten. Hortaz, hemen partaidetza aipatzen dugunean, gobernuek eta administrazioek interes publikoko erabakiak hartzeari dagokionez herritarrek aintzat hartzeko duten aukera-sorta zabala adierazi nahiko dugu; informazio garden eta zehatzean, elkarrizketan eta eztabaidan oinarrituta.

PARTAIDETZAREN ERABILERA GOGORATUZ

Era guztietako foro eta dokumentuetan hainbat aldiz azaldu da jada zein beharrezko eta erabilgarri den partaidetza, esparru publikoa kudeatzeko ezinbesteko tresna gisa. Alabaina, partaidetzak denbora, baliabideak eta ahalegina eskatzen duenez, ez dago soberan gogoratzen jarraitzea zer-nolako onurak ekarri ahal dizkien bai administrazioari, bai gizarteari, betiere arduraz, zintzotasunez eta kalitatez lan egiten bada. Partaidetzak eskaintzen dizkigun aukeren artean, honako hauek nabarmendu ditzakegu:

- ▶ Instituzioen inguruan konfiantza sortzen laguntzen du, eta gizarte-loturak berrezartzen.
- ▶ Lagungarri da eremu publikoa herritarren beharrezko artatzeko politiketarantz bideratzeko.
- ▶ Ahalbidetu egiten du gizartearen intelijentzia kolektiboa erabiltzea erabaki publikoetan.
- ▶ Lagungarri da herritar aktiboagoak eraikitzen; hain zuzen ere, ezagutza-, analisi- eta kritika-ahalmen handiagoa eragiten baitu ingurunean dituzten arazoei dagokienez.
- ▶ Areagotu egiten ditu gizartearen sentsibilizazioa eta kontzientziazioa, partaide izatearen sentimendua, erantzukizun partekatua eta aldaketa-borondate kolektiboa.
- ▶ Gizarteratzea sustatzen du.
- ▶ Lagungarri da erabaki publikoak aberasteko, eta horien eraginkortasuna hobetzen du.
- ▶ Lagungarri da administrazioetan barne-aldaketak sustatzeko.
- ▶ Lagungarri da politika publikoen esparrua berritzeko; zehazki, aurrean dituzten konplexutasunari eta ziurgabetasunari hobeto erantzuteko.
- ▶ Lagungarri da gizarte-ikaskuntza sortzeko, ehundura eraikitzeko eta sareak sortu eta trinkotzeko.
- ▶ Hobetu egiten ditu politika publikoak eta horien kalitate demokratikoa

Horrenbestez, herritarrek administrazioaren eta gobernuaren erabaki eta ekintzetan inplikatzeko administrazioek erantzun beharreko beharrezko bat da. Parte hartzeko borondateak asebetetzeko ez ezik, gure gizartean dauden arazo konplexuei erantzuteko eta irtenbideak emateko ere balio du, erantzun tekniko hutsak nahikoak ez direnean.

ARAU EK (ERE) EZARRITAKO BETEBEHARRA

Beste alde batetik, partaidetza publikoa, politika publikoen gobernanzarako tresna eraginkorra izateaz gain, printzipio konstituzionala ere bada, bai eta administrazio-jardueraren printzipio orokorra ere (Konstituzioaren 9.2 eta 105. artikulua, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 3.5 artikulua; hain zuzen ere, azken horrek adierazten du administrazio publiko guztiek gardentasun- eta partaidetza-printzipioen arabera jokatu behar dutela herritarrekiko harremanetan).

Halaber, Europako, Estatuko eta Autonomia Erkidegoko arauditik eratorritako eskakizuna eta helburua da, gure administrazio maila guztiek garatu eta aplikatu beharrekoa, neurri praktikoak erabilia, baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak esleituta, eta, batik bat, administrazio-kultura eraldatuta, herritarrek politika publikoen eta administrazio-prozeduraren erdian kokatzeko.

Gainera, gizarte-mugimenduetatik biderkatu egiten dira herritarrek politika publikoetan parte hartzeko deiak; orobat, sustatu egiten da zerbitzu publikoen erabilzaileekiko kudeaketa hurbilagoa egitea, bai eta instituzioen sistema politikoaren eta gainerako herritarren arteko elkarrizketa sarriagoa izatea ere. Era berean, deialdi horiek bat egiten dute gardentasuna, partaidetza eta gobernu irekia araupetzen dituen araudiaren bilakabidearekin.

Herritarren partaidetza ez da Nafarroako gure administrazioen kudeaketa-lanetatik kanpo egon. Are gehiago, hala gobernuak nola tokiko erakundeek hainbat esperientzia metatzen ari dira partaidetzaren inguruan, eta gero eta ekimen zabalagoak eta anitzagoak ari dira martxan jartzen. Halaber, araudi orokorra eta sektoriala daude, eta horien artean nabarmentzekoa da Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Legea; hain zuzen ere, IV. tituluan berariaz aipatzen ditu herritarren partaidetza eta lankidetzak.

PARTAIDETZA: GOBERNU-KONPROMISOA ETA TOKIKO ERAKUNDEEK GERO ETA GEHIAGO AINTZATETSITAKO HELBURUA

Egungo gobernuak herritarren partaidetzarekin duen konpromisoa adierazi du, 2015-2019 Akordio Programatikoa jaso zenarekin bat. Horrenbestez, zenbait lan-lerro espezifiko abiarazi ditu, partaidetza eraginkorra bultzatzeko, gobernu-jardueraren funtsezko tresna gisa.

Esparru horretan hartutako lehenbiziko erabaki garrantzitsua Gobernu Irekiaren Zerbitzua eta Herritarrek Artatzeko eta Herritarrek Parte Hartzeko Zerbitzu bat sortzea izan zen: horren zeregina da, lehentasunez, gobernuari eta tokiko erakundeei laguntza ematea xede politiko eta sozial hau erdiesteko; halaber, bestelako erakunde ekonomiko eta sozialei laguntzen die, partaidetza txerta dezaten beren funtzionamenduan eta kudeaketa-ereduan.

Gainera, parte hartzeko aukera eman duen prozesu baten ondoren (300 pertsonak eta erakundek baino gehiagok parte hartu dute, eta 180 proposamen baino gehiago aurkeztu dira), Nafarroan 2017-2019 aldian Herritarren Partaidetza bultzatzeko Plana² egin eta onetsi da. Horretan zehazten dira aurreikusitako helburu eta emaitzak, eta herritarren partaidetza sustatzearekin lotutako erabaki eta neurrien multzo koherentea jasotzen du.

Plana lan-esparru bat da, eta helburua da sakontzea Gobernuak herritarren partaidetzarekin lan egiteko moduan. Bestalde, planifikazio eta koordinazio handiagoa duen ibilbidea hasi nahi da, eta hala tokiko erakundeekin nola ekonomiaren eta gizartearen bestelako taldeekin lankidetzan aritzea, planaren garapenerako.

Halaber, Planaren xedea da herritarren partaidetzari lotutako baloreen eta garrantziaren berri ematea, eta aplikazio-esperientziak eta jardunbide onei lotutakoak garatzen laguntzea, Nafarroan herritarren

2] <http://gobiernoabierto.navarra.es/eu/gobernantza/planak-eta-programak-gobernu-eraginak/nafarroan-herritarren-parte-hartzea-sustatzeko>

partaidetzak duen egoeraren ikerketan eta ezagutzan sakontzea, eta beharrezko zeharkako neurriak ezartzea emakumeen eta gizonen partaidetza betea gauzatzeko, berdintasuna lortze aldera.

lido horretatik, gero eta tokiko erakunde gehiagotan gero eta kontzientzia handiagoa dute beren kudeaketaren lagungarri partaidetza-prozesuak bultzatzearen garrantziaz. Jadanik udal, kontzeju eta mankomunitate askok abiarazi dituzte ekimenak, eta, horretarako, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren laguntza dute.

KALITATE HANDIAGOKO PARTAIDETZARANTZ

Partaidetzak kalitatezkoa izan behar du. Hala ez bada, joan nahi dugun lekura ez beste batera eraman gaitzake. Kalitate-estandar horiek lortzeko, prozesuen diseinuan eta garapenean eragiten duten ekipoei baliabide eta prestakuntza nahiko ematez gain, oinarritzko gako batzuk ere hartu behar dira kontuan. Honako hauek dira horietako batzuk:

- ▶ Saihestea partaidetza alde aurretik hartutako erabakiak legitimatzeko erabiltzeko tentazioa.
- ▶ Partaidetza politiketako zeharkako elementua izan dadin lan egitea, bai eta administrazio-antolakuntzan halakotzat jo dadin ere.
- ▶ Prozesuetako aktoreen hautua zaintzea, ordezkagarritasuna ez ezik, garrantzia ere aintzat hartuta. Horrenbestez, bermatu egin behar da ekarpen interesgarriren bat egin dezaketen guztiak prozesuetan egotea.
- ▶ Prozesuak diseinatzean, aintzat hartzea eskalaren eta dimentsioaren garrantzia, gogoan izanda ez dela gauza bera udalerrri txiki bateko prozesua (non partaidetzak zuzenean integra baititzake pertsonak) eta eskualde-mailako bat (non nahitaezkoa baita herritarrak ordezkatzeko dituzten erakunde bitartekariak erabiltzea).
- ▶ Zintzo jokatzeko jokoaren arauekin eta arauok aktore guztientzat argiak izan daitezela lortzea, eskumenei, ekonomiari, teknikari edo bestelako alderdiei lotuta gerta daitezkeen mugei buruzko informazioa jasota.
- ▶ Esku hartzen duten guztien aurreikuspenak egoki kudeatzea.
- ▶ Partaidetzaren balio pedagogikoaren funtsezko garrantzia; izan ere, lagungarri da erabaki politikoaren konplexutasuna ulertzeko eta herritar helduagoak eraikitzeko.

Gainera, martxan jarritako prozesu guztietan aintzat hartu beharko liritekeen bestelako kalitate-irizpide batzuk berreskuratu ditugu hemen:

- ▶ Konpromiso politiko eta tekniko nahikoa dago parte hartzeko prozesuaren inguruan, eta eutsi egiten zaio diseinu- eta garapen-lanetan. Horri esker lortzen dira lidergo egokia, ukitutako arloen inplikazio aktiboa eta koordinatua, eta benetako eragina plana edo programa egiteko prozesuan.
- ▶ Informazioa eta partaidetza gauzatzeko beharrezko giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak gaitzen dira. Gainera, topalekuak eta garapenerako denbora-tarte egokiak daude (saihestu egiten dira partaideek prozesutik deskonektatzeko tarte luzeegiak).
- ▶ Partaidetza inklusiboa da, eta bermatu egiten du pertsona interesdunen aniztasuna eta pluraltasuna, bai eta landutako gaien inguruan gizartean dauden diskurtso, ezagutza eta sentsibilitateen presentzia ere.
- ▶ Parte hartzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunez egiten dela bermatzeko bermeak ezartzen dira, bai eta genero-ikuspegia prozesuan zeharkakotasunez txertatzeko ere.
- ▶ Eskuragarri dagoen informazioa nahikoa, fidagarria, argia, plurala eta erabilgarria da. Partaide guztiek dute sarbidea behar besteko aurrerapenez, eztabaidatu eta proposamenak egin ahal izateko.
- ▶ Baliatutako partaidetza-tresnek eta eztabaida-teknikek ahalbidetu egiten dute ideiak azaltzea eta gaiak sakontasunez lantzea; gainera, bidea ematen dute ikuspegi berriak sortzeko eta erraztu egiten dute akordioak hartzea. Orobat, eragotzi egiten dute prozesua norbanakoen interesen adierazpen errepikakor bihurtzea.
- ▶ Parte hartzeko prozesuak barne hartzen ditu ebaluazio-tresnak, egon daitezkeen arazoak identifikatzeko eta lan egin ahala egin beharreko aldaketak egiteko. Azken ebaluazio batean zehaztu

egiten dira ondo egindakoak eta akatsak, eta jaso egiten dira hala gizarte-ikaskuntzari dagozkion alderdiak nola etorkizunerako aholkuak.

PROZESUAK DISEINATZEN ETA GAUZATZEN LAGUNTZEKO GIDA

Testuinguru honetan, gobernuko departamentuetako teknikariek zein tokiko erakundeen arduradunekin eginiko bileretan Herritarrak Artatzeko eta Herritarrek Parte Hartzeko Zerbitzuari behin eta berriz egindako eskaeretako bat da material lagungarria eskueran izatea, prozesuak diseinatu eta exekutatzeko. Zehazki, gida-dokumentu bat nahi da, labur biltzen dituen partaidetza-prozesuetan antolatutako aurrez aurrekoetara bertaratzen diren pertsona eta erakundeen partaidetza eraginkortasunez sustatzeko teknika eta baliabideetako batzuk. Halaber, administrazioetan gero eta interes handiagoa dago partaidetza digitala era osagarrian sustatzeko eta, horretarako, gida honetan 2.0 tresna batzuk jasotzen dira, parte hartzeko prozesuen sustatzaileentzat erabilgarriak izan daitezkeelakoan.

Hau da dokumentu honen helburua. Parte hartzeko prozesuak diseinatzeko, exekutatzeko eta ebaluatzeko jarraibide eta aholku orokorrak deskribatzen dira, eta zehaztu egiten dira bai aurrez aurreko lanerako zenbait teknika eta lanabes, bai prozesu horiek lantzeko erabilgarri izan daitezkeen aplikazio digitalen multzoa. Gainera, baliabide, ideia eta lan-proposamen gehiagorako sarbidea izateko erreferentziak jasotzen dira.



2 | TALDE-LANERAKO OINARRIZKO AHOLKUAK

NON KOKATZEN DITUGU AHOLKU HAUEK

Lehenik eta behin, zenbait uste azaltzen ditugu talde batekin lan egitearen inguruan; zenbait orientazio-zertzelada ematen ditugu, lagungarri izan ahal zaizkigulako prozesua arrakastaz gidatzeko, edozein fasetan egonda eta edozein izanda prozesuan dugun zeregina: bilerak erraztearen/moderatzearen arduradunak (foroak, mahaiak, bilerak) edo laguntza tekniko batek garatutako prozesu bateko administrazio-arduradunak. Gainera, aholkuak erabilgarriak izango dira edozein teknika erabilia, gai orokor eta oinarrizkoek ari baikara, eta lagungarri izango baitira taldearekin eta taldekideen artean harreman hobea sortzeko.

Hemengo asmoa ez da komunikazio-gako eta -tekniken birpasaketa zehatza egitea: esperientzia oinarri hartuta eginiko zenbait hausnarketa bildu besterik ez dugu egin nahi.

TALDEEKIN EGINIKO LANAK GARDENTASUNA BEHAR DU KONFIANTZA SORTZEKO

Edozein partaidetza-prozesuk gardentasuna izan behar du oinarri: zehatz-mehatz jakin behar dugun zeri buruz ari garen hitz egiten, nork esku-hartzen duen, zer baliabide erabiltzen ari diren, horiek nola erabiltzen diren, etab., izan ere, konfiantza sortzeko alderdi gakoak dira.

Ahalegina egin behar dugu gure solaskideek zehatz ezagutu ditzaten gure helburuak, zer bilatzen dugun, zer lortu nahi dugun beste alderditik, zein baldintzatan... Eta zer-nolako bilakaera duten prozesuko ondoz ondoko etapek. Informazio hori guztia adierazteaz gain, ulertu ere egiten dela bermatzea. Horretarako, badaude bi baliabide on: prozesuaren joko-arauak eta bilera guztien aktak.

Parte hartzeko prozesuaren joko-arauak plangintzaren hasieran egiten dira, eta agiri honetan prozesu horren inguruko informazio gako guztia biltzen dugu: helburuak, irismena, metodologia, parte hartzeko prozesuan sortutako argudio eta proposamenak gehitzeko edo baztertzeko oinarri gisa erabiliko diren irizpideak, itzultze-mekanismoak, etab.

Aktekin, ohikoena da pertsona batek kontalaritza-lan horiek egitea, gertatzen dena aintzat hartuta. Halaber, ona da bilera dinamizatzen/errazten duen pertsonak landutako gai bakoitzaren inguruko ideia nagusiak bisualki biltzea; esate baterako, papelografo batean. Horrek aukera emango dio taldeari saioa jarraitzeko, eta aktei dagokien lana erraztuko du gerora; izan ere, ideia/akordio horiek uneoro ikusiko dira, taldearen akordioak agerian utzita.

PARTE HARTZEKO PROZESU BATEN KALITATEA HOBETZEKO AHOLKUAK

- ▶ Hasieratik argitu behar dizkiegu joko-arauak parte-hartzaile guztiei; halaber, hala badagokio, dauden zalantzak jaso beharko dira.
- ▶ Saio bakoitzaren akta egin behar dugu, eta parte-hartzaileei itzuli behar dizkiegu, berrikusteko eta/edo balioztatzeko.
- ▶ Argi antolatu eta erakutsi behar ditugu eztabaida-prozedurak, ekarpenen bilketa, azterketa eta balorazio egokia eta, ondoren, parte-hartzaileei itzultzea.
- ▶ Jakina, bilera batean zertarako gauden jakiteak, erabilgarritasuna ezagutzeak, emaitzen berri izateak eta abarrek indartu egiten dute partaidetzaren dimentsio instrumentala. Bestalde, pertsona helduok,

gure eguneroko bizimodua ezaugarritzen duten agenda estuak direla eta, motibatu egiten gara gure denbora bilera esanguratsuetan ematen dugunean.

IREKITZEAREN GARRANTZIA

Parte hartzeko prozesu baten bilera bat irekitzea ez da zeregin gaitza, baina, hasiera horiek zaindu ezean, gure prozesu kolektiboaren lehenengo harria jartzea bezalako ariketa soil bat okertu egin daiteke. Hona hemen zenbait gako:

- ▶ Zaindu bilera egiteko lekua: giro eroso eta lagungarri.
- ▶ Eman eskerrak gure deialdiari jarraituta bertaratu diren pertsona guztiei.
- ▶ Argitu nor garen, nondik gatozen, zer zeregin dugun bilera honetan, etab.
- ▶ Azaldu zein den gure asmoa; zer lortu nahi dugun.
- ▶ Justifikatu zergatik egiten dugun bilera honen deialdia eta zergatik deitu zaien bertaratu diren pertsonari.
- ▶ Argi azaldu joko-arauak, eskatu taldearen onospena eta gehitu, hala badagokio, taldean bertan ager daitekeen zehaztapenen/zalantzaren bat.
- ▶ Azaldu zenbateko iraupena izango duen abiarazitako bilerak eta zenbat bilera aurreikusi diren prozesu osoan, aldeztatik horren berri badago.

KOMUNIKAZIO-TREBEZIAK

“Ukiezin” deitzen duguna (konfiantza, hurbiltasuna, enpatia, komunitate-sentimendua, talde-jarioa...) bereziki garrantzitsu bihurtzen da prozesu hauetan. Ondoren abilezia horien inguruko errepaso laburra egingo dugu; zehazki, parte hartzeko edozein prozesu martxan jartzean garrantzi handiena ematen diegunen ingurukoa.

Enpatia ezinbesteko ahalmena da prozesu sozial guztietan. Interes, ikuspegi... ezberdinak dituzten pertsonekin lan egiten dugun guztietan, funtsezkoa da “bestearen oinetakoak” jantzen jakitea. Hori da, hain zuzen ere, enpatia: bestearen lekuan jartzeko ahalmena, gainerakoak ulertzen jakiteko ahalmena. Gainerakoei entzuteko eta gainerakoen pentsamendu, sentimendu edo kezka zuzen ulertzeko ahalmena, nahiz eta horiek ahoz ez adierazi edo zati batean bakarrik adierazi.

Hori dela eta, egungoa bezalako ziurgabetasun-dosi handiko eszenario aldakorretan enpatia gako ezin beharrezkoagoa da. Argi dago bakoitzak enpatia garatzeko edo sendotzeko modu bat duela, eta ehunka esku-liburutan garatzen dira estrategiak. Hain zuzen ere, horietako bat da bestearen arazoak ulertzea, bere zergatiak ulertzea, hondoan dauden arazoak ulertzea...

ENTZUTE AKTIBO ENPATIKORAKO TEKNIKAK

Gure komunikazio-ahalmen betea hedatzeko, entzutea da gakoa. Entzute aktibo enpatikoa garatzea, non entzuleak erakutsi egiten baitu entzuten ari dena entzutea eta ulertzea merezi duela. Entzute aktibo hori errazteko tekniketako batzuk dira hauek:

- ▶ **Parafraseatzea:** funtsezkoa errepikatzea, beste pertsonaren diskurtsoan dauden ideia gakoak. Aipatutakoez gain, adierazitako emozioa. Gertakizunak oso negatiboak badira, komenigarria da eduki hori ahalik eta neutroena bihurtzea: «Administrazioak oztopoak besterik ez dizkit jartzen... Ez dit uzten nire ustiategiari etekina ateratzen». Beraz... «Esaten ari zatzaizkit arazoak dituzula zure ustiategia aurrera ateratzeko? Ulertzen dut minduta egotea; konponbide onena bilatu beharko da...».
- ▶ **Islatzea:** beste pertsona baten sentimenduaz jabetzen garenean: «Ulertzen dut zu egoera honetan horrela egotea... Ulertzen dut, egindako ahalegina eginda, egoera honek zu mintzea...».
- ▶ **Interesa agertzea:** interes hori komunikatzea, beste pertsonari hitz eginarazita: «Kontatuko didazu gehiago gertatutakoaz?».

- ▶ **Galderak egitea:** ikusten ari garenez, galderak osagai garrantzitsua dira komunikazio onerako. Ildo horretatik, galdera onenak dira “bai” edo “ez” esanda erantzun ezin direnak. Komunikazio guztietan sortzen dira tentsio-uneak, eta galderak baliagarri izan ahal zaizkigu komunikazioa eta informazioa berrezartzeko: «Ekologistak beti daude nire aurka». «Beti izan dituzu arazoak ekologistekin? Inoiz ez dute gauza onik egin lurraldean?».

Pertsona bakoitzak bere estiloa du besteekin komunikatzean, eta estilo horren arabera dira darabilen tonua, bestearekiko duen distantzia, ahotsaren bolumena edo erabilitako hitzak. Asertibitatea erabiltzea ere komunikazio-tresna egokia da. Estilo asertiboa erabiltzeak esan nahi du zintotasunez hitz egiten dugula, gure solaskidea errespetatuz eta onartuz, hostilitatea sortzea saihestuz; halaber, gure solaskideen sentimendu, beharizan eta iritzia onartzen ditugu.

NEUTRALITASUNA

Administrazioko pertsona batek zuzenean egiten badu bilera bat errazteko/dinamizatzeko lana, neutraltasuna oztopo gaitza izan daiteke; izan ere, Administrazioak gai horren inguruan duen jarrera defendatza behartuta ikus dezake bere burua, edo erabilitako zenbait argudio eztabaidatzera. Ona da bilera baten gidari-zeregina egitean ekuanimitatea bilatzea, baita guk arazoak ikusteko darabilgun ikuspegitik asko urruntzen diren baieztapenak entzuten direnean ere.

KOMUNIKAZIO ASERTIBORAKO TEKNIKAK

- ▶ **Intzidentzia:** errepikatzea, hainbat formulazio eta adierazpen erabilia, gure ideia nagusia. Eta, ahal bada, gure solaskidearen diskurtsoetan bermatuta. «Bai, jakina, baina...», «Ados nago, baina...».
- ▶ **Saihestu liskarrak:** Ados ez gauden kritika edo argudio bati erantzutean, ez egin erasorik: gure argudio nagusira itzultzen gara eta ironia erabiltzen dugu, baina ez dugu beste eraso batekin erantzuten. «Eskerrik asko zure kritikengatik, baina esan nahi dudana da...».
- ▶ **Galdetu:** Informazioa bilatu gure solaskideagan, bere jarreraren azpian dautzan arazoak argitzeko. «Beraz... Zergatik uste duzu akordio hau negatiboa dela?»

LENGOIA BERBERA MINTZATZEA: NORK BERE BURUA ULERRARAZTEA

Askotan, beste pertsona batzuei zuzentzen dizkiegu erraz izan behar ez duten kontzeptu, ideia edo hitzak. Halaber, hartzailearentzat ezohiko diren adierazpideak erabil ditzakegu. Guk geuk ere alde aurretik ezarritako ideiak eta ideia okerrak zein distorsionatuak aurki ditzakegu (hartzaileak horietara “jotzen du”, entzuten duen diskurtsoa ezagutzen duen bere errealitatearekin lotzeko). Askotan, hesi horiek gure diskurtsoak ez eraginkorrak izatea dakarte.

Horregatik da funtsezkoa gure mezua aktore hartzaileen arabera moldatzea eta, horretarako, alde aurretik oso ondo ezagutzea nor diren, gure diskurtsoa euren ulermenaren arabera egokitzeko. Gai batean teknikari aditu izatea ez da jakintza hori komunikatzeko ahalmena izatea. Eskatzen ez digunean gure solaskidea eduki tekniko itotzea segurtasun ezaren sintoma izan ohi da, eta errefusatzea eragin ohi du. Hori saihesteko estrategia ona da gutxiago hitz egitea eta gehiago galdetzea eta entzutea elkarriketa baten hasieran; horrela, gure mezua beste alderdiaren mailaren eta interesen arabera egokitzeko informazioa jasoko dugu.

PERTSUASIO-AHALMENA AREAGOTZEKO AHOLKUAK

Gure mezua transmititzeko indarrak beti ditu ondorioak entzulearengan. Gure solaskidearekin konektatzeko ahalmena eta mezua zuzen transmititzea errazten duten zenbait ezaugarri aipa ditzakegu:

- ▶ Trebetasuna, hitz egiten dugunaz badakigula transmititzeko ahalmen gisa ulertuta; hots, adituak garela eta hizpide dugun gaia ezagutzen dugula.
- ▶ Gure hitz eta keinuekin zintzoak garela transmititzeko ahalmena; egia esaten dugula eta ezer ostentzen ez dugula transmititzekoa.
- ▶ Berdinen artean hurbiltzea, prozesua garatzea beste pertsona gugandik hurbil sentitzea lortuta.
- ▶ Hitzekoa ez den lengoaiak enpatia transmititu behar du, pertsonak entzuten zaiola hauteman dezala, gure keinuak adeitsuak izan daitezela, eta gure aurpegiak, gure eskuek, gure gorputzak bat egin dezatela gure diskurtsoarekin.
- ▶ Gure diskurtsoari laguntzeko iturriak erabiltzea, adibide argi eta askotarikoak baliatuta.
- ▶ Pertsona adeitsutzat eta hurbilekotzat jotzeko moduan itzultzea.



3 | AURREZ AURREKO PARTAIDETZARAKO TEKNIKA

Gida honen muinean sartzen gara orain. Helburua da aurrez aurre parte hartzeko prozesuak gauzatzeko teknika eta tresnen katalogo bat erraztea: baliabide erabilgarrien multzo bat bilatzen da, mahai tematiko edo sektorialetan, lan-taldean edo talde motorraren saioetan, edo parte hartzeko prozesuko beste edozein unetan abiapuntuko egoeraren diagnostikoan aurrera egin ahal izateko, bestelako aukerak proposatzeko, eztabaida sustatzeko, eztabaida sortzeko, proposamenak lehenesteko, hainbat aukeraren artean hautatzeko... eta egiten ditugun saioen emaitza ebaluatzeko.

Aurkezten ditugun teknikak ez dira errezeta mugiezinak balira bezala ulertu, ezpada lanerako orientazio gisa. Beraz, saio bakoitza gidatuko duten pertsonak (hain zuzen ere, saio horien helburu zehatzak, testuingurua eta parte-hartzaileak ezagutuko dituztenek) beren lan-tresna programatu beharko dute: hemen aurkezten dugun eredu-tako bati jarrai diezaioke, batzuk nahas ditzake edo, besterik gabe, inpirazio-iturritzat har ditzake teknika berri bat (bere kasura egokitzen dena) sortzeko.

Teknikak askotarikoak dira, eta helburuen arabera egokitzen dira. Are gehiago, hemen jasota dauden gehienak askotariko helburu eta uneetarako izan daitezke erabilgarri. Hori dela eta, zaila da antolatzea edo multzokatzea, nahiz eta posible ziren aukeren artean bat hartuta ordenatu ditugun. Une jakin batean egokien izan daitekeen teknika hautatu ahal izateko, matrize hau diseinatu dugu, non tekniketako bakoitza lotu egiten baita, lerroka eta zutabeka, teknika bakoitza egokien izan daitekeen helburuetako bakoitzarekin.

		Informazioa bildu	Diagnostikatu	Proposatatu	Eztabaidatu	Erabaki	Planifikatu	Ebaluatu
01	Ekarpenak txartelekin / ideia-jasa	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
02	Arazoen zuhaitza		<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>			
03	Barometroa	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>			<input checked="" type="checkbox"/>
04	Munduko kafea		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>			
05	Parte hartzeko kartografia	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>				<input checked="" type="checkbox"/>	
06	Koherentziometroa			<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
07	Izan litezkeen koadroa					<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	
08	AMIA		<input checked="" type="checkbox"/>					
09	Delphi	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>			
10	Deriba edo ibilbidea	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>				
11	Indar-esparruaren diagrama		<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>			
12	Diana, basoa eta ebaluazio-teknikak							<input checked="" type="checkbox"/>

		Informazioa bildu	Diagnostikatu	Proposatu	Eztabaidatu	Erabaki	Planifikatu	Ebaluatu
13	Eztabaidatzeko inkestak		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>			
14	Espazio irekia		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>			
15	Ishikawako diagrama		<input checked="" type="checkbox"/>					
16	Kasu-azterketa / Gonbidatu bereziak	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>				
17	Errazte grafikoa	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>			
18	Eztabaidataldea	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>			<input checked="" type="checkbox"/>
19	Balioesteketa			<input checked="" type="checkbox"/>			<input checked="" type="checkbox"/>	
20	Simulazio-jokoa	<input checked="" type="checkbox"/>			<input checked="" type="checkbox"/>			<input checked="" type="checkbox"/>
21	Hamar galderak			<input checked="" type="checkbox"/>			<input checked="" type="checkbox"/>	
22	Denbora-lerroa	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>					<input checked="" type="checkbox"/>
23	Mapa emozionala		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>				
24	Marko logikoa						<input checked="" type="checkbox"/>	
25	Phillips 6-6	<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>
26	Proposamenak lehenestea				<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>		
27	Soziograma	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>					
28	Tailerrak / Etorkizuneko eszenarioak		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>			
29	Bozketa haztatuak					<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>
30	Ebaluazioaren eta jarraipenaren behatokia							<input checked="" type="checkbox"/>

Ondoren aurkezten da horietako bakoitza.



01 | AEKARPENAK TXARTELEKIN / IDEIA-JASA

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Parte hartzea errazteko baliagarri zaizkigun tekniken katalogo hau fitxa bikoitz batekin irekitzen dugu. Bikoitza, parte-hartzaileen ideiak eta/edo ekarpenak biltzeko oinarritzko bi tresna biltzen dituelako: ideia-jasa eta txartelen bidez eginiko ekarpenak.

- ▶ **Ideia-jasa** teknika soila da, eta taldeko lan-saio batera bertaratuen bat-batekotasuna, motibazioa eta sormena baliatzeko bidea ematen du, aztertzen den gaiaren inguruko lehenengo ideiak bilduta.

Estrategia honetan ez dago taldeko eztabaidarik: gidariak saioan landuko den gaiaren inguruko lehenengo ekarpenak egitera gonbidatzen ditu parte-hartzaileak. Ideiak, guztiak baliagarriak izanik, arbel edo papelografo batean islatzen ditu, bertaratutako guztiek ikusteko moduan.

“Jarioa” amaitzean, komeni da birpasa egitea, eta orduan, taldeak emango dituen hurrengo pausuak zein diren, emandako ideiak gaien arabera antolatu behar dira, bidez batez onarpen zabalena dutenak zein diren neurtuta. Era horretan, hobeto baliatu ahal izateko eta beste momentu batzuetan horietan sakontzeko oinarria jartzen ariko gara.

- ▶ **Ekarpenak txartel** bidez biltzea (txartelak koloretakoak zein homogeneoak izan daitezke) oinarritzko beste teknika bat da, eta aukera ematen du idatziz jasotzeko bileran parte hartu dutenen ekarpenak.

Gida honetan jasotako teknika askotan erabiltzen den baliabidea da; izan ere, saio batean (oro har, 8-10 pertsonatik gorako bilera jendetsuetan) parte hartzen duten pertsona guztien ikuspuntuak biltzeko modu arina da. Emaitzen ekoizpenean ordena transmititzeko era oso bisuala da; izan ere, gerora multzokatu, hierarkizatu, etab. egin daitezke.

Saioaren gidariak arretaz eman beharko ditu dinamika irekitzeko jarraibideak; halaber, arretatsu jokatu beharko du enuntziatuarekin eta/edo parte-hartzaileek txartelen bidez erantzun beharreko galderarekin. Galderak argia eta zehatza izan behar du. Esate baterako: zure ustez, zein dira auzo honek aurre egin beharreko bi arazo nagusiak? Gainera, kasu honetan, zehaztu egin beharko du galdera horri erantzuteko bi txartel emango zaizkiola parte-hartzaile bakoitzari, eta txarteletako bakoitzean arazoetako bat jaso beharko dela (arazo bat / txartel bat). Adibide hau erabilgarria da arazoen zuhaitz bat egiten bada (02 fitxa).

Txartelen kolore ezberdinak baliagarri izan ahal zaizkigu ondoko eztabaida antolatzeko. Esate baterako, AMIA batean (08 fitxa) koloretako kartulina edo txarteletan joka dezakegu, ahulguneak edo indarguneak diren, mehatxuak edo aukerak diren. Kasu honetan, lau koloretako txartel bana eman dakizkioke pertsona bakoitzari (bat AMIAren esparru bakoitzerako); bestela, bi koloretakoak eman dakizkioke, lehenbiziko errondan alderdi positiboak eta negatiboak bereizi nahi baditugu bakarrik.

Interesgarria da pertsonak txartelak irakurri ahal izatea, parte-hartzaileek eurek idatzi eta horma edo arbel handi batean itsatsi ondoren. Beraz, jarraibide zehatzak ematea gomendatzen dugu, jendeak ez dezan testu gehiegi idatzi, ez dadin letra xehea edo boligrafoa erabili (hobe da errotuladoreak erabiltzea).

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Ideia-jasa, oro har, eztabaida baten hasieran erabiltzen da, lanari ekiteko, bidea emate aldera bilerara bertaratu izana arrazoitzen duten lehenbiziko ekarpenei.
- ▶ Ideia-jarioa oso erabilgarria da sormena bultzatu nahi dugunean; izan ere, hasiera batean ideia/ekarpen gutxi sortzen direla eman dezakeen arren, teknika hau erabiltzean ohikoena da arian-arian hasiera bateko esku-hartzeek beste esku-hartze batzuk sustatzea. Teknika honetan dei-efektua zalantzarik gabea da.
- ▶ Txartel bidezko ekarpenak gerora aipatzen diren hainbat teknikatan erabiltzen dira, bilerari gardentasuna emateko eta denen aurrean partekatzeko parte-hartzaileek egiten dituzten ekarpenak. Gainera, oso erabilgarria da oro har isilagoak edo lotsatiagoak diren pertsonen partaidetza errazteko, bai eta oreka sortzeko ere pertsona horien ekarpenen eta pertsona irekiagoek eta berbatiagoek egiten dituzten artean.
- ▶ Txartel edo kartulinak baliatzea oso erabilgarri izan daiteke, halaber, gai gatazkatsuen inguruko eztabaidak irekitzeko. Ildo horretatik, komenigarri izan daiteke txartela anonimoa izatea eta, hasiera batean behintzat, ekarpenen trazabilitatea galtzea; horrela, nolabaiteko askatasunez heldu ahalko zaie bertaratuak delikatusat jotako alderdiei. Horretarako, egokiena da saioaren dinamizatzaileak txartel guztiak biltzea eta berak itsastea horman.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Ideia-jariorako, papelografo edo arbel bat behar dugu, ekarpenak/ideiak jasotzeko.
- ▶ Txartel bidezko ekarpenetarako espazio egokia behar dugu: horma handi huts bat edo arbel handi bat. Idatzi ondoren, bertan jarriko dira txartelak.
- ▶ Komeni da txartelek edo kartulinek A5 tamaina izatea, gutxi gorabehera. Halaber, post-itak erabil daitezke ekarpenak jasotzeko. Kasu horretan ere komeni da tamaina espazioaren eta distantzien arabera egokitutakoa izatea.
- ▶ Errotuladore finak parte-hartzaile guztientzat.
- ▶ Karroza-zinta, txartelak horman itsasteko hormako pintura kaltetu gabe.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

- ▶ Ideia-jarioa hogeita hamar edo berrogei minutuan egin dezakegu gutxi gorabehera, pertsona-kopuruaren eta landu beharreko gaiaren konplexutasunaren arabera.
- ▶ Txartel bidezko ekarpenen dinamika batek denbora gehiago hartzen du, batez ere txartelak ikusteko moduko leku batean jarri ondoren irakurtzeko, antolatzeko, hausnartzeko eta abarrerako prozesu bat irekitzen delako. Ona da gutxienez ordubeteko saio bat izatea.
- ▶ Aintzat hartu behar da bi dinamika direla talde baten ekarpen eta ideiak biltzeko moduak; beraz, denbora-tarteak bat egin beharko dute txertatzen diren testuinguruarekin.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

- ▶ Pertsona batek edo bik asko hitz egiteko edo esku-hartzeak monopolizatzeke joera duten taldeetan ez da komeni "ideia-jario" bat irekitzea; izan ere, hainbesteko etorria ez duten pertsonak edo pertsona lotsatiagoak kokildu egin daitezke. Jakina, hori baloratzeko hasiera batetik edo ondo ezagutu behar da taldea. Aldez aurreko dinamika bat eginda egoera hori atzeman badugu, hobe da txartel bidezko ekarpen batera edo Phillips 6-6 (25 fitxa) batera jotzea.
- ▶ Ideia-jarioa egokiagoa da esku-hartzeak gehiegi betetzen ez dituzten pertsonak ez daudenean, ideia asko ikusgai jarri behar direnean (ekarpen batzuek beste batzuk estimulatzen dituztelako) eta taldearen inguruko konfiantza jakin bat dagoenean (esku-hartzeak errazten ditu, trabarik gabe).

- ▶ Ekarpinak txartel bidez jasotzea oso erabilgarria da taldeko kideek ez dutenean elkar ezagutzen (txartel batek ematen duen intimitatean errazagoa da ekarpinak egitea), eztabaidak monopolizatzen dituzten pertsonak daudenean eta bileretako gidariei bilera batean pertsona bakoitzak gutxienez ekarpen bat egitea interesatzen zaienean.
- ▶ Txartel bidezko ekarpinak biltzean arretaz jokatu behar dugu, parte-hartzaile batzuek, ikusmen- edo prestakuntza-arazoak tarteko, idazteko arazoak izan baititzakete. Kasu honetan diskrezioz eman behar zaie babesa pertsona horiei, guk esku hartu gabe ez dutelako txartelik beteko. Egoera hori orokorra bada bertaratuen artean, tresna aldatu beharko genuke, eta elementu ikusgarriagoak erabili (argazkiak, irudiak, marrazkiak) beharko genituzke.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Gure ideia-jasak funtzionatu du, baldin eta hainbat eta askotariko ekarpinak jaso badira, eta batzuk besteak aberasten badituzte. Giroa lasaia bada eta pertsona gutxi batzuek ekarpinak monopolizatzen ez badituzte.
- ▶ Txartel bidezko ekarpen batek funtzionatu du baldin eta txartelak jarri, antolatu eta eztabaidatu ondoren, taldeak hautematen badu "txartelen mapa" horrek erantzun egokia ematen diola hasiera batean eginiko galderari. Txartelak antolatzeko prozesuan sortu ahal izan diren ezadostasunak eztabaiden bidez konpondu badira, eta konpondu gabeak gutxi badira eta horrela jaso badira saioan eta aktetan.





02 | ARAZOEN ZUHAITZA

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU


EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Egoera jakin batean gertatzen diren arazoak eta horien zergatiak analizatzean datza. Lehenengo diagnostiko gisa planteatu daiteke edo, hobeto, diagnostikoaren bigarren etapa batean, atzemandako arazo jakin batzuetan apur bat gehiago sakontzeko.

Funtsean, tresna honen bidez arazo bakoitzaren zergatiak (eta horien zantzua) xehatzen dira, gatazka-oren osagai guztien artean sortzen diren loturak aintzat hartuta eta egoeraren konplexutasuna azalera zita.

Ekarpenak txartelen edo ideia-jarioaren bidez egiten dira. Azken kasu horretan, dinamizatzailea arduratuko da papereratzeaz. Beraz, lehen isolatuta zegoen arazoa apurka-apurka arazo horren baldintzatzaileen eta adierazpenen multzo bihurtzen da, arazoaren benetako zuhaitza konfiguratuta. Aztertzen den arazoa edo gaia hormaren edo panelaren erdian jarri behar da, eta horren eragileak eta zantzua, hurrenez hurren, zuhaitzaren sustrai eta adarrak izango dira.



Garrantzitsua da argi eta zehatz aurkeztea hasiera bateko proposamena, dinamika irekitzeko. Esate baterako: "Idatzi Mankomunitateak honakinen arloan dituen bi arazo nagusiak" edo "Idatzi zure ustez eskualdeko komunikazioen funtzionamendu txarra eragiten duten bi arazoi nagusiak". Ekarpentako bakoitza txartel batean jasoko da (ekarpen bat / txartel bat). Parte-hartzaileek eurek jarriko dituzte zuhaitzean ekarpenak, gidariarekin laguntzaz. Azken horrek bermatuko du taldea aurkeztu diren ideiekin ados dagoela.

Jakina, teknika honetan bitartekariaren/dinamizatzailearen lana gakoa da; izan ere, arazo baten zergatiak eta zantzua lantzean, tentsioak sortzea eragozteko saiakera egin behar du, eta ekarpenen hierarkiazioa/kokatze-lana erraztu beharko du. Horiek horrela, gure zuhaitzari adar edo sustrai bat gehitzean ezinbestekoa da beti adostasunetik abiatzea. Halaber, gerta liteke txartelak ordenatu ahala eta parte-hartzaileek esku hartu ahala saioaren bitartekariak txartel berriak gehitzea, taldeak oniritzia eman ondoren. Era berean, taldea erlatiboki handia bada, zatitzea komeni da, eta bakoitzak arazo bat lantzea.

Nolanahi ere den, talde bakoitzak dinamizatzailerik bat izan behar du.

Azaltzen den ideiarene baten inguruko ezadostasuna bada, zergatia edo zantzua birformulatzeko ahalgina egingo da, harik eta taldea zuhaitz osoarekin eroso dagoenera arte. Akordiorik lortzen ez bada, txartela edo ideia izartxo edo marka batekin markatu ahal izango da; hain zuzen ere, marka horrek adieraziko du ideia zehatz horrek ez duela talde osoaren adostasuna.

Analisi hori amaitu ondoren, parte hartzeko prozesuaren ondoko tarteetan aurkeztu beharko dira arazoaren zergatietan sakontzeko ditugun bestelako aukerak. Murrizteko edo eteteko saiakera egin behar da, dauden aukeren arabera.

Arazoen zuhaitza begiraturik, ikusi egingo dugu, halaber, zergati globalagoak edo konplexuagoak daudela, eta beharbada zailago izango zaigula gure kokapenetik horiei heltzea. Beste batzuei heltzea, aldiz, errazagoa edo bideragarriagoa da.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Teknika erabilgarria da bertaratu guztien ekarpenak laster biltzeko diagnostiko sozialak egiteko alde aurreko faseetan, eta ahalbidetu egiten du diagnostiko auto-ebideenteen akordioak erdiestea.
- ▶ Azalera egiten du egoeraren konplexutasun osoa eta erraztu egiten du gerora beste aukera batzuk bilatzea.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Txartel koloredunak (esate baterako, A5 tamainakoak) eta errotuladoreak.
- ▶ Karrozero-zinta edo blu tack-a, horman itsasteko.
- ▶ Beharrezkoa da aretoan behar besteko espazioa identifikatzea, txartelak itsasteko eta ondoren kokatzeko.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

- ▶ Aztertzen den gaiaren konplexutasunaren arabera aldatzen da, baina, oro har, arazoaren zuhaitza bi orduko saio batean egin daiteke.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

Parte-hartzaileek azaldutako diskurtsoak birformulatzeko eta kasuen arabera, gure zuhaitzera adar berriak igotzeko, saihestu egin behar da arazoak era oso globalean, oso orokorrean edo irtenbiderik gabe formulatzea; izan ere, etorkizunean jarduteko dugun ahalmena txikitu daiteke.

Komeni da teknika honetan, dinamizatzaileraren irudiaz gain, kontalariaren irudia ere egotea, ondoren egiten diren aktetan arazoaren zuhaitza egoeraren mapa sinoptiko gisa agertzeaz gain, zantzu edo zergati bakoitzaren inguruko eztabaida ezaugarritu eta aberastu duten xehetasunak ere ager daitezen.

Ondoko saio batean aldagai hau erabil daiteke: irtenbideen zuhaitz bat egitea. Aurrekoaren antzeko zuhaitz bat izan daiteke, non arazoaren zantzuen orde irtenbideen zantzuak ezartzen baitira. Era horretan, arazoaren ikuspegi negatibotik lortu nahi den ikuspegi positibora igaro daiteke. Horrek erraztu egingo du lehentasuna duten ekintzen inguruko ondoko hausnarketa, betiere nabarmenduz ikuspegi errealista beharrezkoa dela.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Zuhaitza aberastu egiten da taldean ekarpen eta hausnarketa berriekin lan egitean; zehazki, parte-hartzaileek banaka eta txartelen bidez eginikoei gehitzen zaizkie.
- ▶ Zuhaitza egin ahala sortu diren ezadostasunak eztabaiden bidez konpondu dira, eta azkenean konpondu gabe dauden gaiak gutxi dira.
- ▶ Taldeari galdetzen diogu, egin ondoren, aztertutako egoera eginiko zuhaitzean ondo islatzen ote den. Erantzuna baiezkoa da nagusiki.



▶▶ 03 | BAROMETROA

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI


PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Eztabaidarako tresna erabilgarria da taldeak oso handiak ez direnean (20 pertsonatik beherakoak). Interresgarria da eztabaidaren lehenbiziko faseetan erabiltzea, norberaren hasierako jarrerak azaltzeko eta agerian uzteko, eta taldean dauden argudio eta diskurtsoak ezagutzen hasteko.

Espazio irekia eta mahai eta aukirik gabekoa behar dugu, 20 pertsonak askatasunez mugitu daitezuten. Erdialdean, lurrean marra bat marraztuko dugu (klarionaz, kanpoan bada; karrozero-zintaz, barnealdean bagoaude): horrek bitarteko jarrera irudikatuko du eta, hain zuzen ere, marra horren alde batean edo bestean jarriko dira pertsonak, gidariak ematen duen esaldiarekin ados dauden edo ez dauden, eskeman ikus daitezkeen bezala.



Jarduera baieztapen batekin hasten da: dinamizatzaileak arretaz hautatuko du baieztapen hori. Bertaratuek hasiera bateko jarrera adierazi behar dute: entzundako esaldiarekin oso ados edo oso ezados dauden adierazi beharko dute. Hasieraz geroztik, esku hartzeko eskatuko zaie, "oholtzan" jarrera hori hartzeko izan dituzten argudioak azal ditzaten. Baten batek esku hartu eta bere argudioak azaltzen dituenean, gainerako parte-hartzaileei eskatzen zaie espazioak birkokatzeke; izan ere, datu eta iritzi berriak entzuten dituzte, eta euren ikuspegia alda dezakete.

Oro har, erdialdeko lerrotik urrunen dauden pertsonen euren argudioak azaltzeko eskatzen zaie, baina edonork egin dezake, beharrezkotzat jotzen bada, betiere hitz-txanda errespetatuta. Hori lortzeko, taldea oso berbatia eta zaratsua bada, edozein objektu erabil daiteke "mikrofono" gisa; horrenbestez, "mikrofono" duenak hitz egin ahalko du bakarrik.

Ikusten denean ideiak errepikatu egiten direla eta ikuspegi eta argudioak azalduta daudela jada, dinamizatzaileak barometroa itxi eta beste erronda bat has dezake, beste enuntziatu batekin. Oso garrantzitsua da gutxienez 3-4 enuntziatu edo baieztapenekin lan egitea, gai baten esparruko alderdi edo elementuak esploratu ahal izateko. Halaber, garrantzitsua da taldea erosoago sentitzea teknikarekin, eta iritziak askatasun handiagoz eman ahal izatea.

Teknika honetan oso garrantzitsua da taldeari ematen zaizkion baieztapenak ondo hautatzea. Komeni da ondo pentsatzea eta, beharrezkoa bada, alde zurretik testatzea gure konfiantza-esparruan.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Normalean diagnosi- edo eztabaida-fasean erabiltzen dugu, nahiz eta egoera jakin batzuetan baliagarri izan daitekeen esku hartzeko proposamen jakin batzuk sor daitezen.
- ▶ Erabilgarria da gai jakin batzuen inguruan eztabaida ez hain formala irekitzeko eta garatzeko; izan ere, zutik egoteak eta aretotik mugitzeak elkarriketa malgutasun handiagoz egitera gonbidatzen gaitu.
- ▶ Prozesu baten lehenbiziko faseetan taldeari lagungarri izan dakioke elkarren ezagutza sortzeko eta lotsa galtzeko.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Leku egoki bat eta erdialdeko lerroa markatzeko zerbait behar dugu (klariona, kanpoan bada; karrozero-zinta, barnealdean bada). "Mikrofono" gisa objekturen bat erabiliko badugu, eraman egin beharko dugu.
- ▶ Oso garrantzitsua da alde zurretik eta arreta handiz prestatzea teknika erabilita taldeari proposatuko dizkiegun esaldi edo enuntziatuak. Komeni da erabiliko ditugunak baino baieztapen gehiago izatea pentsatuta, batzuk edo bestetzuk erabili ahal izateko taldearen egoeraren arabera.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

- ▶ Teknika hau 50 minutuan edo ordubetean egin dezakegu. 10-15 minutu kalkulatu behar dira egiten ditugun 3-4 baieztapenetako bakoitzerako. Eztabaidaren bat gehiago luza daiteke, bertaratutako pertsonen eta gaiak duen interesaren arabera.


AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

- ▶ Interesgarria da pertsona batek idazkari- edo kontalari-lana egitea, eta eztabaidan erabiltzen diren argudio nagusiak idaztea, prozesuaren ondoko faseetan erabilgarriak izan baitaitezke.
- ▶ Taldean dagoen konfiantzaren arabera, komeni da lehenbiziko baieztapena, entsegu gisa, polemika apur bat sor dezakeen gairen baten inguruan, nahiz eta, era berean, gaiak garrantzirik ez izan, osagai politikorik ez izan eta prozesuan landuko ditugun eztabaidetatik erabat kanpo egon. Are gehiago, ahal bada, eragin ditzala umore-dosiak...
- ▶ Enuntziatuek ezadostasun puntu bat sortzeko modukoak izan behar dute, alde edo aurka kokatzeko modukoak. Ezin ditugu hautatu pertsona guztiak ados jartzen dituen enuntziatuak, hala nola "ingurumena oso garrantzitsua da". Ezer esatekotan, "ingurumen-gaiak enpleguari dagozkionak baino garrantzitsuagoak dira" esan genezake, edo alderantziz.
- ▶ Enuntziatuek ezadostasunak eragiten dituzten alderdietan egin behar dute ados, aurkako jarreretan edo diskurtso ezberdinetan, betiere aintzat hartuta nolabaiteko adostasuna lor daitekeela aldeko eta aurkako argudioak argi azaltzen badira. Hasiera batean, saihestu egingo ditugu irmoki, emozionalki eta larriki kontrajarritako jarrerak.

- ▶ Ez dugu aurrez aurre dagoen inor mindu dezaketen baieztapenik egin behar. Parte hartzeko gainerako teknika guztietan bezala, gidariek bitartekari-rola egin behar dute, landutako gaien inguruan edozein iritzi dutelarik.
- ▶ Komeni da teknika hau ez erabiltzea orain arte eginiko esku-hartzeak edo kudeaketa analizatzeko, horrek arazoaren ikuspegi alderdikoia eta ez eraikitzailea eman baitezake. Beraz, saihestu egin behar ditugu “Kiroldesia eraikitzea akats larria da” bezalako enuntziatuak. Gure asmoa bada udalerrian kirol-esparrua hobetzea, baieztapen hau erabil dezakegu: “Hobe da oinarrizko kirola babestea, taldeak finantzatzuz, udal-instalazioak hobetzea baino”.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Errespetuz eta zorroztasunez hainbat argudio eta ikuspegi adierazi badira aztertzen ari garen gaiaren inguruan.
- ▶ Aretoan mugimendua egon bada; hau da, parte-hartzaileek iritzia erraztasunez aldatu badute eztabaidetan, ikuspegi eta jarrerak aldatuz argudio baliagarri eta sendoak entzutean, nahiz eta eurenak ez izan.
- ▶ Taldeak argi eta garbi gustura aritu badira teknikarekin, eta bertaratutako ia pertsona guztiek parte-hartze aktiboa izan badute eztabaidan.
- ▶ Saioa amaitzean, ideia argiagoa dugu jarrera eta argudio ezberdinen inguruan, eta geure burua prozesuan aurrera egiten jarraitzeko gaiago ikusten badugu..





04 | MUNDUKO KAFAEA

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Tresna honen jatorrizko izena World Café da. Eztabaidagai nagusi baten inguruan sorkuntza soziala ageriaraztea ahalbidetzen du, ondoren plangintzara igaro ahal izateko. Juanita Brownek eta David Isaacsek sortu zuten (1995, Kalifornia), erakundearen garapenaren esparruan, eta ideologo haiek egiazko mundu-mugimendu bat sortu dute tresnaren inguruan².

Elkarrizketa eta jakintza kolaboratiborako, eta jarduteko bestelako aukerak ezagutzeko prozesu malgua eta erabilerraza da. Horixe da, hain zuzen ere, gako eszenikoa: mahai-zapiekin atondutako eta kafez hornitutako mahaien inguruan elkarrizketarako espazioak sortzea. Mahai horien inguruan jakintza partekatzen da, eta ekintzarako aukerak sortzen dira taldeetan; oro har, handiak izaten dira taldeak.

Parte-hartze prozesu orotan ohi bezala, funtsezko hiru premisa dira tresna honen abiapuntu: pertsona guztiek dugu jakintza eta sormena erronkei aurre egin ahal izateko, erronka zailenak izanik ere. Bestalde, behar ditugun erantzunak eskuragarriak dira, sorkuntza soziala baino ez dugu behar erantzunak ageriarazteko; eta “jakintsuagoak” gara elkartzen aritzen garenean, nor bere aldetik dabilenean baino.

Laburbilduz, Munduko Kafe bat antolatzeko, gutxienez 40-50 laguneko taldea deitu behar dugu. Talde handi hori 4-5 pertsonako mahaien inguruan antolatuko dugu: zenbat azpi-talde, hainbat mahai beharko ditugu. Mahai bakoitzean mahai-zapia, kafea eta pastak jarriko ditugu.

Jarraian, talde handiko gidariak gai nagusiaren inguruko hainbat galdera egingo ditu: galdera bat egingo du txanda bakoitzeko. Gutxienez hiru txanda egitea gomendatzen da, eta txanda bakoitzak hogeita minutu inguru irautea. Txanda bakoitzean 4-5 pertsonako taldeak galderari erantzungo dio, eta bururatutako guztia (testuak, irudiak, hitzak...) mahai-zapian idatziko ditu (paper zurikoa baita zapia).

Txanda bakoitzeko denbora igarota, mahaikide guztiak, anfitrioi-lanak egiten dituen pertsona izan ezik, beste mahai batera aldatuko dira. Alegia, A mahaiko 3-4 pertsona B mahaira lekualdatuko dira, adibidez; A eta B mahaietan beti egongo da anfitrioi bera, txandak aldatu arren. Anfitrioiak ongi-etorria egingo die etorri berriei, eta hurrengo txandan eta euren mahai kokatzen lagunduko die. Zenbait txandaren ostean, ideiak uztartzen eta lotzen hasiko dira.

Aurreikusitako txandak/errotazioak bukatzean (zenbat galdera egingo dizkiogu taldeari, hainbeste txanda egingo ditugu), ohikoena da taldeak hasierako mahaietara itzultzea, euren mahai-zapia gainontzekoen ekarpenekin zer-nola hazi den ikusi ahal izateko. Ondoren, bertan jasotako ideiak laburbildu ostean, mahai-zapi/panel guztien aurkezpena egiten da. Mahaiko anfitrioiari dagokio ataza hori egitea.

Talde handiaren txanda horren ostean, dinamikaren gidariak agerian jarriko ditu jakintza kolektiboaren bidez ateratako ondorioak edo, hala badagokio, eraikuntza kolektiboan oinarritutako prozesutik eratorritako ekintza-aukerak edo hurrengo pausoak.

Hori da, nagusiki, Munduko Kafea deritzoguna. Gainera, Munduko Kafe bat martxan jarri nahi izanez gero, ongi etorriko zaigu dinamikaren sortzaileek deskribatutako zazpi printzipioei³ jarraitzea:

2] <http://www.theworldcafe.com>

3] <http://www.theworldcafe.com/wp-content/uploads/2017/11/Cafe-para-llevar.pdf>

- ▶ **Testuingurua kokatzea.** Lehendabizi taldea biltzeko arrazoiak zehaztu behar ditugu, eta horrekin lortu nahi dena zer ote den argitu behar dugu. Parte hartzea eskatzen duten jarduera guztietan bezala, gure helburuak zein diren jakiteak deialdia modu egokian egitea ahalbidetuko du, eta gure helburua lortzeko sortu nahi den “elkarrizketa” bideratzen lagunduko digu. Honako galdera hauei erantzuteko unea da: nork hartu behar luke parte proposatu nahi dugun “elkarrizketan” eta zein gai edo galdera izango dira egokienak?
- ▶ **Giro eta espazio atsegina sortzea.** Bigarren pausoa ere logikoa da: beste pertsona batzuekin batzar batean bildu izan garen guztiok dakigu zein garrantzitsua den xehetasunak zaintzea. Xehetasunek eragiten dute ondo hartu gaituztelako sentipena izatea, gela batean eroso sentitzea edo gure alderdirik onena ateratzea (pentsamenduak, elkarrizketa, eta entzumen aktiboa eta sormenezkoa). Horretarako, garrantzia handia du deialdia edo gonbidapena nola egiten dugun, nola hartzen dugun jendea eta nolakoa den hartuko gaituen espazio fisikoa.
- ▶ **Garrantzia duten gaiak esploratzea.** Metodologiaren muinean sartzen ari gara. Parte-hartzaileei galdera esanguratsuak egin behar zaizkie, galdera “boteretsuak”; izan ere, horrek agerraraziko du taldeak jasotako baldereari erantzuteko duen ezagutza. Taldearentzako galdera esanguratsuak aurkitzeko aurretiazko lan zorrotza egin behar da.

Juanita Brownen eta David Isacsen hitzetan, galdera boteretsuak dira entzulearen jakin-mina pizten dutenak, hausnarketarako elkarrizketa sustatzen dutenak, azpian dauden usteak azalarazten dituztenak, sormenerako eta aukera berrietarako bidea irekitzen dutenak, energia eta aurrerapena sortzen dutenak, arreta-bideak eta ikerketa-fokuak sortzen dituztenak, esanahi sakonak ukitzen dituztenak eta galdera gehiago eragiten dituztenak. Daukagun denboraren eta ezarritako helburuen arabera, gure Munduko Kafean galdera gehiago edo gutxiago egingo dizkiogu taldeari.

Zenbat eta galdera gehiago egin, orduan eta elkarrizketarako txanda progresibo gehiago beharko ditugu, orduan eta denbora gehiago beharko dugu eta, hori bai, sakonago jardungo dugu gure lan-ildoan. Esaterako, lurralde jakin bateko hondakinen kudeaketari buruzko Munduko Kafe batean, hiru txanda proposa daitezke, eta txanda bakoitza galdera hauetako batean oinarritu:

- 1.- Gure udalerriko hondakinen kudeaketako zein alderdik asebetetzen gaitu?
- 2.- Zein dira erronkak hondakinen kudeaketarako eredu-aldaketan? Zer hobetu behar dugu?
- 3.- Beraz, kudeaketaren ardura daukan erakundeak, udalak edo mankomunitateak zertan egin behar du ahalegina?

Jar dezagun beste adibide bat. Etorkinekin lan eginez gero, euren integrazioari loturiko galderok egin ahal zaizkie:

- 1.- Une honetan nola sentitzen zara hartu zaituen hirian? Zein dira hemengo bizitzaren alderdi positiboak?
- 2.- Eta zein dira alderdi negatiboak?
- 3.- Zerk eragin dezake zure hemengo bizimodua hobetzea edo kalitate hobekoa izatea?

- ▶ **Guztien komunikazioa xaxatzea.** Teknika honetako dinamizatzailearen lana da parte hartzen duten pertsona guztiak animatzea, ekarpenak egin ditzaten euren ideiekin, ikuspuntuekin eta ikuspegiekin; aldi berean, erraztu egin behar da entzunez soilik parte hartu nahi dutenek hala egin ahal izatea.
- ▶ **Askotariko ikusmoldeak konektatzea.** Errotazioei esker, mahaien arteko trukeari esker, partaide berriak eta ideia berriak ezagutzeko aukerak sortzen dira; hala, norberaren pentsamenduak aktibatzen dira, eta norberaren aurkikuntzen esentziak pentsamendu-zirkulu gero eta zabalagoekin lotzen dira. Parte-hartzaileek, ideia eta gako-gaiak mahai batetik bestera eraman ahala, ikusmoldeak trukutzen dituzte, modu kolektiboan aberasten dira eta sormena sustatzen dute.
- ▶ **Idea eta pertzepzio berriak entzutea.** Beharbada, entzuteak zedarrizten du Kafe baten arrakasta. Entzunaldi partekatua gauzatzean eta askotariko gai, patroi eta ikuspegiei arreta emanda, talde handiak irudikatzen duen osotasun zabalagoarekin dauden loturak hautematen hasten gara.

- **Aurkikuntza kolektiboak biltzea eta partekatzea.** Munduko Kafearen azken fasean mahai-zapiak aurkezten dira. Alegia, ideia eta sorkuntza kolektiboak ikusgarri egiten dira. Horrek aukera ematen du darabilgun edo arduratzen gaituen gai nagusiaren inguruan agertu diren azpigaiak konektatzeko.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Parte hartzeko prozesu baten hasieran gaudenean, “irekiera” fase batean gaudenean eta talde handietan eta eztabaidagai komun baten inguruan sormena azalratzea denean helburu nagusia.

Mobilizatutako sormena eta bildutako ideiak erabilgarri izan dakizkiguke esploratzen hasteko, hurrengo faseetan nora jo definitzeko, plangintza nola bideratu zehazteko.

Pertsonak hainbat elkarrizketa-errondatan mugitzeko uneak sortzea oso interesgarria da, ideien arteko lotura sustatzen delako eta, modu horretan, azken errondetan talde edo mahai guztiak “kutsatzen” direlako aurreko informazioarekin eta aurreko elkarrizketetako ideiekin. “Elkarrizketen mugimendu” horrek ikaskuntza eragiten du, eta erabakiak hartzen laguntzen du.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- Deitutako pertsona-kopurua hartzeko moduko areto handia. Sortuko diren azpi-taldeak beste mahai behar dira, dagozkien aulkiekin (4-5 pertsonarentzako). Ez ahaztu kafea eta pastak, dinamika askoz atseginago eta abegikorrago bihurtuko dute eta. Errazagoa bada, kafea eta pastak mahai partekatu batean ipini daitezke, parte-hartzaileak erronden arteko bitarteetan bertaratzeko moduan.
- Mahai bakoitzeko “sorkuntza” jasoko duten mahai-zapiak paper jarraituz egindakoak izan daitezke, edo papelografo-orri handiak. Parte-hartzaileentzako errotuladoreak, pinturak... ere beharko ditugu, bai eta aldizkariak, artaziak eta kola ere, collageak egiteko.
- Bukaeran mahai-zapi guztiak ipintzeko espazio bat beharko dugu aretoan. Horma behar bezain handia ez bada, lurrean ere jar daitezke.
- Arbela edo papelografoa, dinamizatzaileak ondorioak edo prozesuaren hurrengo ildoak idatz ditzan.
- Dinamizatzaileak tresnaren bat erabil dezake (kanpaitxoak, botila, gonga...) txandak markatzeko eta hurrengo galdera aurkeztu behar duenean partaideen arreta bereganatzeko, batez ere Munduko Kafe oso jendetsuetan.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

- Iraupena egindako galdera-txanden eta mahai-kopuruaren arabera izango da. Gutxienez bi ordu behar dira hiru galderako Kafe baterako, hiru txanda eta zortzi mahai ditugunean; izan ere, hasierako aurkezpenerako eta mahai-zapien aurkezpenerako eta ondorioetarako behar den denbora ere hartu behar da kontuan.
- Hortik aurrera, taldea oso jendetsua bada (esaterako, 200 pertsonakoa eta 40 mahaikoa), denbora biderkatu egin daiteke, eta goiz oso bat, arratsalde oso bat, edo egun oso bat har dezake.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

- Ikusten ari garenez, Munduko Kafearen formatua malgua da; taldeari egin nahi zaizkion galdera “boteretsuak” adina erronda egin ditzakegu, eta 40 laguneko zein 200 laguneko talde batekin antola daiteke. Tresna honen sortzaileek 1000 lagun ere bildu izan dituzte. Bistan denez, geure beharizanen, baliabideen, esperientziaren... arabera emango diogu forma geure Kafeari.
- Horrez gain, pertsona bakarra izan daiteke dinamizatzailea, baita teknika hau talde handietan baliatzen denean ere; izan ere, taldekideen anfitrioi-lanak egin ditzakete. Edonola ere, eta gure prozesuak hala

egiteko aukerak eskaintzen baditu, gomendio ona da anfitrioiak gutxi-asko gidari profesionalak izan daitezela, edo, hori posible ez balitz, gure dinamikaren “konplize” izan daitezela (aurretiaz bil gaitzke eurekin, teknikaren eta euren egitekoaren inguruko xehetasunak emateko). Taldea oso dinamikoa ez denean, anfitrioiaren lana da paper aktiboa jokatzeta eta, batez ere lehenbiziko txandetan, mahaikideen ideiak biltzeaz arduratzea (noski, ez du ekidin behar mahaikideek euren ekarpenak zuzenean mahai-zapian egitea).

- ▶ Teknika hau gutxienez 40 edo 50 laguneko taldeekin egitekoa dela diogunean, eguneko osoa aprobetxatu ahal izateko irizpidea darabilgu. Baina, malgutasunari men eginik, ikusten badugu 20-25 laguneko talde batekin (4-5 mahai) gure helburuetarako emaitza positiboak lor daitezkeela, aurrera. Beharbada emaitzak ez dira hain aberasgarriak izango, baina ezer ez da oztopo.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Dinamika martxan den bitartean taldeak motibaturik ageri dira, elkarrizketen jariora ona da mahaietan, eta azpi-taldeen autonomia ere ona da.
- ▶ “Mahai-zapiak” hazten doaz txandarik txanda, gero eta ideia gehiago eta gero eta konplexuagoak jasotzen dituzte; halaber, parte-hartzaileen interesa hazten doa txandarik txanda, ikusgarri egiten denean ekarpenak gehitzen ari direla.
- ▶ Ideiak partekatu ostean gure prozesurako eta gure helburuetarako ondorio erabilgarriak lortu dira, direnak direlarik ere. Adibidez, baliagarri zaizkigu plangintza parte-hartzaileko faseari jarraipena emateko edo talde teknikoak plangintza egin dezan eta, ondoren, plangintza taldera ekartzeko, honek baliozta dezan.
- ▶ Prozesuan parte hartu duten lagunek modu positiboan balioetsi dute jarduera, eta motibaturik ageri dira elkarrekin lanean jarraitzeko, ekarpenak egiteko, denbora gehiago eta ahalegin handiagoak eskaintzeko bildutako ideietatik abiatuta (baldin eta beharizan / helburu hori aurreikusitakoa bada).





05 | PARTE HARTZEKO KARTOGRAFIA / MAPA KOLEKTIBOA

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Tresna hau baliabide oso indartsua da lurraldea modu kolektiboan birdefinitzeko, edozein delarik lurraldearen alderdi edo elementua (guk, zehazki, alderdi edo elementu jakin batean jarriko dugu arreta, eta horixe jarriko dugu mahaiaren gainean. Hainbat aldaera eta egiteko modu baliak daitezke, beti helburu eta ikuspegi partekatutako batekin: darabilgun espazioa denon artean berrezagutzeko eta berriz marrazteko.

Modu horretan, elkarrekin kartografia ditzakegu, esaterako, lekuan lekuko askotariko herri-ekimenak eta mugimendu sozialak, herri-baratzeak edo baratze komunitarioak, udalerri jakin batean kontzertuak, erakusketak eta antzezlanak programatzen dituzten espazioak, eskualde bateko herri-lurrak eta herri-basoak, ura isurtzeari utzi dioten iturriak, umeentzako parkeak (eta horien erabilera eta egoera), herriko bazter bereziak (gustatzen zaizkigun horiek), espezie jakin batek hartutako lekuak, adinekoek egoteko eta hitz egiteko erabiltzen dituzten plazak, produktu ekologikoak salduko lituzkeen fruta-denda eta saltoki txikiak... la edozein gauzaren mapatze kolektiboa egin daiteke. Hauxe da garrantzitsua: elkarrekin egitea, eta lekuak ber-interpretatzen ditugun modu berean narrazioa egitea, lekuek guretzat eta kolektiboarentzat daukaten balioa partekatzea.

Hainbat metodologia erabil daitezke mapatze kolektiboak egiteko: zuzenean egin daiteke espazio itxi batean, dagoeneko bilduta daukagun informazioa erabilia; bestela, deribaren bidez (10. fitxa) ere egin daiteke. Handitutako mapa bat beharko dugu, mapatutako puntuak identifikatu ahal izateko (zenbaki batekin markatuko ditugu, esaterako). Halaber, detektatutako puntuaren inguruan sortzen diren gaiei buruzko oharak hartzeko euskarriren bat beharko dugu. Amaitzean, mapa beste pertsona batzuekin partekatu nahi badugu, kolore-kodeak edo forma geometrikoak erabil daitezke (esaterako, ezaugarrien arabera mapatutako kokalekuak sailkatzeko edo multzokatzeko). Gainera, emozioen mapak aurkezten dizkigun lan- eta errepresentazio-aukerak ere baliak ditzakegu (23. fitxa).

Leku esanguratsuak mapatzeaz gainera, kartografiatze parte-hartzailearen prozesua bideratzeko berrakelako moduak ere badaude; esaterako, gure lurraldea irudikatzen duen mapa propioak sortzea. Kasu horretan, lekuen tamaina garrantzia emozionalari loturik egongo da, edo udalerriarentzat leku horrek daukan garrantziari loturik. Halaber, argazki-collagearen teknika erabilia (edo irudiak erabilia) mapak edo paisaiak sor daitezke, dagokigun lurraldeko alderdi gakoak azaleratzeko, adibidez.

Orain arte tresna honen oinarritzeko alderdi soilenez aritu gara, baina tresna hau gizarte-diagnostiko sako- na egiteko ere erabil daiteke, lurraldean azaleratzen ari diren arazo larriak eta ezberdintasunak identifi- katzen laguntzeko (eta horien jatorriak zein horiek sortzea ahalbidetzen duten harreman eta jarduerak aztertzeko), hirigintza-jardun okerrak identifikatzeko, herri-lurren erabilera desegokiak atzemateko, etab. Izan ere, kartografiatze parte-hartzailea sarri erabili izan da Latinoamerikako zein munduko beste toki batzuetako komunitate indigenekin egindako gizarte-interbentzioetan, diagnostikoetan eta ikerke- tan; adibidez, taldearen narrazioak tokian nagusitutako narrazio hegemonikoarekin erkatzeko.

Gure proposamena inspiratzeko edo gure mapatze kolektiboa antolatzen laguntzeko material interes- garri asko dago, adibidez, 'Ikonoklasisten mapatze kolektiborako gida'⁴ eta 'Nola egin mapatze kolektibo bat' izeneko materiala, Herri Ekimenen Mintegiarena⁵. Material horietan jasotzen denez, «lurraldearekin dagoen harremana ikusgarri egiten duen narrazio edo kontakizun kolektiboa eraikitze prozedura edo

4] http://geoactivismo.org/wp-content/uploads/2015/11/Manual_de_mapeo_2013.pdf

5] <http://laaventuradeaprender.educalab.es/documents/10184/67475/Como-hacer-un-mapeo-colectivo>

jarduera bat da mapatzea. “Harremanaz” ari gara bestelako jakintza-formak ekoizteaz aritzeko; alegia, lurralderako sarbideaz ari gara, eta, funtsean, gure inguruari buruzko narrazio menderatzaileei desafiataz. Mapa oro da errepresentazio ideologiko bat, eta, mapatze baten bidez, inguratzen gaituenari buruzko ikuskera kritikoak sortzen dira.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Kartografiatze parte-hartzailea tresna ezin hobea da lurralde jakin bateko informazioa jasotzeko eta diagnostikoak egiteko. Udalerrri edo lurralde bateko errealtatera hurbildu nahi dugunean erabil dezakegu, bai eta tokian tokiko jakintza partekatzeko eta sozializatzeko ere.
- ▶ Gainera, ondo planifikatu bada, tresna erabilgarria da interbentzio-aukerak, egin litezkeen proposamenak, egin behar liratekeen hobekuntzak, martxan jar daitezkeen politika publikoak eta bestelakoak zirriborratzen hasteko.
- ▶ Ondarea interpretatzeko ibilbideetan partaidetzaren bidez diseinatzeko aukera da teknika honen potentziala. Interes-guneak (edo ibilbideko geltokiak) taldean hauta daitezke, eta, horrela, komunitate osoak parte hartzen du interpretazio-planean. Halaber, bestelako ibilbide didaktikoak, turistikoak, gastronomikoak, historikoak... diseinatzeko erabil daiteke.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Bertsiorik soilenetan nahikoa da mapatu nahi den tokiko mapa bat izatea, bertan identifikatu ahal izateko ezaugarri jakinak dituzten lekuak. Oso erabilgarria da maparen bertsio handitu bat izatea, denek argi ikusi ahal izateko zein diren markatutako puntuak.
- ▶ Gure mapa propioa sortzeko asmoa badugu, horretarako beharrezko materiala beharko dugu: kartulinak edo paper jarraitua, errotuladoreak edo margoak... Collage teknika erabili nahi badugu, argazkiak eta kola.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

Teknika honetarako behar dugun denbora ezarritako helburuaren eta baliatuko dugun dinamika motaren arabera izango da. Mapatze kolektiboko ariketa errazentarako, nahikoa dira 60-90 minutu. Iraupe-na luzatzen joango da (hainbat saio egin daitezke) mapatu edo kartografiatu nahi dugun errealtatea konplexuagoa denean, pasieran edo ibilbideak egiten atera behar dugunean lekuak identifikatzeko, edota mapatutako toki bakoitza aletu eta sakonki aztertu behar denean (esaterako, kartografiatzen ari garen ekimenaren arduradunei elkarrizketak eginez).

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

Edozein izanik baliatuko dugun kartografiatze- edo mapatze-motari buruz hartutako erabakia, oso garrantzitsua da zorrotzak izatea eta parte-hartzaileek eskura daukaten informazio guztia biltzea eta partekatzea, mapatutako ekimen edo toki guztiak aztertzea eta, hala badagokio, lurraldearen analisisan, egituran eta harremanetan sakontzea.

Mapatzea edo kartografiatzea argitaratuko badugu, zehatzak izan behar dugu lanean; izan ere, ekimenak edo tokiak biltzen baditugu, gaizki-ulertuak sor litezke esperientzia batzuk mapan jasota baldin badaude eta beste batzuk ez.

Batzuetan, kartografiatze parte-hartzaile bateko ariketa batek ezadostasunak edo eztabaida sutsuak eragin ditzake; azken finean, mapan lurraldeari buruzko ikuspegi bat ari gara jasotzen, eta ikuspegia, sarritan, ez da partekatua edo ez da homogenea. Gisa horretako eztabaidak sor ditzaketen gaiak lantzen direnean, bitartekari-lanak egiten dituen pertsonak prest egon behar du eztabaida horiek modu eraikitzailean bideratzeko eta dagokion gaiaren analisisan sakontzeko erabiltzeko. Berez, eztabaidak sortzea ez da arazoa, aberastasunaren eta aniztasunaren adierazle dira.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Erabilgarria izan bada elkar ezagutzeko zein bizi garen eta mugitzen garen ingurua hobeto ezagutzeko.
- ▶ Tresna eraginkorra izan bada gure inguruko ekimenak, espazioak, tokiak, esperientziak edo interes-guneak identifikatzeko.
- ▶ Hartzen gaituen espazioaren inguruko ikuspegi partekatua aberasteko balio izan badigu, eta esku-hartzerako edo ekintzarako ideiak argitzeko bidea eman badigu.
- ▶ Beste pertsona batzuekin partekatzeko moduko materiala sortu badugu, euren herriko edo eskualdeko jakintza handiagoa izan dezaten.
- ▶ Teknika honekin lan egiten hasi baino lehenagoko narrazioaren aldean, errealitateari buruzko narrazio berriak sortu dira, narratiba ezberdinak, aberatsagoak.



▶▶ 06 | KOHERENTZIOMETROA

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Prozesu baten barruan gogoan hartutako hainbat interbentzio- edo ekintza-aukeraren inguruko erabakiak hartzen laguntzeko erabil daiteke teknika hau. Teknikaren ardatza da alternatibak testatzea edo balioztatzea, aurretiaz zehaztu ditugun eta erabakiak hartzeko garrantzitsuak iruditzen zaizkigun oinarritzko irizpide edo printzipio batzuen arabera. Modu horretan, hauxe da ebaluatzen ari garena: proposamenak koherenteak ote diren gure ikuspegi orokorrarekiko edo aztertzen ari garen udalerraren, auzoaren edo lurraldearen indar-ideiekiko. Gure jarduera-eremua tematikoa baldin bada (eta ez lurralde jakin bat), indar-ideiak horiek gaiari aplikatuko zaizkio: hezkuntza-komunitatea, adineko pertsonen arreta, etorkinen harrera, ibaia, abeltzaintza estentsiboa edo gure interes-eremua osorik laburbiltzen duen beste edozein interbentzio-esparru.

Beraz, teknika honen helburua da ziurtatzea gogoan darabiltzagun ekintzak, gure ikuspegiak eta aldaketarako edo hobekuntzarako helburu orokorrak koherenteak direla.

Koherentzia lantzeko matrize bat sortuko dugu. Ardatz horizontalean planaren lau edo bost helburu nagusiak jarriko ditugu, indar-ideiak, egiten dugun orotan mantendu beharreko oinarritzko printzipioak. Auzia hobeto ulertzeko, hona hemen udalerrri bati aplikagarri zaizkion indar-ideien adibide bat:

- ▶ Udalerrri toleranteagoa eta integratzaileagoa nahi dugu, den-denok ondo hartuak senti gaitezen.
- ▶ Udalerrri iraunkorragoa nahi dugu, ingurunea zaintzea lehentasunetako bat izan dadila.
- ▶ Arazoak dituzten pertsonak oztupoetara aurre egiteko laguntza topatuko duten udalerrri bat nahi dugu.
- ▶ Ideia berriak dituzten eta jarduera ekonomiko bat sortu nahi duten pertsonentzako udalerrri erakargarria nahi dugu.

Ardatz bertikalean kokatuko ditugu aurreikusitako interbentzio- edo ekintza-proposamenak, indar-ideiekin gurutzatu ahal izateko.

Matrizearen gelaxketako bakoitzean proposamena eta indar-ideien arteko koherentzia aztertuko dugu. Horretarako, balio positiboak edo negatiboak esleituko dizkiogu gelaxka bakoitzari, proposamena dagokion indar-ideiarekin koherentea denetz aztertuta. Proposamena koherentea bada, hiru balio positibo balia ditzakegu (+1, +2 edo +3), eta, ez bada, hiru balio negatibo (-1, -2 edo -3). 0 balia dezakegu segurtasunik ez daukagun kasuetarako edo proposamenak ez baldin badu inolako loturarik dagokion indar-ideiarekin.

	Udalerrri tolerantea eta integratzailea	Udalerrri iraunkorra	Arazoak dituzten pertsonak artatzen dituen udalerrria	Udalerrri erakargarria ekintzaileentzat
Plazaren orubea beste parke bat sortzea				
Harrera-zentro bat gaitzea immigranteentzat eta baliabiderik ez duten pertsonentzat				
Enpresa agroekologikoen haztegi bat muntatzea				

	Udalerri tolerantea eta integratzailea	Udalerri iraunkorra	Arazoak dituzten pertsonak artatzen dituen udalerria	Udalerri erakargarria ekintzaileentzat
Jai-egitarau anitzagoa eta anbiziotsuagoa sortzea				
Diru-laguntzen programa bat sortzea enpresa berrientzat				

Beraz, proposamen bakoitzak indar-ideiekin lotuta lortutako puntuazioaren arabera ikusi ahal izango dugu merezi ote duen proposamenari eustea, aldaketarako gaitasunik ote duen edo kaltegarria ote den.

Kasu batzuetan, oso garrantzitsua da kontuan hartzea jardura hutsak ez duela koherentea izan behar, hots, jarduteko moduak, antolamenduak edo garapenerako xehetasunek... ere koherenteak izan behar dutela. Horretarako, helburu guztiekiko koherentzia lortzeko kontuan hartu beharreko auziak bildu daitezke gelaxken barruan.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Teknika hau erabilgarria da erabaki kolektiboak hartzeko alternatiba ezberdinak jokoan daudenean.
- ▶ Proposamen jakinetan zehaztapenak egiteko edo proposamenei forma emateko ere baliagarria izan daiteke, proposamenek hainbat helbururekin bat egin behar baldin badute.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Taldea txikia denean, taldean egin daiteke lan hau. Arbela, paper jarraitua eta idazteko errotuladoreak baino ez dira behar.
- ▶ Taldea handia denean, azpi-taldeak sor daitezke. Azpi-taldeen aldi berean lan egingo dute, eta gero partekatuko dute egindakoa. Kasu horretan, zenbat azpi-talde, hainbat paper jarraituzko kopia eta errotuladore beharko ditugu.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

- ▶ Mahaigaineratutako proposamenei eta gaien konplexutasunaren arabera, ordubete edo ordu bete eta erdi arteko tarteak beharko dugu lan honetarako. Matrizea oharrekin, ideiekin eta xehetasunekin osatu nahi badugu, denbora gehiago beharko dugu.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

- ▶ Hainbat alternatibaren edo proposamenei artean erabakitzeko erabilgarri izan daiteke teknika hau, baldin eta horien arteko aldeak ez badira kontu teknikoak soilik.
- ▶ Matrizea balioespenez gain ideia berriekin eta xehetasunekin betetzeko denbora hartzea oso interesgarria izan daiteke, besteak beste, proposamenak aberasteko, beste ikusmolde batzuekin erkatzeko zein dauzkagun ideiak helburu eta ikuspuntu berriekin osatzeko.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Azken emaitzak lagundu egiten badigu hasieran gogoan geneuzkan hainbat proposamenei inguruan erabaki kolektiboak hartzen.
- ▶ Teknika hau baliatzeak laguntzen du: proposamenak aberasten, zehazten, interesgarriak egiten edo abiarazteari buruzko adostasun handiagoa lortzen.

07 IZAN LITEZKEENEN KOADROA

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Prozesuan gogoan hartutako jarduera-ideia eta -proposamenak balioesteko teknika baliagarria da hau. Nolabait, bozketa haztatuaren (29. fitxa) antzeko leerroari jarraitzen dio, eta bestelako teknikekin ere osa daiteke; esaterako, koherentziometroarekin (6. fitxa) eta proposamenak lehenesteko teknikarekin (26. fitxa).

David Diez Sormenerako eta Berrikuntzarako Neuronilla fundazioko⁶ zuzendaria da teknikaren sortzailea. Proposamenak bi irizpideren arabera balioesten dira:

- ▶ **Sorkuntza-potentziala:** ideia berria ote den, erreboluzioa dakarren edo/eta erabilgarria ote den beste ideia batzuk eragiteko (zubi-idea).
- ▶ **Aplikagarritasuna:** proposatutako ideia zein neurritan gauzatu daitekeen..

Teknika hau aplikatzea erraza da. Egoera zehatzei aurre egiteko esku hartzeko proposamen edo ideiak ditugunean, jarraian datorrena bezalako koadro bikoitz batean antolatuko ditugu talde handian:

	Potentzialtasun handia	Potentzialtasun txikia
Aplikagarritasun handia	Idea "izarrak" Aplikatzeko errazak eta potentzial handikoak	Berehalakoak Idea oso aplikagarriak, baina potentzial txikikoak
Aplikagarritasun txikia	Indar handiko ideiak, baina aplikatzen zailak Gerora lantzeko ideiak	Idea aplikatzen oso zailak eta potentzial txikikoak Idea baztertuak

Honako gurutzaketa hauek dira posible:

- ▶ **Potentzial handia eta aplikagarritasun handia.** Ideia bikainak dira, ideia "izarrak", egoera zaileri aurre egiteko proposamen bila gabiltzan prozesuetarako primeran datozenak. Ohikoena izaten da gisa honetako ideia asko ez izatea. Hala ere, ez dugu motibazioa galdu behar; izan ere, koadroaren atal hau hutsik geratzen bada ere, gure lana ez da alferrikoa izango.
- ▶ **Potentzial handia, baina aplikagarritasun txikia.** Ikupegi berritzaileak eskaintzeko edo beste ideia batzuk sorrarazteko potentzial handikoak badira ere, zaila da ideioi martxan jartzea. Ideia hauek oso baliagarriak izan daitezke gure prozesurako. Taldeak garrantzia handia ematen badie sorkuntza-helburuei, oso aberasgarria izan daiteke matrizea bukatutakoan denbora osagarria eskaintzea ideia horiei. Adibidez, ideia horietan sakondu daiteke, gordetako kontzeptuen bila aritzeko eta hortik abiatuta ideia berriak sortzeko. Nolanahi ere den, modu egokian dokumentatuko dira, aurrerago kontsultatu eta landu ahal izateko.
- ▶ **Potentzial txikia, baina aplikagarritasun handia.** Ideia edo proposamen hauek ez dira oso berriak, baina erraz jar daitezke martxan proposatutako ekintzak, eta gure lanaren kalitatea hobetzen dute. Emaizta onak dira gure ideia-ekoizpenean.

6] <https://www.neuronilla.com/>

- ▶ **Potentzial txikia eta aplikagarritasun txikia.** Ideia eta proposamenok ez dakarte une honetan inongo berrikuntzarik, ez diote alderdi berririk eskaintzen gure prozesuari eta, gainera, ez dira praktikan jartzen errazak. Beraz, komenigarriena da une honetan alde batera uztea.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Teknika erabilgarria da erabaki kolektiboak hartzeko hainbat aukera daudenean jokoan eta dagokion testuinguruan ekarpen handiena dakartenak eta egingarrienak direnak aukeratu edo sakondu nahi direnean.
- ▶ Halaber, teknika hau erabilgarria da, zehaztutako arrazoiak direla-eta ideia edo proposamen interesgarrienak hautatu direnean, prozesua antolatzen jarraitu nahi denean. Izan ere, beste lan-saio batzuetarako bideak zabaltzen ditu, matrizearen ezkerreko koadrante bietan bildutako ideia eta proposamenetan sakontzeko.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Arbela eta papelografoa. Errotuladoreak. Eta, noski, baloratu beharreko ideia eta proposamenak.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

- ▶ Gutxi gorabehera ordu eta erdiko edo bi orduko saioak izaten dira; gutxiago iraun dezake, baloratu beharreko proposamen-kopuruaren eta proposamenen konplexutasunaren arabera. Potentzial eta aplikagarritasun handiena duten ideietan sakondu nahi badugu, denbora gehiago beharko dugu.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

- ▶ Tentu handiz jokatu behar da “potentzialtasun txikia eta aplikagarritasun txikia” koadrantean kokatzen diren ideia eta proposamenekin. Izan ere, ideia eta proposamen horien atzean beti daude gure parte-hartzeko prozesuko pertsonak edo pertsona-taldeak, eta ekintza batzuk “alde batera” uzten direla esateko moduak zaindu egin behar dira, inor mindu ez dadin.
- ▶ Interesgarria da argitzea teknika honen helburua dela ikustea parte-hartzeko prozesuan sortu diren ekarpenen artean une jakin batean zeinek duen aplikagarritasunaren eta potentzialtasunaren arteko konbinazio egokiena. Horietan sakonduko dugu, gure helburuen operatibitatea eta gure taldeari eskatzen dizkiogun denbora eta ahalegina aintzat hartuta.
- ▶ Matrizea betetzeko, taldeko hausnarketaren ostean ados jartzea onena.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Matrizea gutxi-asko erraz bete bada, nahiz eta aukerak balioestean hasierako eztabaida logikoak gertatu diren.
- ▶ Matrizea egitean ideia eta proposamen berriak sortu badira, eta horiek hasieran bildutakoak garatzen badituzte.
- ▶ Bukatzean taldeari galdetuta erabilitako teknikari erabilgarri iritzi badiote ezarritako helburuetarako, eta horretan bat badatoz taldekideak.

ZERTAN DATZA?

Edozein egoeratan dauden alderdi positibo eta negatiboak hausnartzea, azalaraztea eta esplizitatzea ahalbidetzen duen teknika da. AMIA analisiaren bidez, pertsona-talde batek honako hauek aztertzen ditu:

- ▶ **Ahuleziak:** analizatutakoak dituen berezko alderdi negatiboak.
- ▶ **Sendotasunak:** analizatutakoak dituen berezko alderdi positiboak.
- ▶ **Mehatxuak:** analizatutakoan eragin negatiboa izan dezaketen kanpoko alderdiak.
- ▶ **Aukerak:** analizatutakoan eragin positiboa izan dezaketen kanpoko alderdiak.

Analisi-mota ondo ezaguna da; izan ere, eragiten dituen balorazioak oso erabilgarriak dira lanean hasteko: AMIA batean lortutako datuek gidatu egiten gaituzte, sendotasunak zainduz eta babestuz jokatzeko, ahulegiak murriztuz, txikituz edo baztertuz, eta etorkizunari begira aukerak baliatuz eta mehatxuak saihestuz edo desaktibatuz lanez.

Hau da teknika hori aplikatzeko modu bat:

Arbel edo papelografo batean lau laukitxo dituen taula bat marrazten da. Bakoitza aipatutako kategorია baterako erabiliko da. Ondoren, diagnosiaren gaia/xedea azaltzen da, argi eta zehatz, eta, abiapuntu horrekin, ideia-jario bat hasten da. Dinamizatzailerak jarria anima dezake zenbait gako proposatuta, betiere modu generikoan. Adostasuna erdiesten duten ekarpenak dagokien laukitxoan idazten dira.

	Ahulguneak	Indarguneak
Barneko faktoreak	AHULEZIAK	SENDOTASUNAK
Kanpoko faktoreak	MEHATXUAK	AUKERAK

Garrantzitsua da ekarpenak berrikustea lan egiten den heinean, ezadostasun handiak sortzen ez badira; ezadostasun handiak atzematen badira, ondoko erronda batean berrikusiko dira, taldean eginiko ekarpenen inguruko adostasuna dagoela bermatzeko. Eztabaida txiki baten ondoren adostasun handia lortzen ez duten proposamenak baztertu egin beharko dira. Halaber, birformulatu egin daitezke, azkenean jasotzen den ideiak hobeto isla dezan talde osoaren ikuspegia.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Gai ezagun edo lurralde zehatz bati buruzko analisi diagnostiko bat egiteko eta informazio baliotsua lortzeko, etorkizuneko estrategiak bideratze aldera.
- ▶ Teknika klasikoenetako bat da prozesu baten hasieran, diagnosi-fasean.
- ▶ Halaber, plangintza-prozesu bateko beste une batzuetan erabil daiteke, baita programen jarraipen-eta ebaluazio-faseetan ere.
- ▶ Halaber, AMIA bat sor daiteke bestelako diagnosi-tresnak erabili diren saioetako azken emaitza eta laburpen gisa.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Arbela edo papelografoa.
- ▶ Errotuladoreak.
- ▶ Ideia-jarioa txartelen bidez egiten bada, txartelak eurak eta karrozero-zinta edo *blu tack*-a eraman beharko da, itsasteko.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

Aztartzen den gaiaren konplexutasunaren arabera, baina, oro har, AMIA matrizea bizpahiru orduko saio batean egin daiteke.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

Talde heterogeneoetan adostasunak sortzeko balio handiko tresna da.

Adibide bat izan daiteke Nafarroako Gobernuaren Landa Garapenerako Plan Estrategiko Nazionalaren (2007-2013) esparruan eginiko AMIA analisia⁷

Teknika honek aldagai bat onartzen du, ekintzarantz ibiltzeko, proposamenen faserantz, taulan bitarteko zutabeak txertatuta, ahulguneak nola landu eta indarguneetan nola bermatu jasotzeko. Honen antzeko zerbait da:

- ▶ **Ahultasunak:** nola zuzendu.
- ▶ **Mehatxuak:** nola egin aurre.
- ▶ **Sendotasunak:** nola mantendu.
- ▶ **Aukerak:** nola baliatu

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Matrizearen laukitxo bakoitzeko sarrera-kopurua handia bada.
- ▶ Lan egin ahala sortutako ezberdintasunak eztabaidaren bidez konpondu badira, eta amaieran konpontzeke geratutako gaiak gutxi badira.

⁷ http://www.navarra.es/NR/rdonlyres/9606A7FF-4D4E-45B2-B4E4-5882FE7A46E2/145195/3_2_1_Analisis...



09 | DELPHI METODOA

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Hainbat egoeratan (orain dela zenbait hamarkada) sarri erabilitako teknika da, eta adostasunak lortzeko eta etorkizuna aurreikusteko balio du. Oro har, ez da aurrez aurre gauzatzen, ezpada urrutitik, nahiz eta tresnak aldaketak onar ditzakeen eta bizi dugun prozesuaren beharrezan araberako egokitzapenak egin daitezkeen.

Asmoa da gai jakin baten inguruko aditu-talde bat hautatzea (8 eta 12 pertsona arteko kopurua oso egokia izan daiteke era honetako prozesuetan, nahiz eta gehiago izan daitezkeen, gaiaren eta erabilgarri dauden baliabideen arabera) eta arazo jakin baten inguruko iritzia eta ikuspegia eskatzea. Pertsona adituez hitz egiten dugunean, prestakuntza edo esperientzia akademiko edo tekniko duen jendeaz ez ezik, esparrua ondo ezagutzen duen jendeaz ere hitz egiten dugu, edo sektore jakin bateko arazoak ezagutzen dituztenez, edo hizpide dugun gaiaren azkenaldiko historia ezagutzen dutenez.

Teknikaren garapena honako pausu hauen arabera antolatu daiteke:

- ▶ **1/ Pertsona adituak hautatzea:** laguntza eskatuko diegu, oro har ahalik eta era onenean ordezkari ditzaten lantzen ari garen gaiarekin lotutako ezagutza, diskurtso eta jakintzak.
- ▶ **2/ Laguntza eskatzea** pertsona horiei, argi transmitituta zertan datzan prozesua, nola garatuko den eta zer eskatuko diegun zehazki, arreta berezia jarri epeetan eta denbora-tarteetan (funtsezkoak dira tresnak ondo funtzionatzea nahi badugu).
- ▶ **3/ Lehenengo galdetegi prestatzea eta bidaltzea** hautatutako pertsonari. Horren bidez, lantzen ari garen gaiaren inguruko ikuspegiak, pertzepzioak edo etorkizuneko proiektzioak biltzen saiatuko gara.
- ▶ **4/ Erantzunak jasotzea eta sintesi-dokumentu bat sortzea**, non bildutako informazio guztia egoki antolatzen baita.
- ▶ **5/ Bigarren galdetegi bat sortzea.** Jasotako informazioa oinarri hartuta prestatuko da, galderak zehaztu eta ñabarduraz josiko dira, gaiaren sakontasunaren analisian eta/edo etorkizuneko proposamen onenen planteatutako analisian sakontzeko.
- ▶ **6/ Bigarren galdetegi hau adituei bidaltzea**, 4. puntuaren eginiko laburpen-agiriarekin batera.
- ▶ **7/ Bigarren erantzun-erronda jasotzea eta bigarren laburpen-agiri bat egitea**, non argi zehazten baitira aztertzen diren gaiaren inguruko ondorio, adostasun eta ezadostasunak.
- ▶ **8/ Bigarren laburpen-agiria adituei bidaltzea** eta, hala badagokio, azken ekarpenak, oharra, iradokizunak, aldaketa-proposamenak, ideia berriak... jasotzea.
- ▶ **9/ Prozesuaren amaierako agiria sortzea.**

Ikusten dugunez, asmoa da lan-agiri bat sortzea, ikuspegi eraikitzailez eta gehitzeko asmoz biltzeko zenbait pertsonaren iritzia eta ikuspegiak, eta, era berean, iritzia horiek gainerako parte-hartzaileen ikuspegi bidez aberasteko aukerari bide emanez (horregatik bigarren lan-erronda).

Teknikaren funtsezko alderdi bat da erantzun eta ekarpenak era anonimoak egiten direla; hau da, parte-hartzaileek ez dakit nork zer esan duen. Horrek askatasun handiagoa errazten du pertsona bakoitzak egiten dituen analisietan, eta afinitate pertsonalen, ideologikoen, geografikoen, sektorialen eta bestelako ondotz sortutako aldeko edo aurkako jarrerak (bigarren errondan) saihesten ditu.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Zeregin erabilgarria da gai jakin baten inguruan lanean hasteko, aurrez aurreko saioekin hasi aurretik; izan ere, aukera ematen digu aintzat hartu beharreko gako nagusiak laburbiltzen dituen oinarritzko materiala eta gaia ezagutzen duten pertsonen ikuspegia ezagutzeko.
- ▶ Gure Dephi-a egoera jakin baten diagnosirako erabil dezakegu (errealitatean funtzionatzen duten interes, faktore eta elementuak hobeto ezagutzeko), edo proposamenen fasean (hausnartzeko eta eztabaidatzeko abiapuntu ezberdinak erabilgarri izateko).

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Hasiera batean urrutitik egiten den teknika bat denez, ez du baliabide material espezifikorik eskatzen.
- ▶ Garrantzitsua da parte hartzen duten pertsonekin argitzea ordaindutako lankidetzaren ala ez: hori erabakitzeke, erabil ditzakegun baliabideak eta eskatuko diegun lan-maila izan beharko ditugu aintzat. Ez bada ordainduko, gutxienez nolabaiteko opariren bat egiteaz hausnartu beharko dugu.
- ▶ Nolanahi ere den, prozesua amaitu ondoren, parte hartu duten pertsonak behar beste akreditatu behar ditugu sortutako agirietan, eta egindako lana aitortu eta eskertu behar diegu.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

Prozesuko erronda bakoitzari eskainitako denbora eta epeak berebizikoak dira teknika honetan. Oso garrantzitsua da parte hartzen duten pertsona batzuek alde aurretik ezarritako epeak ez betetzetik eratorritako atzerapenak saihestea. Funtsezkoa da zorroztasunek adostea galdetegiak aurkezteko epeak eta, jakina, zorroztasun berberarekin betetzea gure laburpen-agiriak taldeari adostutako epeetan aurkezteko.

Egin beharreko lanaren zailtasunak, galdetegien luzerak eta eskatuko dugun analisi-sakontasunak baldintzatu egiten dituzte fase bakoitzari ezarriko dizkiegun epeak. Zenbatespen gisa, uste dugu bi asteko epe bat egokia dela fase bakoitzerako, hala adituek galdetegiak betetzeko nola guk, talde bezala, dagozkigun laburpen-agiriak egiteko. Analisia erlatiboki soila bada, epe horiek zertxobait egokitu genitzake, baina ezin dugu astebetetik beherako eperik eman fase bakoitzerako, inola ere ez.

Guztira, prozesu osoak 8-10 asteko tartea har dezake.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

Adituak eta galdetegietako galderak era egokian hautatzea ezinbestekoa da teknika honetan. Are gehiago, neurri handi batean, lortutako erantzunen kalitatea egiten ditugun galderen kalitatearen araberakoa izango da. Hori dela eta, oso garrantzitsua da behar besteko denbora eta ahalegina baliatzea galdetu nahi duguna astiro pentsatzeko, aintzat hartuta kalitatea kantitatea baino garrantzitsuagoa dela. Aurrekoarekin bat, ez da galdetegi oso luzeak, astunak eta nahasiak prestatzeko pentsatutako tresna: gehiago da muinera joatekoa, egoera jakin bat osatzen eta zehazten duten alderdi gakoak atzemandak.

Beste kasu batzuetan esan dugun bezala, teknika hau aldatu egin daiteke gure prozesuaren beharrezanetara egokitzeko. Garatu ere egin dezakegu, bertsio oso soildu eta murriztu batean, aurrez aurre. Kasu horretan, egindako galderei txartelen bidez erantzungo zaie (begiratu 01. fitxa). Gerora horman eskegiko ditugu, eta, lortutako emaitzetatik abiatuta, beste galdera bat egin.

Era berean, galdera horri txartelen bidez erantzungo zaio, eta behar bezainbeste erronda egingo dira harik eta eztabaidagaiaren azterketan behar adina sakontzen denera arte. Irtenbide hau hautatzen badugu, arretaz zaindu beharko dugu erantzunen anonimotasuna (txartelak nork idatzi dituen identifikatu gabe biltzen eta irakurtzen dira), eta gidariaren zeregina funtsezkoa izango da erronda bakoitzean egin beharreko galdera garrantzitsuak definitzeko.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Ekarpenetan aberats den eta hasiera bateko egoeraren analisia jasotzen dituen azken dokumentua sortzea ahalbidetu badigu. Agiri horretan ondo deskribatuta egongo dira aztergai dugun errealitateaz aritzean aintzat hartu beharreko elementu gakoak.
- ▶ Tresna proposamenak sortzera orientatuago badago, ondo funtzionatu duela esango dugu azken agiri batean esku-hartzeko hainbat aukera bideragarri zerrendatzen badira, horiek baloratu badaitezke eta hartu beharreko irtenbidearen inguruko eztabaida aberasten badute.
- ▶ Pertsona adituen hautuak era egokian jasotzen baditu aztergaiaren inguruan dauden interes, ezagutza, diskurtso eta jakintza guztiak.
- ▶ Lagungarria bada material erabilgarria sortzeko, prozesuan aberastasun, sakontasun eta analisi handiagoz jarraitzeko, eta gaia hobeto ezagutzeko eta ikuspegi zorrotzagoa erabiltzeko.





10 | DERIBA EDO IBILBIDEA

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Teknika honen deriba izendapena frantsesezko *dérive* hitzetik dator, eta a priori helburu zehatzik ez duen ibilaldia aipatzen du: unean uneko estimuluei jarraituta ibiltzeari. Guy Debord filosofo situazionistak erabilitako tresna zen; zehazki, ingurumenaz eta bizimoduez (bereziki, hirikoez) hausnartzeko zerabilen, eta errutinetatik ihes egiten saiatzeko, aldaketari ikuspegi berria aplikatuz eta gure lurraldean bizi ohi ditugun ohiko ekoizpen- eta kontsumo-joeren aurreko erresistentzia egin nahian.

Ideiak potentzial handia du, eta horregatik dakargu hona kontzeptu hori, nahiz eta jatorriko erabileraren aldean desnaturalizatu egin dugun. Ohiko ingurumenari ikuspegi berriz begirarazten digun deia artatzen saiatuko gara, luzaz ezagutzen ditugun lekuetan gaudenean darabiltzagun alde zehatzak iritzi eta kontzeptuak saihestuta.

Proposamena mila modutan gara daiteke, baina elementu nagusia partekatua da: ohiko bilera-lekutik irten eta ibilaldi luzea egin udalerritik, gutxienez 1 eta 1,30 ordu bitartekoa. Hainbat helburu ezar ditzakegu, gure beharrezan araberako. Adibide gisa:

- ▶ Lekutik isilik ibiltzea eta leku batetik bestera goazenean darabilgun begirada ez bezalakoarekin behatzea.
- ▶ Gure ibilbidearekin komentatzea arreta ematen diguten alderdiak, aurretik gure arreta erakarri ez duten gauzak, elementu bitxiak, jende ezberdina, behar bada gure biografiarekin zerikusia duten gaiak, edo lantzen ari garen gaiarekin lotzen gaituztenak...
- ▶ Gure begirada gure prozesuan zehazki aztergai den alderdian kokatzea, gai hori pertsonen egunerokoan ageri den egoera edo eszenarioak identifikatuta.
- ▶ Lan-gaiarekin lotuta sortzen zaizkigun sententzioak, pertzepzioak, ideia edo proposamen guztien nota hartzea.
- ▶ Gaiari buruzko iritzia eskatu ibilaldian aurkitutako pertsonari, gaiaren inguruko begiradak eman ahal dizkigutela iruditzen zaigunean, elkarriketatutako pertsonak hautatzean honako hauen aniztasuna kontuan hartuta: adinak, generoa, lanbidea, interes potentzialak, bizitza-estiloa, etab. Zeregin hau egiten badugu, komenigarria da bi (edo, gehienez, hiru) pertsonako taldeak sortzea.
- ▶ Argazki edo bideoen bidez erregistratzea (mugikorrarekin, adibidez) arreta ematen diguna edo gure helburuetarako interesgarri dena, gerora taldearekin komentatu nahi duguna kontuan hartuta.

Teknika honen bertsio "emankorrako"-etan ibilbidea balia dezakegu gure arreta errealtateko alderdi oso zehatzetan jartzeko, lantzen ari garen prozesuarekin lotuta daudenean: parkeen erabilera publikoa eta parkeen egoera, eremu ezberdinetako bizilagunek bilketa selektiborako edukiontzia erabiltzea, auzoen araberako zarata edo trafikoaren intentsitatea, eserlekuen eta lasai egoteko eremuen kopurua eta erabilera, terrazek eta bestelako erabilera pribatuek bide publikoa okupatzea, haur-jolasetarako edo kirolerako eremuak eta erabilera, kaleen garbitasuna eta kontserbazio-egoera, landa-bideen edo iturrien egoera eta erabilera, etab.

Edozein kasutan, lanaren bigarren zatia lehenengoa bezain garrantzitsua da (gutxienez). Gakoa da batzar-tokira itzultzen garenean, prozesurako edo talderako garrantzitsu izan daitekeen informazio guztia biltzea: sententzioak, iritziak, pertzepzioak, eginiko erregistroak, oharra, argazkiak...

Hasieran hori guztia parteka dezakegu taldean dauden gainerako pertsonekin era gutxi gorabehera kaotikoan (emozioak, sententzioak eta pertzepzio ez hain formalak partekatzeko tartea uzteko); baina, apurka-apurka nolabait sistematizatu beharko dugu informazioa. Halaber, lantzen ari garen gaia ukitzen duten

ideia nagusiak txarteletan idatzi behar dira (txartelak gaika antolatuko ditugu horman, paper jarraituan edo mapa batean).

Saioa amaitzeko, diagnostikora (edo, hala badagokio, etorkizunean esku hartzeak egiteko proposamene-tara) ezinbestean gehitu beharreko ondorio, datu eta ideia gako nagusiak laburbildu eta berreskuratzen saiatu behar dugu.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Normalean diagnosi-fasean erabiltzen dugu, ikusi dugun bezala, nahiz eta batzuetan esku hartzeko proposamenak egin edo mapeatzeko balio dezakeen (kaleak konpontzea edo haur-jolasak, landa-bideak garbitzea eta hobetzea, edukiontzien kokagunea, etab.).

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Taldeko kideei eskatuko diegu zapata erosoak eta aurreikusitako klimatologiarako arropa egokia jantzi dezaten. Ideia, iritzi, irudi edo elkarrizketen berri jaso edo erregistratzeko eskatuko badiegu, koadernoak, grabagailuak edo argazki-kamerak (mugikorrek balio dezakete) eraman beharko dituzte.
- ▶ Ibilaldiaren orientazioaren eta helburuen arabera, udalerriko mapak ere eraman beharko ditugu, ohar edo proposamenak egiten ditugun kokaguneak markatzeko.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

- ▶ Gure helburu espezifikoaren arabera izango da jardueraren iraupena. Oro har, 1 eta 1,30 ordu arteko denbora-tartea kalkula dezakegu ibilaldirako, eta ordubete partekatze-lanetarako.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

- ▶ Mapa emozionala (23) edo mapa kolektiboa (05) bezala, teknika honek informazioa, sentsazioak eta ideiak biltzeko balio du. Halaber, oso baliagarria izan daiteke diagnosi eta hausnarketa aurreko pausu gisa eta, horrenbestez, lagungarri izan dakiguke prozesu baten lehenbiziko faseetan.
- ▶ Taldearentzat lagungarri izan daiteke elkarrenganako konfiantza eta ezagutza sortzeko, eta beharbada lotsa galtzeko (edo lanaren hasiera txarrerako baldintza lezaketan gehiegiko formalitatea edo mesfidantza baztertzeko).
- ▶ Ideia hau talde, udalerrri edo kolektibo gisa ditugun beharrianetara egokitu dezakegu, denbora eta baliabide gehiago emanez, prozesuaren helburuetarako garrantzitsua izan daitekeela ikusten badugu. Ibilbidea jarduera ireki eta kolektibo bihurtu daiteke, eta sortzen diren produktuak instalazio edo erakusketa ireki batera eraman daitezke, herri osoak parte hartzeko bidea emanez, argazkien, begiraden eta abarren bidez.
- ▶ Informazio eskasa dugun gai bat aztertzen ari bagara eta datu zehatzagoetara sartzea garrantzitsua iruditzen bazaigu, saiakera egin dezakegu adituren bat gonbidatzen ibilbidean lagundu gaitzan, gure zalantzak erantzun ditzan eta lantzen ari garen alderdiak hobeto ezagutzen lagundu gaitzan.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Talde bezala, hurbilago sentitzen eta prozesuarekin dugun konpromisoa handitzen lagundu badigu.
- ▶ Eraginkortasunez lagundu badigu errealitatea hobeto edo beste ikuspegi batetik begiratzen.
- ▶ Lekuarekiko pertenezia-sentimendua sortzen eta hasierako egoeran biltzen diren aldagaiak hobeto ezagutzen lagundu badigu.



11 I INDAR-ESPARRUAREN DIAGRAMA

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Diagnosi-teknika “klasiko”-etako bat da. Kurt Lewinek sortu zuen (“ikerketa-ekintza”-ren aitetako bat dela esaten da), eta egungo egoera baten diagnosia egiteko zein helburu batzuk erdiesteko lehenetsi beharreko alderdiak ezartzeko balio dezakegu.

Hasiera bateko premisa argia da: hala une jakin batean bizi den egoera nola lortu nahi dugun helburu bat egoera horri eusten dioten indarren arteko orekaren emaitza dira. Hau da, egoera oro da indar positiboan (aldaketa bultzatzen dute) eta indar negatiboan (aldaketa moteltzen dute) arteko ondorio.

Esate baterako, udalerrri bat sozioekonomikoki dinamizatzeko proiektu bat bultzatu nahi badugu, indar negatiboan artean ager daiteke herritar batzuek aldaketarekiko erresistentzia agertzea, prozesuan kolektibo jakin batzuk inplikatzeko zailtasunak agertzea, etab. Bestalde, indar positiboan artean leudeke, besteak beste, gizarte-kolektibo garrantzitsu bat (inplikatzeko eta mobilizatzeko ahalmen handia duena) biltzen duen elkarte bat egotea, edo proiektua aurrera eramateko baliabide ekonomikoak egotea.

Funtzionamendua erraza da. Hasteko, taldeari azaldu behar zaizkio teknika eta helburua: parte hartzen duten pertsona guztien artean identifikatzea gai edo testuinguru zehatz batean eragina duten indar positibo eta negatiboak. Jakina, identifikazio hori gure taldearekin egin beharko dugu, lantzen ari garen interes-gunera begira (esate baterako, ekoizpenaren sektore baten, lurralde baten, gizarte-talde baten eta abarren dinamizazioa). Lehenago esan dugunez, egungo egoera bat edo lortu nahi dugun egoera bat (helmuga bat) diagnostikatzeko proposa dezakegu. Emaitzek bidea emango digute sakondu beharreko faktoreak bereizteko eta, hala badagokio, faktore batzuk lehenesteko.

Gure analisi-egoera proposatu ondoren, parte-hartzaile bakoitzari (bikoteka ere egin daiteke) eskatuko diogu arazo, gai edo helburuan eragina duten indar negatibo eta positiboan zerrenda bat egiteko. Ondoren, gainerakoekin partekatuko dugu, eta talde handian eztabaidatuko dugu, gure faktore positibo eta negatiboan zerrenda adosteko.

Pusu horren ondoren, komeni da faktore bakoitza analizatzea, garrantziaren arabera ordenatzeko (beharrrezkoa bada, bozketa haztatuak bezalako teknikaren bat erabil daiteke: 29. fitxa). Puntuazio korrelatiboak eman daitezke, faktore bakoitzaren eragin-indarraren arabera (1: eragin txikia, negatiboa edo positiboa; 4: eragin handia). Hori guztia fitxa honetan jasotzen dugun taulan jaso dezakegu.

Egungo egoera (edo egoera desiratua)		
	Indar positiboak (dinamizatzaileak)	Indar negatiboak (mugatzaileak)
4		-4
3		-3
2		-2
1		-1

Baremazio hori erabiltzen badugu, aintzat hartu behar dugu egoerak orekara joko duela indar positibo eta negatibo guztien batuketak zerora jotzen duenean; hau da, faktore askori -4 eman badiegu (eragin negatibo handia) eta hori konpentsatzen duten faktore positiboak (+4 markatuta) gutxi badira, ez da

oreka-egoerarik sortuko. Eta, batez ere, tresnak adieraziko digu zein faktoretan egin behar dugun indar egoera iraultzeko.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Gai edo arazo baten konponbidearen alde edo kontra egiten duten faktoreak aurkitu nahi ditugunean, positibo gisa identifikatutako indartu ahal izateko eta/edo negatiboa ezabatu edo murriztu ahal izateko. Baliagarri zaigu, horrenbestez, egoera bateko alderdi positiboak eta negatiboak azaltzeko, erraz azaltzeko aukera izan dezagun. Hori bereziki praktikoa da talde bat tratatuta dagoenean prozesu baten aurrerabidean. Halaber, praktikoa da ez dakigunean nola bideratu aldaketa bat lortu nahi den egoera batera iristeko.
- ▶ Taldea estimulatzeko duzue jar dadin identifikatutako faktoreen lehenetsunaren inguruan.
- ▶ Orobat, arazoaren sustraiez eta irtenbide-aukerez hausnartzeko bidea ematen digu.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Papera eta boligrafoak parte hartzaileentzat.
- ▶ Arbel edo papelografo bat, parte-hartzaileek aipatzen dituzten faktoreak idazteko. Errotuladoreak.
- ▶ Taula bat, taldearen faktore positibo eta negatiboak adostu ondoren, baremazioa/ordenatzea egiteko.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

- ▶ Aztertzen den gaiaren konplexutasunaren arabera, baina, oro har, Indar-esparruaren diagrama bizpahiru orduko saio batean egin daiteke.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

- ▶ Komeni da gerora eragin handiena (puntuazio handiena) duten indarretan sakontzea, bereziki negatiboetan (positiboetan baino gehiago); izan ere, aldaketa blokeatzen duten lehenengoak dira. Eta, gure prozesuarekin bat egiten badu, ekintzak faktore bakoitzaren garrantziaren arabera lehenets ditzakegu.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Emozio/faktore negatiboak eta egoera baten barruan aldatzeko eta esku hartzeko beharrezko indartzen duten gertakizunak identifikatu baditugu.
- ▶ Lan egin ahala sortutako ezberdintasunak eztabaidaren bidez konpondu badira, eta amaieran konpontzeke geratutako gaiak, halakorik badago, gutxi badira.
- ▶ Prozesuetan parte hartzen dutenek jardueraren balorazio positiboa egiten badute eta motibazio handiagoa hartzen badute elkarrekin lan egiteko, ekarpenak egiteko, irtenbide eta proposamen hobeak lortzeko denbora gehiago hartzen eta ahalegin handiagoa egiten badute...



12 | DIANA, BASOA ETA BESTE EBALUAZIO-TEKNIKA BATZUK

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Taldeekin lan egitean erabil ditzakegun zenbait ebaluazio-tresnari buruz hitz egingo dugu hemen. Tresna horiek lagungarri izan daitezke prozesuan (saio batean edo prozesuko saio espezifikoetan) parte hartu duten pertsonen prozesuaz eta prozesua osatu duten elementuez izan duten pertzepzioa ezagutzeko.

Hasi aurretik, garrantzitsua da argitzea zeri buruz ari garen prozesu baten eraginkortasunaz eta efizientziaren hitz egitean: oso antzeko kontzeptuak dira, baina komeni zaigu esanahiak ezagutzera. Eraginkortasunaz hitz egiten dugu hasiera batean ezarritako helburuak zein neurritan bete diren aztertzen dugunean. Bestalde, efizientziaren kontzeptuak zerbait lortzeko erabilitako prozesu, baliabide eta metodoekin du lotura, barne hartuta, esate baterako, erabilitako espazioak, gidarien zeregina, erabilitako teknikak, eginiko aktak, deialdiak egiteko modua, etab.

Oro har, prozesu baten eraginkortasuna ebaluatzeko baliagarri izan ahal zaizkigun datu kuantitatibo batzuk ditugu: parte-hartzaileen kopurua eta sektoreka, lurraldeka, etab. duten banaketa; proposatutako eta onartutako proposamenen kopurua; telematikoki eginiko alegazioen kopurua; etab. Garrantzitsua da informazio hori datu kualitatiboekin osatzea; zehazki, eta adibide bat emateko, proposamen horien garrantziaz edo, hala badagokio, hasiera batean eztabaidara ekarritako zirriborroa hobetzen eta osatzen lagundu duten moduz arduratzen diren datu kualitatiboak. Hasiera bateko zirriborrorik ez dagoen kasuetan, gakoa izango da erakunde sustatzailearentzat eta parte hartu duten pertsona eta erakundeentzat prozesuaren azken emaitzak hasiera bateko aurreikuspenak asetu dituen edo azken emaitza hasierako egoera hobetzeko aurrerapauso garrantzitsutzat hautematen den. Horiek guztiak parte hartzeko prozesuaren eraginkortasunarekin lotutako aldagaiak dira, eta horietako batzuk ebaluatzeko (parte-hartzaileen pertzepzioarekin ere badute lotura), ondoren deskribatzen ditugun teknikak erabil daitezke.


Efizientziaren ebaluazioari dagokionez, funtsezkoa da parte hartzen duten pertsonen iritzia aintzat hartzea, lagungarri izan ahal direlako erabili ditugun metodo eta formak, euren ustez, proposatutako helburuetarako egokiak diren edo ez jakiteko. Gure prozesuaren eta saioak artikulatzeko moduaren arabera, interesatu egingo zaigu alderdi jakin batzuei edo bestetzuei buruz galdetzea: hautatzen dugun edozein teknikan aplika genezakeen itemen hautu bat, besteak beste, honako hauek (adibidez) jaso dezakeena:

- ▶ Hasierako informazioa argia eta nahikoa zen?
- ▶ Bileren deialdiak era egokian egin dira?
- ▶ Hautatutako lan-eremuak eta/edo ordutegiak lagungarri izan dira prozesua errazteko?
- ▶ Pertsona eta erakunde parte-hartzaileak egokiak ziren? Erakunde, sektore, diskurtso edo pertsona garrantzitsu asko falta ziren?
- ▶ Gidariak eta/edo erabilitako teknikak lagungarri izan dira eztabaida hobetzeko, akordioak lortzeko eta emaitza hobek lortzeko?
- ▶ Ikuspuntu, ikuspegi eta iritzi alternatibo ezberdinekin lan egiteko aukera egon da?
- ▶ Saio bakoitzaren aktek ondo islatzen zituzten lortutako eztabaida eta akordioak?
- ▶ Erakunde sustatzaileak behar beste hartu ditu aintzat eginiko proposamenak? Hala zegokionean, ondo argudiatu dira proposamenei ezetza emateko arrazoiak?


Nolanahi ere den, gakoa da arretaz hautatzea parte-hartzaileei galderak egiteko baliatuko ditugun itemak. Halaber, erabaki egin beharko dugu erantzun kuantitatibo hutsa (aldez aurretik diseinatutako eskala bateko puntuazioa; 1etik 5era bitartekoa, adibidez) edo emandako puntuazioaren zergatia ulertzen lagunduko digun informazio osagarria (lan-aretoak txikiagiak ziren eta hotza egiten zuen, adibidez, item horretan, zehazki, 5 puntutik 2 eman izana azaltzeko) ere beharko dugun.

Aldez aurreko lan hori egin ondoren, informazioa lortzeko zer teknika erabili erabakitzeko moduan egongo gara: lan egiten dugun testuinguruaren eta ditugun beharrezkoen arabera izango da. Ondoren deskribatzen ditugunak erabil litezkeenetako batzuk besterik ez dira:

- ▶ **Galdetegi mistoa.** Parte-hartzaile guztiei item bakoitza jasotzen duen galdetegi anonimo bat emango diegu, eta kasuan kasu 1etik (gutxienez) 5era (gehieneko) bitarteko puntuazioa emateko eskatuko diegu. Halaber, horretarako gordetako espazio batean, puntuazio horren zergatia azaltzeko eskatuko diegu.
- ▶ **Ebaluazio-bilera.** Azken lansaiorearen amaieran denbora-tarte jakin bat erabiliko dugu talde handiarekin baloratzeko prozesuaren alderdi guztiak, honako hauek bezalako galderari erantzuten saiatzeko: Ondo funtzionatu du? Zer hobe zitekeen? Zein dira etorkizuneko prozesuetarako aholkuak? Aukera honen abantaila da bidea ematen digula diskurtso landuagoa eraikitzeko eta gure ikuspegia beste pertsonen ikuspegiarekin aberasteko. Zaindu egin behar da (gidari garen heinean) kutsadura-efektua; hots, bertaratuek euren iritzia lider natural izan daitezkeen (edo iritzi-emailearen nolabaiteko lotura dutenen) iritzia arabera moldatzea. Tarte bat gorde behar da pertsona horienak ez bezalako ekarpenetarako. Uste badugu bertaratutako pertsonak lotsatu egin daitezkeela bere iritzia ematean, teknika hau anonimotasuna bermatzen duten beste teknika batzuekin konbinatuko dugu.
- ▶ **Diana.** Diana bat marraztuko dugu paper jarraitu handi batean, eta galdera-gai izango diren itemen arabera zatituko dugu. Pertsona bakoitzari dagokion lekuan gomet bat itsasteko edo gurutze bat marrazteko (1etik 5era bitartean) eskatuko diegu, item bakoitzari ematen zaion puntuazioa adierazita, irudian bezala. Bereziki erabilgarria da taldeak oso handiak direnean, eta jende askok parte hartzen duen jardunaldi edo ekitaldietan. Horrek bestelako teknikak zailduko lituzke.



- ▶ **Ebaluazio-basoa.** Laburbilduz, dianaren antzeko teknika da, baina paper jarraitu batean zuhaitz-sorta bat marraztuko dugu, eta ebaluatu beharreko itemak zuhaitz horien gainean kokatuko ditugu. Kasu hauetan, parte-hartzaileei hiru koloretako (gorria, horia eta berdea, adibidez) gometak emango dizkiegu, fruituak balira bezala, eta item bakoitza zuhaitzeko fruituaren kolorearen arabera (ondo, halamoduz, txarto...) ebaluatzeko eskatuko diegu. Gainera, zuhaitzetan idatzi beharko dituzte, hostoak edo fruituak balira bezala, oharrak, iruzkinak edo hobekuntza-iradokizunak ebaluatutako bloke bakoitzerako.



Halaber, gida honetan deskribatutako hainbat tresna erabil ditzakegu ebaluazio-teknika gisa; zehazki, barometroa (03. fitxa), denbora-lerroa (22. fitxa), Philis 6-6 (25. fitxa) edo bozketa haztatuak (29. fitxa). Bestalde, elkarrizketak egin ditzakegu (formalak edo informalak), on line galdetegiak eta beste hainbat teknika eta tresna, betiere argi baditugu bilatzen ditugun xedeak eta bilatzen ari garen informazio-mota.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZER EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Oso garrantzitsua da gogoratzea prozesu edo proiektu baten amaieran bakarrik ebaluatzen dela. Berezi-ki, hainbat fase eta bilera dituzten prozesu luzeak direnean, teknika hauetako edozein erabil dezakegu, edozein unetan, egoeren bilakabidea nolakoa den jakiteko eta, hala badagokio, akatsak atzemateko eta lanaren gainerako faseak kalitate handiagoz gauzatzeko hobekuntzak inplementatzeko.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Jakina, beharrezko materialak aplikatzen ditugun tekniken arabekoak izango dira. Garrantzitsua da denbora nahikoa ematea ebaluazioaren plangintzan (zer ebaluatu nahi dugu eta nola ebaluatuko dugu?). Halaber, garrantzitsua da lortutako informazioa antolatzea eta sistematizatzea, eta ondorioak eta hobekuntza-iradokizunak eraztea.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

Kasu honetan ere, ezberdin jokatuko dugu, informazioa lortzeko hautatzen ditugun tekniken arabera. Nolanahi ere den, garrantzitsua da behar beste denbora erabiltzea, ebaluazioa saioaren azken minuturako uztea saihestuta (alegia, jendea joaten hasi denean edo ahalik eta lasterrena alde egiteko prest daudenean). Ildo honetatik, garrantzitsua da azpimarratzea, zeregina aurkeztean, zer-nolako garrantzia duen informazio honek taldeari begira eta etorkizunean saioak zein prozesuak kalitate handiagoz egite aldera.

AINZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

Ideia ona da ebaluazio-teknikak diseinatzean sormena aplikatzea, gure beharrianetara egokitzeko. Zehazki, hautatutako ebaluazio-tresnak erabilgarri dugun denboraren arabera egokitu behar dira, eta, batez ere, ebaluazio-prozesuetan esku hartuko duten pertsonekin dugun harremanaren arabera. Horrenbestez, konfiantza handiagoko taldeetan eztabaidatik eta analisi bateratutik hurbilago dauden tresnak baliatu ditzakegu; aldiz, konfiantza hori hain handia ez den kasuetan, gehiagotan joko dugu anonimotasuna errazten duten tekniketara.

Komenigarria da informazioa hainbat teknikaren bidez jasotzea; horrela, tresna bakoitzak analisisan sar ditzakeen zehertasunak saihesten saiatuko gara.

Oso garrantzitsua da, erakunde sustatzaileari edo hirugarrenei ebaluazioaren emaitzak aurkeztean, informazio kuantitatiboa izatea; zehazki, grafiko eta tauletara erraz eraman daitekeena. Halaber, era berean, talde bezala informazio kualitatibo garrantzitsua bildu behar dugu, asmakuntzen eta akatsen inguruko datu aberatsagoak lortzeko, ondo funtzionatu duten eta etorkizuneko prozesuetan hobe litezkeen gaiei buruz, etab.

SUGERENCIAS PARA LA EVALUACIÓN. LAS TÉCNICAS UTILIZADAS HABRÁN FUNCIONADO BIEN SI...

- ▶ Informazio garrantzitsua eta argia erabiltzeko aukera ematen badigute prozesuaren eraginkortasunaz eta efizientziatz, egoki zein gaizki egindakoez, eta, halaber, etorkizunera begira hobekuntza-aholkuak ematen badizkigute.





13 | EZTABAIDATZEKO INKESTAK

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Ikerketa-teknika bat da, eta helburu nagusia da informazioa biltzea herritarren iritzia inguruan, informazio- eta hausnarketa-pausoak eman ondoren.

Eztabaidatzeko inkesten ideia James Fishkinek sortu zuen *Democracy and Deliberation: New Directions for Democratic Reform* (1991) liburuan, eta 1995ean gauzatu zen lehenengoz, Manchester hiriko ikerketa batean; zehazki, herritarrek delinkuentziaren aurkako neurri eraginkorrez zuten iritzia bildu nahi izan zenean. Gure Estatuan 2006an gauzatu zen lehenengo aldiz, Ikerketa Soziologikoen Zentroko (CIS) eta Andaluziako Ikerketa Sozial Aurreratuen Institutuko (IESA) ikerketa-talde baten eskutik, eta Kordoba hiriko gazteen gaueko aisialdia landu zen.

Teknika hau martxan jartzeko, zenbait pauso metodologiko jarraitu behar dira:

- ▶ Iritzi-inkesta bat egitea aztergai den biztanleria ordezkatzeko duen lagin bati. Lehenengo fase honetan, gainera, hurrengo faseetan parte hartzera gonbidatzen dira inkestatu guztiak.
- ▶ Eztabaida-foro bat egitea, bi zati bereizirik. Lehenengo, adituek, ordezkari politikoei eta/edo mugimendu sozialen ordezkariak iritzi-inkestan lantzen den gaiaren inguruko ikuspegia aurkezten dute. Ondoren, parte-hartzaileek aztertutako gaiaren inguruan eztabaidatzen dute.
- ▶ Inkesta errepikatzea parte hartzen duten herritarrekin, foroa amaitzen denean. Hasiera bateko galdetegiko galdera batzuk hautatzen dira.
- ▶ Gainera, Kordoban egindakoa bezalako kasu batzuetan, kontrolerako beste inkesta bat egiten da foroa egin eta hilabete batzuetara.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Ahalbidetu egiten du egin ondoren biltzen diren iritzia fidagarriagoak eta ez hain estereotipatuak izatea, parte hartzaileek informazio gehiago dutelako.
- ▶ Bereziki erabilgarriak dira informazio zehatza behar duten edo herritarrek gutxi ezagutzen dituzten gaiei heltzeko.
- ▶ Ahalbidetu egiten du hasierako inkestaren eta eztabaida-foroaren ondoko inkestaren arteko emaitzak alderatzea; horri esker ezagutu daiteke zer-nolako eragina duen informazio gehiago izateak eta hausnartzeak herritarrek gai baten inguruan duten iritzian eta jarreretan.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Ikusten ari garenez, teknika honek prestakuntza- eta garapen-prozesu zaindua eskatzen du. Estatistika-talde bat izan behar dugu, eztabaida-foroa dinamizatzeko talde batekin eta emaitzak interpretatzeko talde batekin. Espazio eroso bat eta behar besteko lanabesak behar ditugu eztabaida-foroa egiteko. Bestalde, fororako, era horretako bileretako ohiko tresnak behar ditugu: papelografoa, txartel handiak, errotuladoreak, etab.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

- ▶ Kordoban egindako eztabaida-inkestaren adibidean, hasierako iritzi-inkesta 20016ko irailaren erdialdean hasi zen, eta eztabaida-foroa bi egunetan egin zen, urte bereko azaroaren erdialdean.

Hots, gutxi gorabehera bi hilabete dira, beste inkesta egiteko (kasu honetan lau hilabeteren buruan egin zen) eta datuak interpretatzeko erabilitako denbora zenbatu gabe.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

- ▶ Teknika honen abantailak ematen ditu lantzen diren gaiez informazio zehatza behar denean esku hartzeko hainbat aukera aztertzeko. Halaber, benetan erabilgarria da gaiak konplexuak direnean eta herritarrek gutxi ezagutzen dituztenean, edo informazio gutxiko iritziak erabiltzen direnean.
- ▶ Beste alde batetik, desabantailak ditu: proposatutakoaren antzeko prozesu bat abiaraztearen ekonomia- eta denbora-kostuak, eta kalitate-bermeekin egin ahal izatea. Beharrezkoa da hasierako lagina adierazgarria izatea, eztabaida-foroak martxan jartzeko baliabideak izatea, etab.
- ▶ Gainera, aplikazioak zenbait kritika eragin ditu, sortutako eztabaida artifizial xamarra delakoan, ez delako jasotzen bizitza errealean nola adierazten ditugun gure iritziak eta nola entzuten ditugun besteenak. Hain zuzen ere, kritika hauei aurre egiteko, CISEk eta IESAk batera eginiko lanean lau hilabeteren buruan egin zen inkesta berria. Justifikazio-argudioa argia da: Parte hartzaileek jasotako mezuei jarrai diezaiekete epe laburrean, baina euren giro errealerantz itzuli ondoren, eztabaida baino lehenago zituzten preferentziak izatera eraman zituzten giroko mezuak ere agertuko dira.
- ▶ Manchester hiri ingeleseko eztabaida-inkestaren lehenbiziko esperientzia zertan zetzan zehatzago ezagutzeko, lotura honetara jo daiteke⁸.
- ▶ Kordoba hiriko eztabaida-inkestaren lehenbiziko esperientzia zertan zetzan zehatzago ezagutzeko, lotura honetara jo daiteke⁹.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Zorroztasunez aztertzen dira parte hartzeko prozesuaren emaitzak, hasiera bateko eta ondoko inkestako emaitzak erkatzen dira (eta inkesta berriarenak, egin bada), ondorioztatze aldera zer-nolako eragina duten hausnarketek eta iritziak herritarrek gai baten inguruan duten iritzi eta jarreretan.

8] <https://pdfs.semanticscholar.org/9297/8c927ded34be9a2e8aca1fb9cf9ae20ee257.pdf>

9] http://cis-web-balanceada.c.mad.interhost.com/cis/opencms/ES/8_cis/boletines_PI/Boletin4/PDF/encuesta_deliberativa.pdf



14 | ESPAZIO IREKIA

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Teknika honi *Open Space* deritzo ingelesez, eta oinarrian Harrison Owen-en ideia bat dago; zehazki, sormenari, berrikuntzari eta eraikuntza kolektiboari dagokienez hainbat jende biltzen dituzten foro, topaketa eta bileretan ahalik eta etekin handiena ateratzea du helburu. Halere, Owenen beraren hitzak baliatuz, proposamenak hainbat bilakabide izan ditu denbora igaro ahala, eta kolektiboki eraiki da, hainbat eta hainbat egoeratan erabili duten milaka pertsonaren lankidetzari esker. Hemen teknikara hurbilketa soila egingo dugu. Nolanahi ere den, informazio gehiago lor daiteke, esate baterako, Harrison Owenen erabiltzaile-gidaren gaztelerazko itzulpen honetan¹⁰.

Tresna arrakastaz erabil daiteke hainbat kideko taldeetan (100 pertsonako taldeetan zein ehunka biltzen dituztenetan), eta ez du aldez aurreko plangintza-ahalegin handirik eskatzen. Halaber, baliagarri izan daiteke talde txikietarako, nahiz eta gure gomendioa izan (lehenengo aldietan behintzat) gutxienez 20-25 pertsonako taldeetan erabiltzeko, teknikak eskaintzen dizkigun aukerak esperimentatu ahal izateko.

Aurkezpenaren eta ongi etorriaren ondotik, prozesua erraz hasten da: lan-saiorako bildu den talde handiari galdera gako bat edo eztabaida-foko bat proposatuta. Berdin dio (are gehiago, hala bada, hobe) galdera oso zabala izatea eta hainbat modutara erantzun ahal izatea. Honako galdera hauen parekoak erabil daitezke: zer behar du herri honek etorkizunera begira hobetzeko? Norantz bidera genitzake kultura-politikak datozen urteotan?

Ondoren, parte-hartzaileei eskatuko diegu txartelean idazteko bereziki eta pertsonalki interesatzen zaien, topaketaren fokuarekin lotura duen eta gutxienez tarte batean beste pertsona batzuekin hizpide izan nahiko luketeen gai, galdera edo hurbilketa bat. Ez da beharrezkoa denek zerbait idaztea, baina hala egitea sustatzen saiatuko gara. Halaber, ez da beharrezkoa idazten duen pertsonak gaiari buruz asko jakitea: nahikoa da interesa izatea eta bere arreta erakartzea.

Lan honen ondoren, ahots gora irakurriko ditugu txartelak denon artean, eta gaien arabera sailkatzen saiatuko gara. Xedea da proposamenik ez baztertzea baina, ahal den neurrian, elkarrekin lotura hertsia dutenak multzokatzea. Lan honen ondoren, gutxienez 4-5 ikuspegi/ideia/proposamen izango ditugu lanerako. Kopurua askoz handiagoa izan daiteke talde handietarako, egingo ditugun ondoz ondoko lan-saioen kopuruaren arabera.

Zeregin hori egin ondoren, eztabaidatu beharreko proposamenak horman jartzea eta arduradun, espazio fisiko eta bilera-tarte bati esleitzea besterik ez da falta. Proposamenak ikusteko moduan idatzi behar ko dira, pertsona guztiek edonoiz kontsultatu ahal izateko. Saioaren iraupenaren eta parte-hartzaileen kopuruaren arabera, esate baterako, bi lan-erronda egin ditzakegu: lehenengoa lehenengo gai-blokerako eta beste bat bigarrenarako, tartean atsedendia eginda. Gaiak konplexutasunaren, gaiak aztertzeo sakontasunaren eta erabil dezakegun denboraren arabera, 30-60 minutu arteko tarte emango diogu lan-talde bakoitzari.

Teknika honi dagokionez, oso garrantzitsua da pertsona bakoitza aske sentitzea gai/talde batekin edo beste batekin bat egiteko, eta, are gehiago, talde batetik beste batera askatasunez mugitzeko, lehenengoz hautatu duen gaien bere lekua edo espazioa aurkitu ez badu. Gerta liteke talde batzuetan partaidetza handia egotea eta beste batzuetan partaidetza oso txikia izatea. Ez da ezer gertatzen, eta hau azpimarratu nahi da: horrek ez du esan nahi ideia txarra edo ikuspuntu okerra zenik; baina, talde eta une horretan, ez dago ikuspuntu horretan interesa duen pertsona nahikorik.

10] Owen, Harrison (2008). *Open Space Technology: A User's Guide*. Ed. Berret-Koehler.

Taldeek oso jende gutxirekin egin dezakete lan (baita bi izanda ere). Are gehiago, batzuetan eraginkorra goa izan daiteke horrela lan egitea, talde oso handi batean jardutea baino. Garrantzitsua da gidariak hori horrela dela ulerraraztea, inor ez dadin ezeroso sentitu bere lan-taldean jende gutxi dagoelako.

Hasiera batean, teknikak adierazten digu talde bakoitzak erabateko askatasuna izan behar duela bere gaia nahi bezala lantzeko, argibiderik eta jarraibiderik gabe, horrek ahalbidetuko duelako sormen eta inteligentzia kolektiboa jario handiagoarekin sortzea. Arau hori onartzea (bestela, argibide erraz batzuk eman ahal dizkiegu taldeei, euren lana bidera dezaten, hala saioaren hasieran nola hasi ondoren), gure (gidarion) esku geratuko da.

Talde guztiei eskatzen dieguna da paper jarraituan (edo ordenagailuan) idatziz jasotzeko euren eztabaida eta akordioak, gerora partekatzeko. Era berean, taldeek jakin behar dute ez dela beharrezkoa saioa adostutako denbora-tartean amaitzea eta, egokitzen jotzen badute, lehenago amai dezaketela edo, behar bada, hasiera batean proposatutako gaia ez beste gai bat lantzeko aukera dutela.

Lana amaitzeko, talde bakoitzaren eztabaidak parteka daitezke, eta lanean zertan jarraitu erabaki daiteke, honako galdera hauek (edo gure prozesurako bidezkotzat jotzen ditugun bestelakoak) eginda: Zein neurritan jarraitu behar dugu elkarrekin lanean, prozesuaren gainerako zereginak edo prozesua gauzatzeko ekintza-plana hobeto definitzeko? Zein dira agertutako ideia indartsuak? Erabakiekin laguntzeko, beharrezkotzat jotzen badugu, agiri honetan deskribatutako bestelako teknikak ere balia ditzakegu.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Tresna oso erabilgarria izan dakiguke prozesu baten hasieran, aukera guztiak irekita daudenean, parte-hartzaileak hainbat sektore edo abiapuntutatik datozenean eta sormen-dosi handiak behar direnean; izan ere, ez dago alde aurretik ezarritako erantzunik landuko diren arazo edo egoerarako.
- ▶ “Espazio ireki”-ak ematen digun ikuspuntuak bidea ematen du talde txikietan aldi berean hainbat gai edo hurbilketa inguruan eztabaidatzeko; halaber, ahalbidetu egiten du pertsona bakoitzak bere ahalegina eta arreta ematea bere kezka, interes edo gaitasunekin hobeto egokitzen diren alderdiei.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Teknika honetan oso garrantzitsua da leku behar bezain handia izatea askatasunez eta erosotasunez mugitzeko. Aulkiak eta mahaiak oztoporik gabe lekualdatu behar dira. Saioaren hasieran zirkulu kontzentriko bat edo batzuk sortuko dira, mugitzeko eta zirkulutik irteteko zein zirkulura sartzeko behar besteko lekurekin.
- ▶ Halaber, horma edo euskarri bat behar da, agertzen diren gai eta eztabaida-saioak deskribatzen dituzten txartelak arazorik gabe itsasteko.
- ▶ Taldea handia bada, halaber, beste areto edo espazio batzuk eduki behar ditugu hurbil, talde txikiek lana lasai egiteko aukera izan dezaten, elkarri entzutea zailtzen duten interferentziarik edo zaratarik gabe.
- ▶ Behar beste txartelak, paleografo-paper edo paper jarraitu eta errotuladore beharko ditugu talde guztiek era egokian lan egin ahal izateko. Gainera, karrozero-zinta edo blu-tacka behar dira, txartel edo paperak horman edo horretarako pentsatutako euskarrietan itsasteko.
- ▶ Oso komenigarria da behar beste ordenagailu eramangarri izatea, talde bakoitzaren eztabaida edo akordioei buruzko ohar zein aktak hartzeko. Hori lagungarri izango da era horretako erregistroak erabili nahi dituzten lan-taldeentzat, bai eta topaketaren ondoren egin beharreko akta-lana txikitzen edo murrizten ere (egitekotan, abiapuntua saioan sortutako txartel eta paperak izango dira, eta talde bakoitzeko bozeramaileak ahots gora adierazitakoak ere baliatuko dira).

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

Tresna hau gauzatzeko denbora-tartea gaia lantzean bilatzen dugun sakontasunaren arabera izango da, eta, bereziki, ekintza-plan bat egitean lortu nahi dugun helmugaren arabera. Gutxienez 3 orduko

saio bat ia ezinbestekoa da emaitza egokiak lortzeko, eta, oso kasu zehatzetan izan ezik, ez dugu gomendatzen hiru saio baino gehiago erabiltzea (egun ezberdinetan); izan ere, eskatzen duen ahaleginak parte-hartzaileak neka ditzake, eta hori teknika honen jatorrian dagoen izpirituaren aurkakoa da: benetan inplikaturik gauden zerbaiti buruz eztabaidatzeak eragiten duen grina.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

Teknika honek potentzial handia du talde baten sormen eta inteligentzia azalazteko, baita jendeak izan ohi dituen askotariko ezagutza eta jakintzak argira ateratzeko ere.

Ikusi dugunez, oso garrantzitsua da hala espazioa nola parte-hartzaileak zaintzea, batez ere topaketaren lehenengo fasean, non aztertu beharreko gaiak hautatzen eta lehenengo errondarako taldeak sortzen baitira. Orduan eragin daiteke nahaste handixeagoa taldean, era honetako dinamiketan jarduteko ohiturarik ez badago.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Bidea ematen digu, kolektibo gisa, ideia sortzaile eta berritzaileak, eta eztabaidagaiaren inguruko ikuspuntu eta hurbilketa berriak sortzeko.
- ▶ Energia kolektiboaren jarioa dago eta jendea gustura dago lan-talde txikietan eztabaidatzen.
- ▶ Lan ona egiten ari izatearen sentsazio kolektibo bat dago, errealitatea hobetzeko ahalegin kolektiboan parte hartzen egotearena.
- ▶ Parte-hartzaileak elkarrekin lan egiten jarraitzeko gogoekin geratzen dira, prozesuan aurrera egiteko gogoekin, proiektuari denbora eta ahalegina ematen jarraitzeko gogoekin.
- ▶ Lortutako emaitzak erabilgarriak dira murgilduta gauden prozesurako, eta bidea ematen digute aurrera gogoz eta motibazioz jarraitzeko.

▶▶ 15 | ISHIKAWAREN DIAGRAMA

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU


EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Teknikak ahalbidetu egiten du zehatz aztertzea gai jakin baten inguruan lehenengo diagnostiko baten ondoren agertutako arazoak. Zehazki, fenomeno jakin batean eragina duten zergatien inguruko hipotesi zehatzak kolektiboki sortzean datza. Tresna 1953an sortu zuen Kaoru Ishikawa irakasleak (Tokioko Unibertsitatea), lantegi bateko ingeniariaren iritziak sintetizatzeko kalitate-arazoez eztabaidatzean.

Jarduteko modua da taldeari gai edo galdera bat egitea: hain zuzen ere, horren inguruan garatzen da teknika, eta era argian azaltzen da gaia edo galdera. Komenigarria da azpian proposatutako grafikoa paper jarraitu edo arbel batean marraztea, eta taldeak aztertuko duen arazoa/efektua arrainaren buruan kokatzea; esate baterako, “Gure eskualdeak kutsadura-arazoak ditu”.


Pausoz pauso, bazterretako elementuak gehituko dira erdialdeko prozesu batera. Elementu horiek irudikatzen dituzte aztertutako efektuan eragina duten kategorietan multzokatutako zergatiak.



Arazoa/efektua azaldu eta horren inguruko galdera argi egin ondoren (proposatutako galderan, “zein dira lurralde jakin baten kutsaduraren arazoak”), saioa dinamizatzen duen pertsonak zenbat minutu utz ditzake nork bere hausnarketa egiteko, eta ondoren eztabaida ireki.

Prozesu ohikoena da kolektiboki lan egitea proposatutako grafiko-ereduarekin, eta, saioko gidariaren laguntzarekin, taldeari laguntzea atzematen diren kategoriak eta zergatien mailak betetzen. Kategoriak arazoaren edo azpimarratutako efektuaren inguruko hainbat hurbilketa izan daitezke; esate baterako, efektua ingurumen-kutsadura bada, kategorietan kutsadura-motak jar ditzakegu (airea, ura, lurzorua, akustika, argia...). Halaber, kategoria gisa erabil ditzakegu arazo batean esku hartzen duten aktoreak (enpresak, herritarrak, administrazioa, GKEak...) edo efektua ageri diren esparruak (soziala, teknologikoa, legearena, etab.).

Hezurretako bakoitzean arrazoi bat kokatuko dugu, progresiboki edo hierarkikoki: bizkarrezurretik urrun daudenak lehenengoan mende edo lehenengoetatik zintzilik jarri behar dira, eta, oro har, lehenengo mailako arrazoiak edo arrazoi garrantzitsuenak dira.



ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Ahalbidetu egiten digu, diagnosi-fasean, egoera arazotsu batean eragiten duten arrazoiak sistematizatzea eta adostea, eta ikusteko moduan eta zehaztasunez islatzea. Gainera, baliagarri da egoeraren konplexutasun oso azaltzeko, eta gerora bestelako aukerak bilatzea errazten du.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Paper jarraitua, marraztutako arrain-hezur batekin (lerro horizontal luze bat arazo/efektu batekin amaieran), errotuladoreak, karrozero-zinta.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

Arrain-hezur bat edo Ishikawaren diagrama egiteko, ordubeteko edo ordubete eta erdiko saioa beharko genuke, landutako gaiaren konplexutasunaren eta parte-hartzaileen kopuruaren arabera.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

Bidea ematen du aztergai den arazoa zehaztasun handiz aztertzeko eta arazo horien inguruan esku hartzeko dugun ahalmena agerian uzeko. Zergatiak “disekzionatzen” eta sekuentzietan antolatzen direnez (batzuk beste batzuen ondorio izango dira), gerta liteke egiaztatzea zergatien katea batean ezin dugula eskurik hartu, baina beste batzuetan bai. Hain zuzen ere, horrek ahalbidetuko digu gure etorkizuneko ekintzari zein leheneste-lanari lotutako helburuak definitzen jarraitu ahal izatea.


Parte hartzeko prozesuan oraindik ez badugu diagnosirik egin, estrategia ona izan daiteke arazoentzako bat (02. fitxa) egiten hastea eta, atzemandako arazo handietatik abiatuta (2 edo 3), arrain-hezur bat egitea bakoitzarentzat.

Beste aukera da 2 edo 3 "hezur" horietako bat talde txiki batean egitea (dagokion dinamizatzailerekin/gidariarekin) eta, ondoren, baban-banan partekatzea eta, hala badagokio, osatzea.

Teknika honen dinamizazioa gakoa da, eta arduradunak zeregin aktiboa edo ez hain aktiboa izango du, ekarpenetan dagoen dinamismoaren arabera. Eztabaidan sakonera murrizten bada, gaiak iradoki edo galderak proposatu beharko ditu eztabaidatzen ari diren gaiez; horrela, gaiaren azterketaren sakontasuna areagotuko da.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Gure "hezurra" egin ahala sortutako eztabaida ez bada sakabanatzen eta esku-hartzeak baliagarri badira kateetako bakoitzean sakontzeko; halaber, arazoentzako zergatiak hierarkikoki antolatzeko erabilgarri eta argigarri bazaigu.
- ▶ Jardueraren ondoren taldeari ea aztertutako egoera Ishikawaren diagraman ondo islatu den galdetuta, erantzun gehienek baietza ematen badute.
- ▶ Etorkizunean esku hartzeko estrategiak irekitzen bazaizkigu gure parte hartzeko prozesuan.





16 | KASU-AZTERKETA / GONBIDATU BEREZIAK

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Askotan, prozesu batean parte hartzen duten pertsonak sentitzen dute informazio gehiago edo bestelako ikuspuntuak behar dituztela proposamenak egin ahal izateko, bestelako aukerak analizatzeko edo erabaki hobeak hartzeko. Are gehiago, ikuspegi berriak eska ditzakete, errealitatearekin gehiago bat egiten duen eta errealitatera hobeto egokitzen den diagnosi bat egiteko. Prozesuaren eskabide edo beharrezkoen aurre egiteko, aukera hauetako bat har dezakegu, oso erabilgarriak baitira eta hainbat aukera ematen baitituzte:

- ▶ Eztabaidatzen ari garen lan-esparruko adituak gonbidatzea, bereziki alderdi konplexu jakin batzuk argitu eta/edo datu, azterketa eta interpretazioak emateko, batez ere taldeko kideek bestelako bideetatik horietarako sarbidea ez dutenean.
- ▶ Prozesuko saioaren batera gonbidatzea beste leku batzuetan gauzatutako jardunbide egokien arduradun edo sustatzaileak, abian jarritako ekimenak sakon ezagutzen dituzten pertsonak (eta, bide batez, zintzotasunez azaldu ahal dituztenak zertan asmatu duten eta zertan egin duten kale, zein elementu gakoak eta zein ardatzek egin dituzten egingarri ekimen horiek).
- ▶ Halaber, tokian tokiko bisitak egin ditzakegu esperientzia edo ekimen horiek in situ ezagutzeko, martxan jarri diren lurraldean. Hain zuzen ere, horrek bidea emango digu kokagunea edo instalazioak ezagutzeko, agente gakoekin hitz egiteko, ikusten dugunari buruzko galderak egiteko, eta abarrerako.

Kasu horietako edozeinetan oso garrantzitsua da gonbidapena pertsona egokiei egitea eta alde aurretik eurekiko harremanak sortzea, zehatz azaltzeko zergatik eskatzen zaien bertaratzeko, zer-nolako beharrezkoak dituen taldeak edo zein testuingurutan gauzatuko den bisita. Beraz, ulertu egingo dute euren indargune eta ahulgunez ikasteko balio handiko izan daitekeen informazioa eskatzen zaiela, gerora, egoera zein den, esperientzia errepikatzeko edo ez errepikatzeko.

Halaber, oso komenigarria da bisita lankide dugun taldearekin prestatzea, denbora nahikoa emanda alde aurretik ezagutzera zeri buruz hitz egingo dituzten, gehien interesatzen zaizkigun alderdiez hausnartu ahal izateko, bereziki erabilgarri izan ahal zaizkigun galderak prestatzeko, eta abarrerako.

Maiz ageri den bestelako aukera da (askotan prozesuaren abiapuntu izaten da) mahai biribil bat edo jardunaldi bat antolatzea, non zenbait hizlarik (hainbat sektoretako agente sozialek eta eztabaidagaira hurbiltzen gaituzten adituek) ikuspuntu eta ikuspegi ezberdinak azaltzea, beste leku batzuetan gauzatutako jardunbide egokien partaide egitea, etab. Parte hartzeko prozesu bat martxan jartzeko era aski interesgarria da; izan ere, ahalbidetu egiten du parte hartuko duten pertsonak arazora hurbiltzea eta kontzientzia hartzea aintzat hartu beharko diren gakoaren inguruan. Gainera, jardunaldi berori balia dezakegu (hitzaldi edo mahai biribilen ondoren) lehenengo lan-saio bat edo talde sektorialen zein tematikoen tailer bat antolatzeko. Azken batean, osagai hauekin itxura ematen diogu gure parte hartzeko prozesuaren aurkezpen-jardunaldiari.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Gure eskura dagoen tresna da, eta prozesuan zehar beharrezkotzat edo erabilgarritzat jotzen dugun edozein unetan erabili ahalko dugu: lehenengo saio bat antola daiteke hasierako informazioa biltzeko, parte hartzeko prozesua motibatuzko edo martxan jartzeko (ikusitako dugun bezala); halaber, diagnosi-fasea aurreratuta dagoenean antola daiteke, proposamenak prestatzeko edozein unetan edo, are gehiago, erabakiak hartu aurretik eta/edo esku-hartzeak planifikatu aurretik.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Kanpoko pertsonak izateak edo beste esperientzia batzuetarako bisita bat antolatzeak denbora eta ahalegina eskatzen du: pertsona egokiak identifikatu behar dira, gonbidapena egin behar zaie, agendak egokitu behar dira eta lan-saio edo bisitak era egokian prestatu behar dira. Zenbait baliabide ekonomiko ere eskatuko ditu, lekualdatzeak eta ostatuak ordaindu ahal izateko; bestalde, hala badagokio, dagozkion ordainsariak ordaindu beharko dira, gure gonbidatuek egiten duten ahalegina ordaintzeko.
- ▶ Saioa antolatu ondoren, garrantzitsua da lan-espazioa eta beharrezko ikus-entzunezko baliabideak prestatzea, eta deialdia bitarteko egokiekin egitea interesa izan dezaketen ahalik eta pertsona gehienak bertaratu daitezten.
- ▶ Halaber, beharrezkoa izango da taldeko kide batek ekitaldiaren eta gonbidatuen aurkezle-lanak egitea, eztabaida moderatzea eta egingo dizkiegun galderak dinamizatzea.
- ▶ Oso komenigarria da saioaren ohar edo aktak hartzea, ikasitakoa bertaratu ezin izan direnekin partekatzeko eta, halaber, gerora, prozesua aurreratuago dagoenean, interesgarri izan daitezkeen datu edo xehetasunak eskueran izateko. Beste aukera bat da esku-hartzearen bideo bat grabatzea: Interneten eskegi daiteke, edonork izan dezan sarbidea.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

Kasu honetan, saioetan emandako denbora hautatzen dugun aukeraren arabera izango da:

- ▶ Pertsona bakar bat gonbidatuko dugu gure ohiko lan-lekura, 1,30 edo 2 orduko saioa egin dezakegu; esate baterako, 45 bat minutuko aldez aurreko aurkezpena egin daiteke, eta behar beste denbora utzi galderak eta eztabaida egiteko.
- ▶ Kanpoko esperientzia bat bisitatuko badugu, eragin betea izango du zein distantziatara dagoen esperientzia. Bidaia luzexea bada, garrantzitsua izango da gutxienez bi bisita aurreikusten dituzten programak baliatzea, erabilitako denbora eta ahalegina baliatzeko.
- ▶ Mahai biribil edo jardunaldi bat antolatuko badugu, garrantzitsua izango da ordutegien plangintza egitean aintzat hartzea zein izan daitezkeen egokienak interesdunek bertaratzeko aukera izan dezaten: arratsaldez (ohiko lan-orduek kanpo), asteburuetan... Jardunaldia batez ere lan-orduetan bertaratu ahalko direnentzat bideratzen badira, aurkakoa erabakiko da: lan-orduetan programatuko da.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

- ▶ Arrazoi ekonomikoak, agendari lotutakoak edo bestelakoak direla-eta ezinezko bazaigu ezagutu nahi ditugun jardunbide egokien arduradunak gure udalerrira ekartzea, bisiten ordezkari bideokonferentziak (Skype, hangoutak, etab.) erabil ditzakegu, adibidez, betiere tresna teknikoek egoki funtzionatuko dutela bermatzen badugu.
- ▶ Halaber, azterlanak egin ditzakegu Interneten eskura daitezkeen informazioa baliatuta, zehatz aztertuta eskueran dauden datuak. Ondoren, galdera-sorta bat prestatu eta posta elektronikoz bidal dezakegu, ahal duten neurrian erantzun diezaguten.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Gonbidatuek ematen dizkiguten informazioak, ikuspegiak eta azterketek ekarpen garrantzitsua egiten badiote prozesuari, eztabaidan ikuspegi berriak irekitzen badira, proposamen berriak sortzea ahalbidetzen badute eta/edo taldeak prozesuaz eta eztabaidagaiak duen ikuspegia aberasten badute.
- ▶ Prozesuetan parte hartzen dutenek jardueraren balorazio positiboa egiten badute eta motibazio handiagoa hartzen badute elkarrekin lan egiteko, ekarpenak egiteko, irtenbide eta proposamen hobek sortzeko denbora gehiago hartzen eta ahalegin handiagoa egiten badute...



17 | ERRAZTE GRAFIKOA

INFORMAZIOA BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI


PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Tresna honen bidez, kontalari ari den pertsona kontakizun grafiko bat eraikitzen doa, partaidetza-saioak aurrera egin ahala. Helburua da saioan gertatzen ari den eztabaidaren elementu gakoak bisualki jasotzea.

Lana ondo eginez gero, emaitza hitz egindako guztiaren sintesi ona eta erakargarria izango da, eta, horren bidez, erraz transmititu ahal izango zaizkie bertaratuei, eta batez ere, hirugarrenei, foroaren edo lantegiaren ondorioak. Gainera, egokia da aktetan, dibulgazio-dokumentuetan, eta webgunean eta sare sozialetan txertatzeko.



Errazte grafikoko lana ez da erraza eta, normalean, esperientzia duten pertsonak egiten dute. Kontalariak gaitasuna izan behar du hitz egindakoa behar bezala jasotzeko, bai eta, aldi berean, denbora errealean hori grafikoki eta, oro har, panel bakarrean islatzeko gaitasuna ere. Izan ere, errazte grafikoa ez da marrazkiak egitea bakarrik: kontzentrazioa behar da, aldi berean entzun eta idatzi edo marraztu ahal izateko; halaber, ideiak laburtu eta konektore, irudi erraz, ikono eta testu laburren bidez irudikatu behar dira.

Nolanahi ere, norberak bere bertsio eta saiakerak egin ditzake. Agian soilagoak izango dira, edo ez horren erakargarriak, baina gure prozesurako erabilgarriak izan daitezke. Esperientziaren bidez, gure gaitasunak perfektionatuko ditugu, ikonoak eta sinboloak hobeto erabiliz, ideiak hitz gako gutxitan laburbilduz eta, bereziki, saioan landutako gaiak panel bakarrean antolatuz. Azken hori da barneratzeko gaitasun zaile-netako bat.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Errazte grafikoa lagungarria izan daiteke saioaren emaitzak laburbildu eta sintetizatuz, eztabaidaren gakoak nabarmentzeko, gai zehatzen konplexutasuna hobeto ulertzeko eta landutako gai batzuen arteko harremana argitzeko.

- ▶ Gainera, oso baliabide erabilgarria da hurrengo saioetan ikusgai jartzen bada, aurreko saioetan esandakoa gogoratzeko, aurretiko eztabaidetara itzuli edo horiei erreferentzia egiteko eta aurretik adierazitakoaren haria jarraitzeko.
- ▶ Erabilgarria izan daiteke, halaber, prozesuan inplikaturik dauden lan-taldeein parte hartu ez duten aurreko saioetan landutakoa era argian azaltzeko.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Arbel edo panel bat, edo paper jarraitua (ahal dela, zuria) jartzeko horma egokia. Saioa gauzatzen den bitartean eroso lan egiteko modukoa izan behar da.
- ▶ Kolore ezberdinetako errotuladore lodiak: iraunkorrak, paperean lan egiten badugu; erraz ezabatzeak, arbel zuria erabiltzen badugu. Murala arbel beltzean egingo bada, berriz, koloretako klarionak erabiliko dira.
- ▶ Paperean lan egingo badugu, komeni da pegatina zuriak eskura izatea, sor daitezkeen akatsak “zuzendu” ahal izateko; halaber, pastel-koloreko margoak beharko dira, lanaren azken emaitza nabarmentzeko.
- ▶ Arbelean lan egingo badugu, eskura izan behar ditugu zapi eta ezabatzeak. Horrek lana erraztuko digu, batez ere hasiberriak bagara.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

- ▶ Normalean, errazte grafikoak panelean edo muralean jasoko den saioaren iraupen bera du. Taldeari eztabaidaren hasieratik amaierara arte emango diogu laguntza, eduki guztiak behar bezala jaso ahal izateko.

AINZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

- ▶ Esan bezala, errazte grafikoaren emaitza optimoa lortzeko, gaitasunak eta esperientzia behar dira. Foro eta ekitaldi garrantzitsuetan, non emaitza ona ezinbestekoa den, teknikan aditua den pertsona batek egin behar luke lana.
- ▶ Bestelako egoeretan guk geuk egin genezake, adituak ez bagara ere. Izan ere, hori da beharrezko gaitasunak eskuratzeko modurik onena.
- ▶ Garrantzitsua da \neg -baina ez horren erraza- egindako lanaren argazki onak ateratzea. Oso erabilgarriak izan daitezke emaitzak partaideen artean zabaltzeko, bai eta akta, dibulgazio-dokumentu, sare sozial eta abarretan jartzeko ere. Beste aukera bat da prozesuaren zati batzuk bideoz grabatzea.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Prozesuan sortzen diren panelek era egokian islatzen badituzte saioan landutako eztabaidak, ideia nagusiak bisualki erakargarria eta ulerterraza den moduan laburbilduz.
- ▶ Lantegi edo bilerako partaideek panel edo muraleko irudiak erabiltzen badituzte euren taldeei edo hirugarrenei saioan zehar esandako eta eztabaidatutako guztia modu erraz eta zuzenean komunikatzeko.



18 | EZTABAIDA-TALDEAK

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Analisi kualitatiboko teknika bat da eta asko erabiltzen da bai ikerketa sozialean, bai merkatu-azterketan. Teknikaren helburua da eztabaida ireki bat antolatu eta gauzatzea talde txiki batekin (8-10 pertsona inguru). Horren xede nagusia da hausnarketa indibiduala eta taldearen elkarreagina sustatzea, gai zehatz baten gainean; hau da, gai horri buruzko diskurtso soziala ezagutzea. Litekeena da gai berari buruzko bizpahiru eztabaida-talde antolatu behar izatea –partaide ezberdinekin–, gaiari buruzko diskurtso soziala “ase” arte.

Metodologia honek sortutako idatzizko erreferentzia anitz eta interesgarrietako batzuk aipatze aldera, Krueger-en (1991) arabera, «eztabaida-taldea arreta handiz planteatutako elkarrizketa da, intereseko arlo zehatz bati buruzko informazioa lortzeko diseinatutakoa, betiere giro permisibo eta ez direktibo batean [...]. Taldeko kideek elkarrengan eragiten dute, eztabaidan sortzen diren ideia eta iruzkinei erantzuten baitiete». Rubio y Varas-en (1997) arabera, «eztabaida-taldeak errealitate sozialaren ispilu gisa funtzionatzen du. Izan ere, subjektuek euren ideiak azaldu eta euren artean eztabaidatzen dute, eta, horren bidez, euren bizipen, gogoeta, jarrera eta abarrak islatzen dituzte, egoera edo arazo zehatz baten inguruan».

Eztabaida-taldeak, orokorrean, gidari batek gidatzen ditu. Eztabaidagaia aurkeztu egiten du eta sustapenez eta dinamizazioaz arduratzen da. Komeni da saioaren bilakabidea ikus-entzunezko metodoen bidez erregistratzea (aldez aurretik partaideen baimena eskatuta); izan ere, hori da modu bakarra saioaren ostean elkarrizketak osorik transkribatu ahal izateko, ondorengo analisia gauzatze aldera. Era berean, oso baliagarria da laguntzaile bat izatea, partaideei arrera egiteko eta saioan gertatzen dena idatziz jasotzeko; bereziki, saioa grabatu ezin bada.

Eztabaida-taldeekin emaitza onak lortzeko, ezinbestekoa da fase hauek jarraitzea:

- ▶ **Ikerketaren helburua zehaztea:** zer gai edo alderdiri buruzko diskurtso soziala ezagutu nahi dugu? Adibidez, gai hauei buruzko pertzepzio soziala ezagutzeko eztabaida-taldeak antolatu daitezke: gure lurraldeko eremu babestu bati buruz; auzo, udalerrri edo eskualde bateko bizi-kalitateari buruz; uraren kudeaketari buruz; baso-aprobetxamenduei buruz; lan-merkatuko emakumeen egoerari buruz; eta abar.
- ▶ **Laginaren diseinua:** partaideen lagina arreta handiz hautatu behar da, gaiaren inguruan egon daitezkeen jarrera guztiak jasotzen saiatzeko. Zenbat eta partaideen hautaketa fokuratuagoa izan, orduan eta zehatzagoa eta esanguratsuagoa izango da saioan bildutako informazioa. Zentzu horretan, hautaketa ahalik eta fokuratuena egiteko, gomendagarria da hautatuko ditugun pertsonen profiletan egotea nahi dugun aldagaiak adostea. Adibidez, aldagai gisa hauek erabil ditzakegu: sexua (gizonen eta emakumeen arteko banaketa), adina (gazte, heldu eta nagusien ordezkari), okupazioa (jardunean edo erretiratuak), gaiarekiko lotura ekonomikoa (lurraldean interes ekonomikoak dituztenak eta ez dituztenak), ideologia, etab. Beste aukera bat izan daiteke gaiarekin zerikusia duten sektore ezberdinetako partaideak bilatzea.
- ▶ **Eztabaidatzeko gaia antolatzea:** Gidariaren/moderatzaillearen lana ez da oso aktiboa teknika honetan. Asmoa da diskurtsoa taldeak berak sortzea, euren nahi eta kezken arabera. Soilik horrela lortuko dugu tresnaren xede den gaiari buruz dauden irudikatze sozial direlakoetara hurbiltzea (kontzeptuak, ideiak, gizartean dauden balorazioak). Hala ere, horrek ez du esan nahi eztabaidagaia aldez aurretik prestatu behar ez denik. Gaiari buruzko gida txiki bat prestatuko dugu, eta bertan jasoko ditugu antolatzaile gisa partaideen diskurtsoetan agertzea nahi ditugun auziak, agertzen diren edo

ez ikusteko. Hau da, "kontsulta-mapa" bat egingo dugu, bileran zehar gidatzeko. Ez da galdera-gidoi bat izango, baizik eta agertu "beharreko" gaien zerrenda bat. Horren bidez, diskurtsoa "ase" den baloratuko dugu eta, beharrezkoa bada, lantzeko gai gakoak sustatuko ditugu (kontu handiz).

- ▶ **Partaideak erakartzea eta logistika:** lagina diseinatzeko, taldearen bileran egotea nahi dugun profilak diseinatu ditugu (adibidez, parke nazional bati buruzko eztabaida-talde batean, honako hau izan liteke profil bat: "zerbitzuen sektoreko langilea, parke nazionalean interes ekonomikoak dituena —turismoa, kirol-kluba, ibilgailuen alokairua, ostalaritza, garraioa...—"; eta, horrela, 6, 8 edo 10 profil definitu arte). Guk definitutako profilek izen-abizenak izateko eta bilerara adierazitako egunean etortzeko, gomendatzen da "erakartze" lan hori arretaz egiten duten laguntzaileak lortzea. Halaber, gomendagarria da hartzaile horiek (bat edo bi, antolatutako eztabaida-talde bakoitzeko) modu positiboan har ditzatela euren testuinguru sozialean, eta harreman-sare zabala edukitzea.

Hartzaile horiei emango diegu 6-10 profileko gure zerrenda, eta haiek identifikatuko dituzte profil horiek, hurbilago edo urrunago dauden pertsonekin, izen-abizenak dituztenekin; ondoren, gure bilerara etortzeko deialdia egingo diete. Horrela, gure hartzaileek etortzea nahi dugun pertsonekin eratzten duten konplizitateari esker, gure deialdiak arrakasta izateko aukera gehiago izango ditu. Hartzaile horiek ez dira bilerara etorriko: horixe da euren funtzioa, partaideak erakartzea, eta interesgarria litzateke lan horretarako aitortza-motaren bat aurreikustea. Bestalde, logistikaz ere arduratuko gara. Horren harira, interesgarria da bilera egingo den lekuak karga sinboliko neutroa izatea. Adibidez, eztabaida-talde bat antolatu nahi badugu eskualdeko hondakinen kudeaketari buruzko pertzepzio soziala ezagutzeko, ez litzateke egokia izango Mankomunitatearen kudeaketarekin zerikusia duen eraikin batean biltzea. Azkenik, komeni da partaideentzako aitortza-motaren bat aurreikustea, saioa amaitutakoan opari egiteko. Zentzu horretan, aukera ona izan liteke tokiko nekazaritzako elikagairen bat oparitzea.

- ▶ **Garapena:** Bileraren egunean eta orduan, partaide guztiak bertan daudela, moderatzaileak gaia aterako du, taldeak hel diezaion. Komeni da hasierako galdera nahiko irekia izatea, erantzuna alde aurretik ez mugatzeko: asmoa da partaideen interpretazioetara irekita egotea. Adibidez, gaia eskualdeko garapen-plan bat bada, hau izan liteke galdera: "Zer uste duzue eskualde honetako bizimoduari buruz?". Adierazi dugun bezala (betiere taldearen baimenarekin), gomendatzen da saioa grabatu eta transkribatzea, ondoren gure taldeko gainerako kideekin batera diskurtsoaren analisi egokia egin ahal izateko. Mota honetako bilera batek ordu eta erdi iraun ohi du gehienez.
- ▶ **Analisia:** Saioa amaitu ondoren, bilera osoa grabatu dugula, elkarrizketa guztiak transkribatzeko lanari ekingo diogu gure lan-gelaren lasaitasunean. Arretaz analizatuko dugu zer esaten den, zeri buruz hitz egiten den, horrek zer esan nahi duen eta zer zentzu duen testuinguru horretan. Hau da, analisia egiteko diskurtsoak esanahi-unitatetan bananduko ditugu, bertan jasotako diskurtsoak taldekatuz eta sistematizatuz. Eta, azkenik, unitate bakoitzaren interpretazio/analisisa gauzatuko dugu.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Aurrez ezarritako gai baten inguruko irudikapen sozialak ezagutzeko. Oro har, eztabaida-taldeak biztanleriaren pertzepzioa ezagutzeko erabiltzen dira, ondoren biztanleria horrengan esku hartzeko.
- ▶ Gai, egoera edo arazo baten inguruko ezagutza garatzeko eta/edo beste ikerketa batzuk osatzeko.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Aldez aurretik gure ikerketaren helburu/xedea zehaztuko dugu.
- ▶ Kontsulta-mapa antolatuko dugu (taldeari egiteko galdera nagusia eta gai gakoak/gai nagusiak).
- ▶ Lagina definitu eta hartzaileak bilatuko ditugu.
- ▶ Hartzaileei teknika honetan izango duten zereginari buruzko jarraibide argiak emango dizkiegu.
- ▶ Gutxi gorabehera 15 pertsonarentzako lekua duen areto bat bilatuko dugu. Horrek karga sinboliko txikia izango du.
- ▶ Bideo-kamera bat, saioa grabatzeko.

- ▶ Saiorako bi arduradun.
- ▶ Partaide eta hartzaileentzako opariak.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

- ▶ Eztabaida-taldea bera ez da (edo ez litzakete) ordu eta erdi baino gehiago luzatu behar.
- ▶ Antolaketarako (xede zehaztea, lagina diseinatzea, kontsulta-mapa diseinatzea...), garapen-faserako eta emaitzen analisirako bi eta lau hilabete arteko epea beharko da. Aurreikuspen hori bi edo hiru eztabaida-talde egiteko da. Gehiago egin nahi badira, denbora esponentzialki haziko litzateke. Aintzat hartu behar da, halaber, diskurtsoak transkribatu eta aztertze arreta eta denbora behar direla.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

- ▶ Hasierako uneak, laginaren diseinua eta hautaketa, oso garrantzitsuak dira. Hautaketa alde aurretik ezarritako irizpideetan oinarritu behar da, eta horiek barne hartu behar dute profilen (adina, lanbidea, sexua, komunitateko inplikazio-maila) eta landu nahi ditugun gaien inguruko ikuspuntuaren aniztasuna. Adibidez, hartz arreak mendian duen presentziari buruz hitz egiten badugu, komeni zaigu eztabaida-taldean honako profil hauek sartzea: hartzak eraso dituen edo ez dituen artaldeak dituzten nekazariak; espezie babestu horren presentzia arriskutsutzat edo erakargarritzat jotzen duten turismoaren sektoreko pertsonak; espezie horren jokabidea ondo ezagutzen duten tokiko natura-gidariak; hartzaren presentziarekin bizi izan diren eta bizi ez diren ehiztariak, etab.
- ▶ Diskurtsoaren analisia ez da lan erraza, eta, horrenbestez, esperientzia aholkulari ona da. Ez badugu inoiz egin, komeni da taldeko pertsona gehiagok ematea euren ikuspuntuaren berri; bestela, are hobeto, lan hori arloan lan-esperientzia duen pertsonaren bati agin diezaiokegu. Era berean, gomendagarria da bideratzaileak eztabaidatuko diren gaien inguruko ezagutza izatea, saioari etekina ateratzeko (horri paraleloan agertzen diren eta eztabaidatzeko agertoki berriak irekitzen dituzten alderdi berriak baliatzea).
- ▶ Unearen edo lantzeko gaiak sortzen duen gatazkaren arabera, interesgarria da gaiari heltzeko zeharkako moduak proposatzea (adibidez, hartzari buruz hitz egin ordez, abeltzaintzaren etorkizunari buruz hitz egitea, eta, seguruena, hartzaren gaia bakarrik aterako da; halaber, baso-suteen inguruko pertzepzio soziala jaso nahi badugu, gure mendien etorkizunari buruz hitz egiten has gaitzke).
- ▶ Eztabaida-talde asko egin nahi baditugu (bi edo hiru baino gehiago gure ikerketaren xederako), gomendagarria da zenbait fasetan antolatzea. Horrela, lehen fasean, diskurtsoaren heterogeneotasunaren barruan antzekoagoak diren taldeekin has gaitzke, eta beste fase baterako utz ditzakegu eztabaida-talde heterogeneoagoak. Adibidez, eskualde bateko baso- eta natura-inguruneari buruzko eztabaida irekiko badugu, talde batean unibertsitateko eta ikerkuntza- eta prestakuntza-zentroetako jendea bil dezakegu. Beste batean, berriz, basogintzako enpresekin lotutako pertsonak eta gizarte- eta ekonomia-garapeneko eragileak bil ditzakegu. Bigarren fase baterako utziko genuke bi talde horiek saio berean elkartzea, identifikatutako gai gakoaren inguruko eztabaida gurutzatua egiteko.
- ▶ Teknika honen abantaila nagusienetako bat da partaideen barneko alderdietara iristea ahalbidetzen duela: sentimenduak, jarrerak, atzean dautzan ideiak, etab.
- ▶ Teknika honen desabantaila bat izan daiteke partaideen hautaketan alboratzeak gertatzea, taldea osatzeko aplikatzen diren irizpideetan sistematikoki jokatzen saiatu arren. Beste desabantaila bat izan daiteke emaitza amaierako interpretazioa egiten duen/duten pertsona/pertsonen arabera dela. Horregatik da horren garrantzitsua lan hori esperientzia duten pertsonak gauzatzea.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Diseinuaren aurreko fasean arretaz eta kontu handiz hautatutako profil-taldeetako partaideak lortu baditugu.

- ▶ Diskurtsoetako tirabirak alde batera utzita, amaierako giroa ona bada. Adibidez, saioa amaitu ondoren antolatzaileak eta partaideak hurbileko ostalaritza-establezimenduren batean elkartzen badira modu informalean hitz egiten jarraitzeko.
- ▶ Eztabaida-talde guztien azken txostena dokumentu aberatsa bada gizarte-analisiaren ikuspuntutik edo etorkizuneko ikerketetarako, edo gure proiektuko beste lan-lerro batzuetarako lagungarria izan badaiteke.





19 | BALIOESTE-IKERKETA

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Antolaketa eta prozesuetan esku-hartzeko ikuspegi bat da. David Cooperrider-ek eta bere lankideek erabili zuten lehen aldiz Case Western Reserve University-n. Egun, Appreciative Inquiry eredu oso erabilia da enpresa-erakundeetan eta gobernuz kanpoko erakundeetan, bereziki mundu anglosaxoian.

Idea gakoa da berrikuntza eta hobekuntza aurkitu, ulertu eta sustatzea, ditugun alde aurreko indargu-neetatik abiatuta. Hortaz, abiapuntua da ongi funtzionatzen duena aurkitzea, hortik aurrera lan egiteko.

Hemen adierazten duguna ikuspegi horretarako hurbilketa bat besterik ez da. Baina, Interneten ikuspegiari buruzko informazio askoz gehiago aurkitu daiteke.

Lanerako oinarritzko eskema bost fase edo aldiren inguruan antolatzen da:

- ▶ **1] Esku hartzeko edo lantzeko esparrua definitzea.** Asmoa da jarduketaren eremua, esparrua edo testuingurua argitzea. Elkarrekin lan egitearen helburua zehaztean datza. Dokumentu honetan azaltzen ditugun prozesu gehienetan aurretik zehazten da hori; baina, hala ere, lehenengo fase honetan horri hel diezaiokegu espezifikotasun handiagoz.
- ▶ **2] Daukagun onena aurkitzea eta baloratzea.** Honako hauek zehaztasunez identifikatzen datza: indarguneak, eskura ditugun baliabideak, funtzionatzen duena, bide onetik doana; hau da, gure alde dagoen guztia. Lan ona gauzatzen duten erakundeez ari gara, edo eremu erabilgarriez, adibidez; baina, era berean, honako hauei buruz ere mintzo gara: egiteko moduak, proiektu edo ekitaldi arrakastatsuak, gaitasunak edo lidergoa dituzten pertsonak, funtzionatzen duten harremanak, jada existitzen diren sare formal edo informalak...
- ▶ **3] Zer lor genezakeen imajinatzea.** Ilusioa lanean jartzeko eta "amets egiteko" unea da: nora iritsi nahi genuke? Zer egin nahi genezake elkarrekin? Ideia da egin dezakeguna abiapuntutzat hartzea (2. fasean hautemandakoa), eta hortik aukera berriak imajinatzea eta beldurrik gabe edo zabal-zabal etorkizun posible onenak irudikatzea.
- ▶ **4] Lortu nahi duguna elkarrekin diseinatzea.** Errealitatera itzultzen goaz eta egiten duguna –gu garena– planteatzen dugu berriro, egin nahi dugun hori bihurtzeko –benetan izan nahi duguna–.Gure testuinguru espezifikoaren arabera, nahi dugun norabidean aurrera egiteko behar duguna marrazten hastean datza.
- ▶ **5] Izango garena zehaztasunez planifikatzea.** Prozesuko bosgarren pausoa honako hauen planifikazio zehatzean datza: emango ditugun pausoak, helburu eta jarduketak, beharrezko baliabideak, hartuko ditugun konpromisoak, etab.

Ikuspegi honetarako planteatzen dugun lan-eredua lantegi-formatu bat da. Bertan, talde handi batean, prozesuaren fase guztiei helduko diegu elkarrekin (kasu batzuetan, taldea banandu daiteke talde txikia-goetan eta, ondoren, lana partekatuta).

"Balioeste-ikerketa" ikuspegi orokorra da, eta material honetan aurkezten ditugun teknika askorekin osa daiteke. Beste teknika hori prozesuaren fase bakoitzean gehien komeni zaigunaren arabera hautatuko dugu.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Balioeste-ikerketa erabilgarria izan daiteke ikerkuntzara, aukeren planteamendura, ideia eta proiektu berrietara, eta abarretara irekitako prozesuetan. Bereziki, aldaketarako energia eta proposamen ezberdinak gauzatzeko gaitasunak badaude.
- ▶ Erabilgarria da arazoetara modu irudimentsuagoz hurbiltzeko, ideia, ikuspuntu, egiteko modu eta abar berriak behar diren egoeretan.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Ez da material edo baliabide berezirik behar; edozein saio bideratzeko ohikoak direnak besterik ez: arbela, papelografoa edo paper jarraitua, ideiak eta laburpena apuntatzeko.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

- ▶ Teknika bat baino gehiago, prozesu bat da. Hortaz, hainbat saio beharko ditugu, betiere lan egingo dugun talde edo biztanleriaren ezaugarrien arabera. Prozesua talde bakarrarekin egingo bada, bost saio beharko ditugu, gutxienez, lana behar bezala gauzatzeko.
- ▶ Faseetako batzuk saio berean bil daitezke (1. eta 2. faseak, adibidez). Bestalde, 5. faseari lan-saio bat baino gehiago eman beharko diogu, gure helburuak handiak badira.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

Ikuspegi honetako ideia nagusietako bat da egiten dakiguna oinarri hartuta (gure alderdirik onenak oinarri hartuta) egiten dugula lan. Hori dela eta, etorkizuna planifikatzerakoan, modu naturalean agertuko dira helburu eta ekintza egingarriak. Hala ere, 3. faseetik 4. eta 5. faseetara igarotzean, egiaztatu egin beharko dugu gure ikuspegia benetan gauzatu ditzakegun ekintza eta proiektuetan finkatzen ari dela.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Eraikuntza kolektiboko prozesua arina, sortzailea eta berritzailea bada, eta partaideengan elkarrekin lan egin eta eraikitze gogoia pizten badu.
- ▶ Fase bakoitzean lortzen diren emaitzek taldearen aurreikuspeni erantzuten badiete eta partaideak asebetetzen badituzte.
- ▶ 4. eta 5. faseetako emaitzak errealistak badira eta benetan praktikan jarri badaitezke.
- ▶ Planifikazioaren etapa guztiak amaitu ondoren (5 faseak) beharrezkoak diren baliabide eta konpromisoak artikulatzen badira ekintzari ekiteko.



20 | SIMULAZIO-JOKOA

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Tresna honek ikerketaren xede den errealitatearen sinplifikaziotik abiarazita lan egiten du, normalean gauzatzen ditugun rolen banaketaren bidez. Hasteko, abiapuntuko egoera proposatzen da (oro har, errealitatearekin alderatuta, sinplifikatuta) eta, hortik aurrera, simulazio-jarduera bat proposatzen da, partaideei rol ezberdinak esleituta. Beraz, elkarrizketa irekitzen da, banatutako rolak martxan jartzeko eta egoerari ikuspegi berri honetatik heltzeko. Eragina duten faktoreak eta horien balorazioa eztabaidatuko dira, simulatutako elkarrizketa eta eztabaidaren bidez emaitzak lortzen saiatzeko.

Simulazio- edo rol-joko batean hainbat fase bereiz daitezke:

- ▶ **1. fasea: Arazoa eta joko-proposamena aurkeztea.** Horretarako, testu bat eman/irakurri daiteke, laburpen baten edo egoeraren sinplifikazioaren bidez abiapuntuko egoera aurkezteko. Jarraian, jokoaren arauak zehaztu eta partaideen artean (bikoteka edo talde txikietan) bakoitzak hartu beharreko rola deskribatzen duten txartelak banatzen dira. Oso garrantzitsua da azpimarratzea eztabaidan zehar emandako rola ikuspuntua defendatu behar dela, ez norberarena. Minutu batzuk hartuko ditugu esleitutako rola barneratzeko eta argumentu nagusiak identifikatzeko; ondoren, eztabaida irekiko da.
- ▶ **2. fasea: Biltzarra.** Pertsona edo talde txiki bakoitzak bere burua aurkeztuko du lehenbiziko txanda batean. Simulazioa edo dramatizazioa abiarazita, bere jarrera edo hasierako ikuspuntua azalduko die gainerako partaideei eta, ondoren, elkarrizketa irekia abiaraziko da, aztertu beharreko kasuan/egoeran sakontzeko eta jarreraren arteko aukera adostuak bilatzeko.
- ▶ **3. fasea: Partekatzea.** Planteamendu guztiak entzun ondoren, eztabaida agortuta dagoenean, talde guztien artean ados jarri zein ez, saioaren gidariak planteamenduen laburpena egingo du eta, hala badagokio, lortutako adostasunak azalduko ditu. Dinamikarekin amaitzeko azken eztabaida bat egingo da, pertsona/talde bakoitzak, oraingoan norberaren ikuspuntutik, esleitutako rolean nola sentitu den azal dezan.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Gaira edo arazora eta jokoan dauden interesetara lehenbiziko hurbilketa egiteko.
- ▶ Emandako egoera baten zailtasuna murrizteko eta partaideek ongi bideratu dezaketen eskala bat eskaintzeko.
- ▶ Gizarte-eragile ezberdinen arteko interakzioa agerian jartzeko eta dauden interes, kezka edo balio-sistema ezberdinak nabarmentzeko.
- ▶ Gureak ez diren jarrera edo iritzien inguruko enpatia handiagoa sortzeko.
- ▶ Partaide guztiak sistemaren ikuspegia bere osotasunean ulertzea errazteko.
- ▶ Emandako gai bati buruz eztabaida-prozesuak abiarazteko/sartzeko.

Aukera ona izan liteke simulazio-joko bat sortzea gure prozesu instituzional formalagoan barne hartzen ez ditugun beste taldeen (nagusiak, haurrak, gazteak, etab.) partaidetzarako ateak ireki nahi ditugunean. Horrela, parte hartzeko jarduera izateaz gain, jarduera hezigarria ere izango da.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Hasteko, simulazio-jokoaren bidez lortu nahi ditugun helburuak oso argi zehaztu behar ditugu, eta, hortik abiarazita, jardueraren argudio-multzoa eta beharrezkoak diren rolak definituko dira.
- ▶ Rolak definitzeko txartelak: taldearen eta bere oinarrizko interesen deskribapena, eta argudioak eraikitzeko informazio osagarria.
- ▶ Material lagungarri osagarria: prentsa-artikuluak, eztabaidatuko diren jarduketan mapak (halakorik badago), etab.
- ▶ Eztabaida pizteko galdera-sorta bat.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

Ordubete eta bi ordu artean, gaiaren konplexutasunaren, partaideen kopuruaren eta abarren arabera.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

Jokoa bitartekoa da, ez helburua. Oso sistematizatuta egon behar du, partaideak nekatzeko jarduera luzeegia izan ez dadin.

Hasierako faseetan erabakiak hartzen entseatzeko, estrategiak bilatzeko eta jarduera-metodoak diseinatzeko balio du.

Jarduera-mota hau malgutasun handiz aplikatu daiteke. Horren bidez, iritzi bateratuak lor daitezke, bai eta proposamenak ere, eta, horretarako, partaideek ez dute zertan prestakuntza berezitua izan.

Beste egoera batean horren espontaneoki jaso ezin diren sentrazio, pertzepzio eta joera asko azaleratzea ahalbidetzen du.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Eztabaida simulatuak jokoa ematen badie partaideei, eta elkarrizketa arina bada.
- ▶ Partaideek benetan barneratzen badute esleitutako rola.
- ▶ Azalerratzen diren argumentu eta jarrerak planteatutako egoera edo gaiari buruz eginiko analisiaren parte badira.
- ▶ Simulazio-jokoari esker, gurekin zerikusia ez duten gizarte-eragileen jarrera, iritzi eta jakintzei buruzko mito, aurreiritzi edo uste faltsuak eraisten baditugu.
- ▶ Partaideek dinamika amaitu ondoren pozik daudela adierazten badute, ideien trukeagatik, lortutako akordioengatik edo horiek lortzeko zailtasunagatik; baina, betiere eztabaidaren garrantzia argi ikusten badute.



21 | HAMAR GALDERAK

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Proiektuak planifikatzeko ohiko metodo bat birformulatu nahi dugu; hain zuzen ere, “9 galderak” izeneko metodoa. Horren helburua da ahalik eta proposamen zehatzenak egitea, ardatz-galdera batzuei erantzuten saiatzeko.

Parte hartzeko prozesuen testuinguruan, metodo hau erabil daiteke taldeak jarduketa-proposamen bat edo batzuk sortzea erabakitzen duenean, eta horiek ongi zehaztu nahi dituzenean. Horrela, ideia bakoitzaren gertuagoko ikuspuntua lortuko litzateke, eta beste foro batzuek, prozesua deitu duen administrazioak edo hirugarrenek behar bezala baloratu ahalko lituzkete.

Gure proposamenaren helburua da, kolektiboki, galdera-gako hauei erantzuna ematea:

- ▶ **1. ZERGATIK:** xedea da argitzea gure proposamenaren helburua, zerbait egiteko erabakia hartzearen zergatia, oinarrizko zergatia. Normalean hori da erantzungo dugun lehenengo galdera. Hain zuzen ere, galdera hori aurretiko diagnosian erabiltzen ditugun tekniketarik aterako da.
- ▶ **2. ZER:** gure ekintza edo esku-hartzearen sintesia da, egingo dugun hori.
- ▶ **3. ZERTARAKO:** esku-hartzeren helburuak definitzea, gure proposamenarekin lortu nahi dugun hori.
- ▶ **4. NORENTZAT:** esku-hartzea gehienbat zein pertsonari edo sektoreri zuzentzen zaion zehaztea.
- ▶ **5. NON:** jarduketa egingo den lekua edo kokapena.
- ▶ **6. NOIZ:** esku-hartzerako aurreikusitako denboralizazio, egutegi edo kronogramarako hurbilketa.
- ▶ **7. NOREKIN:** gure proposamena aurrera eramateko laguntza eskaintzen diguten pertsona eta/edo erakundeak, bakoitzaren inplikazio- eta/edo erantzukizun-maila ezberdinarekin.
- ▶ **8. ZEREKIN:** proposamena gauzatzeko beharrezko baliabide material eta ekonomikoak.
- ▶ **9. NOLA:** atal honetan deskribatu edo argitu behar genituzke proposamenari heltzeko metodologia edo moduak. Era berean, ezinbestean zaindu beharreko auziak nabarmendu behar dira.
- ▶ **10. ZER, NORK ETA NOLA EBALUATU:** azken atal honetan proposamena gauzatzekotan egin beharko genukeen ebaluazioari buruzko alderdi batzuk gehituko ditugu. Hortaz, honako hauek aipatu ahalko ditugu: ebaluazioaren adierazleak (zer ebaluatu), ebaluazioaren pertsona edo erakunde arduradunak, eta hori egiteko beharrezko bitartekoak.

Oro har, lan hau talde handi batean egiten da, saioko dinamizatzaileak lagunduta. Taldea 12 edo 15 pertsonatik gorakoa bada, talde txikiagoetan bana dezakegu. Talde bakoitzak bere aldetik erantzungo ditu galderak, eta, ondoren, partekatu eta galdera bakoitzaren erantzuna elkarrekin adostuko dute.

Galderei banan-banan erantzuten saiatu arren, eta emaitzaren amaierako bistaratzeak hamar galdera horiek ordenatuta jasoko baditu ere, garrantzitsua da jakitea prozesuan zehar hainbat galderari erantzuten dieten erantzunak ere sortuko direla. Hori dela eta, paper jarraitua edo hainbat paper edo kartulina erabiltzea gomendatzen dugu, 10 item horien inguruko ideiak apuntatzeko, bati edo besteari dagokion unea den ala ez aintzat hartu gabe.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Teknika hau erabilgarria da elkarrekin -zehaztasun handiz- zenbait proposamen, ideia, esku-hartze edo jarduketa planifikatu edo programatzeko.
- ▶ Eraginkorra da beste modu batean modu orokorrean bakarrik planteatuko liratekeen ideia edo proposamen batzuei heltzeko moduak eta irismena argitzeko.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Arbela, papelografoa edo paper jarraitua eta errotuladore egokiak, pertsona edo erakunde bakoitzak gehitutako ideiak apuntatzeko.
- ▶ Talde txikietan lan egiten bada, talde bakoitzak bere aldetik lan egin ahal izateko beharrezko materiala, lana partekatu aurretik.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

- ▶ Teknikaren iraupena aldakorra da, proposamenaren eta horren handitasunaren arabera, bai eta horri dagokionez taldeak lortu ahal izan duen erabaki- edo adostasun-mailaren arabera ere. Iraupenean eragina du, halaber, galdera bakoitzerako lortu nahi dugun erantzunaren xehetasun-maila.
- ▶ Proposamen soiletarako, gutxi gorabehera ordubete beharko dugu ariketa hau egiteko. Proiektua konplexuagoa bada, aldiz, bi orduko saio batean edo zenbait lan-saiotan zehar egin dezakegu.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

- ▶ Tresna hau erabilgarria izan daiteke planifikazio kolektiborako, betiere teknikoki errazak diren proposamenak badira edo taldea osatzen duten partaideen artean jarduketarako beharrezko alderdi teknikoetan trebatuta dauden pertsonak badaude. Hala ez bada, adituen laguntza beharko dugu, gai bakoitzari buruzko erabaki bideragarriak hartzen lagun diezaguten.
- ▶ Tresna erabilgarria da prozesua sustatu duen administrazioari eta/edo hirugarren erakundeei, foroei edo gizarteari bere osotasunean egingo dizkiegun proposamenen inguruko alderdi gako batzuk, ahal den neurrian, zehazteko.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Lanaren emaitza proposamen zehaztu eta bideragarri batean islatzen bada, taldean adostasun-maila handia lortuta hamar galderen erantzunetan.
- ▶ Proposamenen dokumentu argia eta ulergarria sortzen badugu, eta horrek erantzun egiten baitie transmititu nahi diren ideiei buruzko galdera nagusiei. Bestalde, dokumentu hori taldearekin zerikusirik ez duten pertsonak eztabaidatzeko eta/edo bozkatzeko modukoa bada.



22 | DENBORA-LERROA

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI


PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Informazioa biltzeko, diagnostikatzeko eta hausnarketa kolektiboa egiteko teknika bat da. Asmoa da elkarrekin kontakizun edo narratiba bat sortzea, lantzen ari garen gaiaren historia kronologikoki laburtzeko. Horretarako, "denbora-lerroa" marraztuko dugu. Bertan, orainaldia zehazten joan diren gertakizun edo jazoera garrantzitsuak, mugarri nagusiak, kokatuko ditugu.

Denbora-lerroa hamarkadaka, urteka edo hilabeteka egin dezakegu, lantzen ari garen gaiaren arabera (adibidez, ez dira gauza bera herri-baso baten historia eta hiri-hondakinen kudeaketa). Ez da behar-beharrezkoa jazoera garrantzitsuak denboran zehaztasunez identifikatzea; hala ere, nahi izanez gero, datuak Interneten kontsulta ditzakegu, doitasun handiagoz lan egite aldera. Asmoa ez da historia "ofizial" berreraikitzea, baizik eta gaiari buruzko gure ezagutzak eta pertzepzioa partekatzea, datuak osagabeak edo zehaztugabeak badira ere.



Lan egiten dugun taldearen arabera eta lantegiaren eta saioaren helburu zehatzen aurretik ikerketan bat egiteko aukera dagoen ikusita, argazki, marrazki edo dokumentuak gehi diezazkiekegu gure "denbora-lerro" partikularrari. Eta, jakina, horman esekita eta irekita utz dezakegu, etorkizuneko saioetan osatzeko. Beste aukera bat da hirugarrenei dei egitea, gurekin lan egin dezaten.

Hasi aurretik argi utzi behar da hau ez dela egintzen egiazkotasunari edo data baten zehaztasunari buruzko gatazka edo liskarrak abiarazteko jardura bat. Adostu dezakegu, adibidez, ados ez gauden kasuetan baietzapenak beste kolore batean idaztea, edo galdera ikurra erabilia. Gainera, emandako datuak egiaztatzen badira, horiek ezabatzeko aukera izango dugu beti. Ezadostasun horiek (denbora badugu eta gure prozesuan barneratzeko aukera badago) landa-laneko jardura berri bat sor dezakete. Hain zuzen, gertakizunei buruzko informazio gehiago duten pertsona batzuei galdetu diezaiekegu.

Era berean, mugarri edo gertakizun bakoitzari buruzko hausnarketa egin genezake: Ondo atera zen? Esperientzia txarra izan zen? Erabaki zuzena? Zer ikasbide atera dezakegu horretatik? Eta gure txartelean edo gure esaldiaren azpian galdera horien erantzunak apuntatu genitzakeen.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Teknika erabilgarria da emandako egoeraren aurrekariak hobeto ezagutzea ahalbidetuko digun kontakizun bat kolektiboki osatzeko. Horrela, trebatuago egongo gara oraina diagnostikatzeko eta etorkizunerako ekintzak antolatuzeko.
- ▶ Erabilgarria da, halaber, adin eta esperientzia ezberdineko pertsonen egintzei buruzko beren ikuspegia partekatzeko, eta, elkarrekin, narratiba osatuagoa eta anitzagoa eraikitzen joateko, emandako egoera edo arazo baten inguruan.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Arbela, papelografoa edo paper jarraitua eta errotuladore egokiak, pertsona edo erakunde bakoitzak gehitutako gertakizunak eta ideiak apuntatzeko.
- ▶ Denbora-lerroari argazki, marrazki edo dokumentuak gehituko badizkiogu, horiek itsasteko elementuren bat: txintxetak, blu-tack, bi alderdiko zinta...

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

- ▶ Teknikaren iraupena aldakorra da, proposamenaren eta horren handitasunaren arabera, bai eta horri dagokionez taldeak lortu ahal izan duen erabaki- edo adostasun-mailaren arabera ere. Eragina du, halaber, gertakizun garrantzitsu bakoitza "kontatzeko" edo eztabaidatzeko lortu nahi dugun zehaztasun-mailak.
- ▶ Proposamen soiletarako, 45 minututik ordubeterako denbora beharko dugu ariketa hau egiteko. Proiektua konplexuagoa bada, aldiz, bi orduko saio batean edo zenbait lan-saiotan zehar egin dezakegu.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

- ▶ Ideia hau talde, udalerrri edo kolektibo gisa ditugun beharizanetara egoki dezakegu, eta denbora edo baliabide gehiago erabili ahal izango ditugu, prozesuaren helburuetarako garrantzitsua izan daitekeela uste badugu. Kasu batzuetan instalazio edo erakusketa ireki bihurtu daiteke, herri osoak parte har dezan (bakoitzaren memoria, argazkiak, ikuspegiak eta bestelakoak gehituta).
- ▶ Lantzeko gaiari buruz informazio gutxi badugu eta datu zehatzagoak lortzea garrantzitsua bada, aditu bat edo batzuk gonbida genitzake, gure zalantzak argitu eta "denbora-lerroa" sortzen lagun diezaguten.
- ▶ Lanak izaera gehitzaila izan behar du; hau da, ez diogu denbora asko eskaini behar ekitaldi jakin bat "denbora-lerroan" sartu edo ez erabakitzeari. Asmoa da pertsona bakoitzak garrantzitsutzat jotzen duena gehitu ahal izatea. Bigarren fase batean, beharrezkotzat jotzen badugu, lehentasunak markatzeko talde-lan bat egin dezakegu, guztiok batera jasotako gertakizunen artean garrantzitsuenak nabarmentzeko.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Emandako egoera edo arazo bati buruzko ahalik eta kontakizun kolektibo egiazkoena eta osatuena sortzeko lagungarria izan bada.
- ▶ Gure "denbora-lerroa" baliagarria bada egiten ari garen lana eta zer lortu nahi dugun hirugarrenei komunikatzeko.
- ▶ Lurraldearekiko pertenezia-sentimendua eta iraganari buruzko ezagutza handiagoa sortzen lagundu badu.
- ▶ Talde gisa, elkarrengandik hurbilago sentiarazten eta prozesuarekiko gure konpromisoa areagotzen lagundu badigu.



23 | MAPA EMOZIONALA

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Pertzepzioa estimulatzeko askotariko jarduerak erabiltzean datza, in situ esparru geografiko zehatz bat aztertzeke (auzo bat, herri bat, hiri bat, eskualde bat...), partaideengan pizten dituen sentsazio, emozio eta sentimenduen bidez.

Jarduerak askotarikoak izan daitezke (ukimenaren bidezko aurkikuntza, soinuak, ohiz kanpoko bilatzea, inguruan inspiratutako poemak sortzea, lekurik gustukoena eta arrotz zaizkigunak kokatzea, etab.); baina, jakina, aztergaiaren ibilbide batetik abiatu behar dira.

Aurkikuntza-jarduera horien emaitza (testu, marrazki, argazki eta abarren bidez bilduta) "mapa emozionala" izeneko dokumentu nagusi batean jasotzen da. Materialak hartuko duen forma baliabide erabilgarrien arabera izango da. Sortutako dokumentazio guztia jasotzen duen erakusketa edo argitalpen bat izan daiteke, komunikazio-/dibulgazio-ikuspuntu profesionalarekin; bestela, partaideek eginiko euskarri amateuragoak izan daitezke.

Mapa emozionala prozesu gisa ulertu behar dugu: emandako gai bati buruz sentsibilizatzeko jarduerak gisa, eta ez emaitza gisa. Hala ere, tokiko testuinguru zehatzetan, egoeraren (parke batena, auzo batena, ibaiertzena...) eta hobetzeko beharren benetako diagnosi gisa ere planteatu daiteke.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Herritarrek euren inguru hurbilari buruz duten ikuspegira hurbiltzeko, baina euren bizipenen ikuspegitik eta ez hainbeste dituzten ezagutzetatik.
- ▶ Ezkutuan egon daitezkeen sentimenduak, afektuak, loturak agerian jartzeko, eta, horren bidez, komunitate-giroa sortzen laguntzeko.
- ▶ Beste talde batzuen partaidetza gehitzea proposatzen dugunean (nagusiak, haurrak, gazteak, eta abar) edo maila instituzional ofiziala ez den beste esparru batean partaidetza ahalbidetu nahi dugunean, partaidetza soziala plan, araudi edo dokumentuan landutako gaiari buruzko errefortzu eta sentsibilizazio gisa lehenetsiz, partaidetzako hasierako faseetan, diagnostikoan, mapa emozional bat egiteko prozesua martxan jar dezakegu.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Abian jarriko ditugun jardueren arabera, material batzuk edo beste beharko ditugu: begiak estaltzeko bendak, datuak hartzeko txartelak, argazki-kamerak, margoak, errotuladoreak, kartulinak, etab.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?


- ▶ Aintzat hartuta prozesu bati buruz ari garela eta ez horrenbeste saio bati buruz, beharrezkoa izango da gure azken helburuetara eta erakundeen beharrianetara ondoen egokitzen den denboraren plangintza egitea. Orokorrean, gutxienez lau saio beharko dira: pare bat azterketa egiteko eta pare bat partekatzeke eta material-motaren bat osatzeko.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

- ▶ Partaidetza instituzionalagoaren paraleloan mapa emozional bat gauzatzea balio erantsia da parte hartzeko edozein prozesurentzat. Horren bidez, hasiera batean aintzat hartu ez ziren beste talde batzuei gairako eta prozesurako ateak ireki ahal zaizkie. Aukera ona da aktoreak identifikatzeko. Gaiaren alderdi ukiezinerako hurbilketa bat da. Normalean aintzat hartzen ez den dimentsio bati helduta, baina dimentsio hori ezinbestekoa da emandako gai baten inguruan jabetze soziala sustatu nahi badugu.
- ▶ Mapa emozionalaren adibide bat aurki dezakegu Segoviako Udalaren eta Gaztela eta Leongo Juntaren De mi escuela para mi ciudad ingurumen-hezkuntzako programaren barruan¹¹.
- ▶ Prozesua ez da haurrentzat bakarrik: gure hiri, herri, paisaia, natura-baliabide eta abarretarako hurbilketa emozionala ere bada. Adin guztietako pertsonengan gauden konplexutasunetik ezberdina den ikuspuntu bat eragiteko modu bat. Sorkuntza sustatzeko modu bat; izan ere, sorkuntza behar-beharrezkoa da egun bizi ditugun ziurgabetasun-egoerei irtenbideak bilatzeko.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Azterketa afektibo hau egiteko prozesuan inplikaturako pertsonen kopurua iraunkorra bada edo areagotzen bada.
- ▶ Partaideen eta sustatzaileen asetze-maila altua bada.
- ▶ Hirugarrenei zabaltzeko moduko amaierako emaitza lortzen bada.
- ▶ Prozesu honen bitartez jasotako pertzepzioak, modu batean edo bestean, partaidetzaren amaierako emaitzei gehitzen bazaizkie.



11] <http://www.mapama.gob.es/es/ceneam/programas-de-educacion-ambiental/de-mi-escuela-para-mi-ciudad/publicaciones.aspx>



24 | MARKO LOGIKOA

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Marko logikoa berez proiektuak planifikatzeko eta ebaluatzeko metodologia bat da, baina hemen taldekako lanerako ere tresna erabilgarria izan daitekeelako gehitu dugu, planifikazioan zenbait pauso kolektiboki ematen diren testuinguruetan. Marko logikoko matrize batekin lan egiteak modu sistematikoagoan lan egiten lagun diezaguke, bai eta helburu zehatzak, espero diren emaitzak, ebaluazio-adierazleak, etab. definitzeko lana errazten ere. Gainera, hirugarrenei proiektu baten gakoak modu eskematikoan eta soilean (koadro edo matrize bakarrean) aurkezteko modu egokia da, beste pertsona edo talde batzuek planifikazioan aurreikusitako ezinbesteko elementuak zein diren modu argian eta arinean uler dezaten.

Marko Logikoaren Ikuspegia (MLI) 60ko hamarkadako amaieraren eta 70eko hamarkadaren artean AE-Bko Lankidetzaren Agentziarako sortutako tresna bat da, proiektuen planifikazioa hobetzeko. Gaur egun, oraindik ere, oso erabilia da nazioartean, agertoki eta testuinguru ezberdinetan.

Garrantzitsua da **Marko Logikoaren Metodologia** orokorrean eta **Marko Logikoaren Matrizea** bereiztea. Metodologiak arazoaren analisirako prozesu eta etapen multzo oso bat, interes-taldeen analisia, helburuen definizioa eta ezartzeko estrategiaren hautaketa hartzen ditu barne. Horrek guztiak produktu bat osatzen du, eta Marko Logikoaren Matrizean aurkezten da, horrek laburtzen baitu proiektuaren bidez egin nahi dena (eta egiteko modua), bai eta hori ebaluatzeko oinarritzko tresnak ere.

Guri dagozkigun kasuetarako, ikuspegi honen bertsio partikularra proposatuko dugu, kolektiboki egiten ditugun proiektuetara egokituz. Hala ere, metodologian sakondu nahi izanez gero, bibliografia zabalean eta webguneetan dauden erreferentzia ugarietan kontsulta daiteke. Jarraitzeko metodologia 10 pausotan planteatzen dugu. Lehenengo hiruren bidez arazora hurbilduko gara, berezko planifikazio-fasean sartu aurretik. Bestalde, 4.etik 10.era arteko pausoak proiektuaren matrizea eraikitzen bideratuta daude:

- ▶ **1. pausoa _Arazoaren analisia.** Horretarako, adibidez, 02. fitxan (Arazoen zuhaitza) deskribatutako proposamena erabil dezakegu. Horren bidez, abiapuntuko egoera zehazten eta eragiten duten arazoietara modu zehatzagoan hurbil gaitzke.
- ▶ **2. pausoa _Abiapuntuko egoeraren diagnosis.** Hori AMIA (08. fitxa) baten bidez egin dezakegu, adibidez, edo gure testuingurura ongi egokitzen den beste teknika baten bidez.
- ▶ **3. pausoa _Interes-taldeen analisia.** Analisi honen bidez saiatuko gara ulertzen arazoak zer neurritan eragiten dien sektore, eragile edo talde ezberdinei, eta horiek zer neurritan eragiten duten arazo hori. Horri heltzeko, sarrera bikoitzeko matrize soil bat erabil dezakegu, eta, horren bidez, interes-talde edo -sektoreak zerrendatuko ditugu (ilaretan), adibidean ikusten den bezalaxe. Zutabeka, bi galdera erraz erantzun ditugu:

Interes-taldeak/ sektoreak	Arazo edo egoerak zer neurritan eragiten dien	Arazo edo egoeran zer neurritan eragiten duten

- ▶ **4. pausoa _ Helburuak eta espero diren emaitzak definitzea.** Arazoen zuhaitza eta interes-taldean diagnosian eta analisisian lortutako informazioa oinarri hartuta, gure proiektuaren helburu orokorrak eta zehatzak formulatzeko prest egongo gara.
- ▶ **5. pausoa _ Proiektuan gauzatuko diren jarduera edo ekintzen deskribapena.** Helburu zehatz bakoitzerako beharrezkoa izango da ekintza bat edo batzuk planifikatzea. Hala ere, salbuespenez, ekintza bakar batek helburu zehatz bat baino gehiago lortzea ahalbide dezake.
- ▶ **6. pausoa _ Ekintza bakoitza exekutatzeko erakunde, talde edo pertsona arduradunak,** eta horiek egiteko aurreikusitako epeak definitzea (hasiera eta amaiera). Pauso hori oso garrantzitsua da erantzukizunak eta konpromisoak definitzeko, eta, beraz, proiektua porturatzeko, asmo-adierazpen hutsa izan ez dadin.
- ▶ **7. pausoa _ Baldintzatzaile edo arriskuak identifikatzea** (bai barnekoak, bai kanpokoak). Izan ere, horiek baldintza dezakete helburuak lortzea, eta laguntza eman diezagukete gure mugak ezagutzeko; hortaz, espero ditugun emaitzei dagokienez horren optimistak ez izaten ere lagun diezagukete.
- ▶ **8. pausoa _ Espero ditugun emaitzen definizioa (eta, ahal den neurrian, kuantifikazioa)** aurreikusitako ekintza bakoitzerako.
- ▶ **9. pausoa _ Ebaluazio-adierazleak definitzea** eta, proiektua exekutatu ondoren, horiek egiaztatze iturriak zehaztea.
- ▶ **10. pausoa _ Proiektuaren matrizea behin betiko eraikitzea.** Bertan, 4.etik 10.era bitarteko pausoetan deskribatutako puntuak deskribatuko dira.

Helburu orokorrak eta espezifikoak	Aurreikusitako ekintzak	Exekuzioaren arduradunak	Epeak eta denporalizazioa	Kontuan hartzeko arriskuak	Espero diren emaitzak	Ebaluazio-adierazleak eta egiaztatze-iturriak

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Marko logikoaren ikuspegia eta, bereziki, proiektuaren matrizea, eskueran ditugun tresna erabilgarriak dira proiektu bat planifikatzen laguntzeko, hori baldin bada parte hartzeko gure prozesuaren barruan planteatutako helburua. Normalean, lan hori prozesuko Talde Eragileak egin dezake, bideratzeko taldearen eta/edo erakunde sustatzaileko teknikarien laguntzarekin. Azken horren ardura espezifiko izango da planteatutako ekintzen bideragarritasuna bermatzea. Matrizea eraiki ondoren, sektore- edo gai-talde ezberdinei helarazi ahal diegu, parte hartu, berrikusi edo osa dezaten.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Lan-mota honetarako ez da material edo baliabide berezirik behar; bai, ordea, denbora eta lana. Eta, bereziki, taldeari proposamenak doitasunez planifikatzeko laguntza emango dion talde bideratzailea. Haien eginkizuna izango da proposamenak bideragarriak izatea eta matrizearen zutabeak hautemandako beharrekin eta erabilgarri dauden baliabideekin benetan osagarriak izatea.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?


Iraupena, orokorrean, planteatutako proiektuaren konplexutasunaren eta taldeak ezaugarri horietako prozesu bat egiteko dituen gaitasun eta esperientziaren araberkoa izango da. Gutxienez 4 lan-saio beharko direla uste dugu, 2 ordu edo 2 ordu eta erdikoak.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

- ▶ Lan hau ez da erraza izango planifikazio-mota horretara ohituta ez dagoen talde batentzat. Bideratzaileen laguntza jarraitua behar da, teknikaren arriskueta batzuk saihesteko, hala nola proiektu oso desiragarria sortzea, baina benetan oso egingarria edo bideragarria ez dena.
- ▶ Aurreikusitako ekintzen deskribapenari heltzean, garrantzi handikoa da benetan erabilgarri dauden baliabideak aintzat hartzea (erakunde sustatzailearenak edo interesa duten beste erakunde, talde edo sektore batzuenak). Planifikazioaren pauso garrantzitsuena dugu hori; izan ere, horrek zehazten du benetan zer egingo den. Horrenbestez, beharrezkoa den denbora erabili beharko da ideia eta proposamen onak sortzeko. Horiek baliagarri izan behar dute inplikatuak exekuzioan motibatuzeko, eta, aldi berean, arazoan benetako eragina izan behar dute.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Matrizea eraikitze prozesuak motibazioa, gogoia eta egiteko nahia pizten baditu partaideengan, buruan dituzten ideia eta proposamenak behar bezala diseinatutako proiektu batean gauzatzen ari direla ikusten dutelako.
- ▶ Prozesuaren azken matrizeak proiektu bideragarria, erakargarria, egingarria eta landutako arazo edo auzian eragin positiboa izan dezakeena osatzen badu.
- ▶ Proiektuaren exekuzioan inplikaturik egongo diren erakunde, talde eta pertsonen proposamena onartzen badute, eta ideia aberasgarria eta erabilgarria, eta praktikan lantzeko eraginkorra dela uste badute.



ZERTAN DATZA?

Teknika hau beste teknika batzuen osagarri erabili ohi da, partaide guztien partaidetza eta emaitza arinak behar direnean, eta irtenbide eta proposamen sortzaileak bilatzeko aukera badago, zehaztasunez partaideen arteko ezberdintasunak edo osagarritasunak deskubrituz.

Proposamena honetan datza: talde handi bat talde txikietan banatzen da (gehienez sei pertsonakoak) eta sei minutu ematen zaizkie proposatutako alderdiei buruz eztabaidatzeko, galderi erantzuteko edo irtenbideak edo proposamen oso zehatzak aurkezteko. Ondoren, emaitzak aurkezten zaizkie partaide guztiei.

Komeni da azpitaldeko bi kideri rol bat esleitzea: kontalaria, azpitaldean erabakitzen dena apuntatuko duena; bideratzailea, moderatzaile-lana egingo duena, sei minutu horietan taldekideen elkarrizketa antolatzen. Azken horrek, halaber, lortutako emaitzak aurkeztuko dizkio talde handiari. Beste aukera bat izan daiteke bi rol horiek pertsona berari esleitzea.

Partekatu ondoren, planteatutako gaiari buruzko produktu kolektibo bat osatzea komeni da, adostutako ondorioak jasotzeko eta, halakorik badago, ezadostasunak islatzeko.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Erabaki arinak, akordio partzialak, prozesu bati buruzko iradokizunak, proposamenak, eta abar lortzeko.
- ▶ Talde jakin batek eztabaidatutako gaiari buruz dituen ezagutzak erraz testatzeko.
- ▶ Minutu gutxitan aurkeztutako material bat komentatu eta/edo ebaluatzeko (lan-dokumentu bat, elkarrizketak, ikus-entzunezkoa, etab.).
- ▶ Ikus dezakegunez, gure parte hartzeko prozesuaren edozein fasetan erabil dezakegu, taldeekin egiten den lanaren oinarritzko tresna baita. Ikuspegiaren edo hasierako planteamendua egiteko moduaren arabera, prozesuaren momentu batean edo bestean erabiltzeko egokia izango da.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Azpitaldeetan banatuta lan egiteko beharrezko eremuak dituen lan-aretoa. Bakoitzak 6 aulki izan beharko ditu. Halaber, lagungarria izan daiteke azpitalde bakoitzak mahai bat izatea. Aukera hori posible ez bada, koaderno bat erabili daiteke azpitalde bakoitzaren ondorioak jasotzeko.
- ▶ Talde txiki bakoitzak idazteko materiala izan beharko du.
- ▶ Papelografoa, arbela edo paper jarraitua, talde bakoitzaren ondorioak jasotzeko. Horren bidez, gainera, forma eman ahal izango zaio dinamikaren emaitzak jasoko dituen produktu kolektiboari.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?


- ▶ Ikusi dugunez, dinamika arina da. Oro har, aurkezpena, talde txikietako lana, talde handiari egiten zaion aurkezpena eta ondorioen lanketa zenbatuta, ordubete baino pixka bat gutxiago beharko dugu.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

- ▶ Teknika hau egokia da taldean pertsona askok parte hartzen dutenean, baita iradokizunak eta iritziak zehaztea sustatu nahi denean ere. Izan ere, horiek baliagarri izan ahal zaizkigu etorkizuneko saioetan abiapuntu gisa erabiltzeko.
- ▶ Oso teknika erraza da ideiak alderatzeko, ikuspuntuak argitzeko, elkarrekiko aberastasuna errazteko, sorkuntza sustatzeko, partaidetza bultzatzeko... Eta erraztasun hori oso abantaila ona da.
- ▶ Zalantzarik gabe, azpitalde bakoitzeko kide-kopurua eta eztabaidara bideratutako minutuak moldakorrak izan daitezke neurri batean. Nolanahi ere, gomendatzen dugu txanda bakoitzerako 10-12 minutu baino gehiago ez erabiltzea. Izan ere, teknika honen abantaila nagusiak (horretarako diseinatuta dago) argudioen jaria Kortasuna eta eztabaidaren arintasuna dira.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Talde txiki bakoitzaren ondorioen aurkezpenak egindako galdera edo auziari erantzuten badio.
- ▶ Talde txikien lanaren ekarpen/ikuspegiak eta, halakorik badago, ezadostasunak jasotzen dituen adostasunezko produktu kolektibo bat osatzen bada.
- ▶ Partaideek lortutako produktuarekin pozik daudela adierazten badute.
- ▶ Eginiko produktua prozesuko hurrengo pausoetarako erabilgarria bada.



▶▶ 26 | PROPOSAMENAK LEHENESTEA

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Teknika hau, koherentziometroarekin (06) eta bozketa haztatuekin (29) batera edo horiekin konbinatuz, oso lagungarria izan dakiguke prozesuaren barnean kontuan hartzen ari garen esku hartzeko edo jarduteko zenbait aukerari buruko erabakiak hartzeko. Ideia nagusia da, lehen fase batean, lehenesteko oinarritzko lau irizpide ebaluatzeko laguntza ematea: premia, bideragarritasuna, arrakasta-bermea eta proposamen bakoitzaren garrantzia.

Jarraian, irizpide bakoitzari buruzko azalpenak emango ditugu:

- ▶ **Garrantzia:** lehen irizpide honetan analizatuko dugu planteatutako proposamenak zenbateraino laguntzen duen mahaiaren gainean jarri dugun arazoa edo auzia eraginkortasunez ebazten. Hausnarketa hori egin ondoren, irizpide horri balorazio altua (=5), ertaina (=3) edo baxua (=1) esleituko diogu.
- ▶ **Bideragarritasun ekonomikoa eta teknikoa:** kasu honetan bereziki baloratuko ditugu alderdi ekonomiko eta teknikoak. Hau da, proposamen bakoitza egiteko beharrezko lirategen ekintzak martxan jartzeko eta gauzatzeko baliabideak (eta horien erabilgarritasuna). Kasu honetan, balorazio kuantitatiboa alderantzizkoa litzateke: kostu altua eta baliabideak bideragarritasun baxua (=1) ekarriko lukete, eta gauza bera bideragarritasun ertainerako (=3) eta alturako (=5).
- ▶ **Aurreikusitako laguntzak:** hemen baloratuko ditugu proposamenaren bideragarritasun teknikitik eta ekonomikotik haragoko bideragarritasunaren inguruan espero ditugun gainerako laguntzak. Esaterako, gizarte-eragile edo erakundeetatik espero dugun laguntza, emaitzak jasoko diren eragin positiboa, etab. Horrenbestez, balorazio kuantitatibo altuak (=5) esan nahiko luke aurreikusitako laguntza handia dela. Aldiz, balorazioa jaisten joango da laguntza-aurreikuspenak ertainak (=3) edo baxuak (=1) direnean.
- ▶ **Premia:** hemen baloratu beharko dugu proposamena premia martxan jarri behar den edo, aldiz, epe ertainean edo luzean abiarazi daitekeen. Honako hau izango da esleipen kuantitatiboa: premia handia (=5), ertaina (=3) edo txikia (=1).

Eginkizun hau gauzatzeko matrize bat eraiki dezakegu, ilaretan proposamen edo aukera ezberdinak jasota eta zutabeetan lehenesteko lau irizpideak islatuta. Beste zutabe bat gehituko dugu puntuazioen batuketa jasotzeko. Horrela, sortzen den lehenespenaren ideia orokorra egin ahalko dugu.

	Garrantzia	Bideragarritasuna	Aurreikusitako laguntzak	Premia	BALORAZIOA GUZTIRA
1. proposamena					
2. proposamena					
3. proposamena					

Helburua ez da metodo honen bidez zuzenean erabakiak hartzea, baizik eta tartean dauden auzi garrantzitsu batzuei buruz hausnartzea eta horiek eztabaidan sartzea. Gainera, matrizearen laukiak

erabili ahal izango ditugu, martxan jartzea erabakitzekotan, proposamenak bideragarriagoak izan daitezten, laguntzeko ideiak, aukerak, matrizeak edo proposamenak idazteko.

Matrize hori osatzeko hainbat modu daude, kasu bakoitzeko testuinguruaren edo egoeraren arabera:

- ▶ Zuzenean talde handian (oso handia ez bada), gidariaren laguntzarekin, gelaxkak banan-banan aztertuko dira eta kasu bakoitzerako puntuazio bat esleitzen saiatuko gara.
- ▶ Matrizea talde txikietan landu dezakegu eta, ondoren, partekatu. Horretarako, gelaxka bakoitzari batez besteko puntuazioak esleituko dizkiogu. Bestalde, lan-talde bakoitzak botatako ideiak, proposamenak edo iradokizunak idatziko ditugu.
- ▶ Matrizea bakarka beteko du pertsona edo erakunde partaide bakoitzak, lan-saioan bertan edo aldez aurretik. Talde handian lortutako puntuazioen batez bestekoak kalkulatu dira, eta sortzen diren ideiak eta iradokizunak idatziko dira.

Kasu batzuetan, bereziki bideragarritasunaren eta aurreikusitako laguntzen esparruan, garrantzitsua da proposamenaz gain honako hauek ere aintzat hartzea: proposamena gauzatzeko modua, planteamendua, garatzeko ñabardurak, etab. Horretarako, gelaxken barruan bideragarritasun handiagoa edo laguntza gehiago eta indartsuagoak lortzeko aintzat hartu beharreko auziak.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Teknika erabilgarria da hainbat aukera daudenean erabaki kolektiboak hartzeko, bai eta proposamen bakoitzaren bideragarritasunari eragiten dioten gai gako batzuei buruz hausnartzeko ere.
- ▶ Erabilgarria izan daiteke, halaber, proposamen zehatzei forma emateko, bideragarriagoak izan daitezten, laguntza gehiago bil dezaten edo garrantzitsuago bihurtu daitezten.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Hasiera batean arbel bat edo paper jarraitua eta idazteko errotuladore egokiak beharko genituzke bakarrik.
- ▶ Talde handia talde txikietan banatuz gero, talde txiki bakoitzarentzako paper jarraitua eta errotuladoreak beharko genituzke.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

Mahaiaren gaineko proposamenen eta gaien konplexutasunaren arabera, ordu eta erdi eta bi ordu arteko denbora beharko dugu lana gauzatzeko, bereziki matrizea ohar, ideiak, ñabardura eta abarrekin osatu nahi badugu. Bertsio laburragoa egingo genuke, proposamenak aldez aurretik ondo landu badira. Kasu horretan, gure helburu bakarra izango litzateke adierazitako lau alderdi horiek zuzenean ebaluatzea.


AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

- ▶ Teknika hau oso erabilgarria izan daiteke aukera edo proposamen batzuen artean erabakitzeko.
- ▶ Interesgarria izan daiteke talde teknikoarentzat ekonomikoki edo teknikoki bideraezinak diren mahaiaren gaineko proposamenen bideragarritasuna aztertzeko.
- ▶ Teknika erabilgarria da, halaber, proposamen baten arrakasta-mailan eragina izan dezaketean auzi gako batzuei buruz hausnartzeko (jasotzen dituen laguntzak eta laguntza horiek eskuratzeko modurik egokiena, adibidez).
- ▶ Ez da gomendatzen erabaki baten pisu osoa mota honetako matrize bati esleitzea. Erabakiak hartzeko lagungarria den tresnatzat hartu behar dugu. Izan ere, ez da hautatzeko formula magiko bat.

- ▶ Beste teknika batzuekin osa daiteke. Adibidez, 06. fitxan (koherentziometroa) eta 29. fitxan (bozketa haztatuak) deskribatzen direnekin.
- ▶ Azaldutako eta matrizea osatzeko proposatutako lau irizpideei dagokienez, taldearekin definitzen den beste balorazio-irizpideren bat gehi dezakegu, aztergairako bereziki garrantzitsua dela uste badugu.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Hasiera batean aintzat hartzen ari ginen proposamenen artean erabaki kolektiboak hartzeko lagungarria bada.
- ▶ Egindako lana erabilgarria bada aukera bakoitzari dagokionez aintzat hartzea ahaztu zaigun faktore edo elementu gakoak nabarmentzeko.
- ▶ Teknika honen bidez proposamenak aberastea, zehaztea edo horiek interesgarriago bihurtzea edo martxan jartzeko adostasun handiagoa lortzen badugu.





27 | SOZIOGRAMA EDO MAPA SOZIALA

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Soziograma edo mapa soziala deritzo ikerkuntza sozialean (bai eta hezkuntzaren esparruan ere) sarri erabiltzen diren ikerkuntza-teknika eta -metodologiaren multzo bati. Horren helburua da taldea osatzen duten pertsona, kolektibo edo erakundearen artean sortzen diren harreman edo lotura-mota anitzak grafikoki irudikatzea. Hasiera batean 30eko hamarkadan sortu zuen Jakov Levy Moreno psikiatra eta hezitzaile errumaniarrak (psikodrama edo soziometriaren sortzailea ere bada).

Soziologiaren eta sare-analisiaren esparruan, soziogramak ikerkuntza kuantitatiboko eta kualitatiboko metodo oso espezifikoak hartzen ditu barne. Gure kasuan, taldean lan egiteko eta parte hartzeko tresna gisa ulertuko dugu. Horri esker, emandako gai batean inplikaturako edo horren eraginez kaltetutako pertsona, sektore, gizarte-eragile edo erakundearen artean hautematen ditugun loturak diagnostikatu eta irudikatu ahal izango ditugu. Testuinguru horietan teknikaren erabileraren erreferentzia ona ematen digute, adibidez, Colaborabora¹² taldetik.

Laburbilduz, tresnaren asmoa da mahaiaren gainean dugun arazoan eragin garrantzitsua duten eragile guztien arteko harreman-motari buruzko hausnarketa sustatzea, eta informazio hori lotura eta harreman horiek irudikatzeko erabilgarria den eskema grafikoan islatzea. Mapa soziala eraikitzeko prozesuan egoera osatzen duten faktore-motak ezagutuko ditugu, eta, horri esker, argiago izango dugu errealitatea aldatzeko non eragin dezakegun edo behar dugun.

Lehenengo pausoa izango da egoeran eragiten duten edo horren eraginez kaltetuta dauden eragile, erakunde, talde, kolektibo, pertsona edo interes-taldeak identifikatzea. Halaber, administrazio eskudunak eta beste erakunde publiko, enpresa eta gizarte-erakunde batzuk gehitu beharko ditugu, eta baliteke eragindako sektoreak ere (ehiztariak, nekazariak, etab.) gehitu behar izatea. Gainera, kasu batzuetan, gure mapa sozialean irudikatu ahal izango ditugu paper garrantzitsua betetzen duten pertsona indibidualak (izan betetzen duten karguagatik, izan zehaztutako esparruan duten lidergoagatik).

Eragile horien irudikapen grafikoak hobetze aldera, nahiago dugun forma- eta kolore-kodea erabili ahal izango dugu. Horrela, adibidez, administrazio eta erakunde publikoak lauki baten bidez irudika ditzakegu, enpresak hiruki batekin eta gizarte-erakundeak borobil batekin. Era berean, izar bat erabil dezakegu pertsona indibidualentzat, eta hexagono bat ekonomia-sektoreentzat. Beste aukera bat da kolore eta tamaina ezberdinak erabiltzea, gaian eragile bakoitzak hartzen duen garrantziaren arabera. Soziograma marrazteko erabiliko dugun paperaren tamainaren arabera, erakundearen izena idatz dezakegu mapa sozialean bertan; bestela, bakoitzari zenbaki bat esleitzen diezaiokegu, legenda baten bidez horren esanahia argituta.

Bigarren pausoa izango da lerro-kode baten bidez identifikaturako eragilearen arteko harreman-mota irudikatzea. Horretarako, adibidez, Colaboraboran jarraitzen duten ereduak erabil dezakegu, edo gure kasurako erabilgarritzat jotzen dugun beste edozein. Lerro- eta kolore-motak konbina ditzakegu (adibidez, kolore epelak harreman onetarako eta kolore hotzak kontrako kasuetarako).

LOTURAK

- ← → INTERDEPENDENTZIA
- ELKARLANA
- INTENSITATE BAXUA
- ALDIZKAKOA
- ||— ISOLAMENDUA
- X— GATAZKA

12] <https://www.colaborabora.org/2015/01/12/dibujar-un-sociograma/>

Garrantzitsua da aintzat hartzea asmoa ez dela mapa erabat perfektua osatzea, baizik eta teknika honen bidez ikaskuntza kolektiboa sortzea, eta emaitza inplikaturak gauden prozesurako erabilgarria izatea. Izan ere, prozesuak aurrera egiten duen heinean, mapa soziala aldatzen joan gaitzke, nahi badugu. Azken finean, baliteke soziograman irudikatuta dauden eragileetan eta horien arteko harremanetan aldaketak gertatzea. Izan ere, tresna honekin lan egitearen helburuetako bat da lotura ahul eta arazotsuenak identifikatzea eta hor eragitea, taldetik bertatik, ahal den neurrian ahultasun-egoera edo gatazka horiek hobetze aldera.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Soziograma, oro har, prozesu baten hasieran erabiltzen da, eragile garrantzitsuak eta horien artean sortzen diren harremanak identifikatzeko. Testuinguru honetan, plangintza- eta/edo bideratze-taldeak berak egiten du lan hori lanean hasi aurretik. Horretarako, elkarrizketak egiten dizkiete pertsona gakoiei, beharrezko informazioa lortzen saiatzeko.

Gure kasuan, ideia eraldatu eta lankidetzarako tresna bihurtzen dugu, prozesu batean parte hartzen duen taldeak errealitateari eta egoeran eragiten duten interes gurutzatu eta loturei buruz duen ezagutza aberaste aldera. Zentzu horretan, gomendatzen da mapa soziala diagnosi-fasean gauzatzea, diagnosis bera aberastu eta osatzeko.

Tresna hau erabilgarria izan daiteke eragileen arteko harremanak garrantzitsuak diren kasu edo prozesuetan, eta informazio-mota hori partekatzea eta sozializatzea interesgarria denean. Bereziki, egoeran eragiten duten eragileen arteko harremanen edo loturaren batean modu positiboan eragitea komeni dela hautematen badugu.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Praktikan, interesgarria da ariketa hau arbel batean (beltza edo zuria) egitea. Horrela, erraz ezabatu eta zuzendu ahal izango dugu. Arbelik ezean, kartulinar edo paper jarraituan lan egiten badugu, paper-zatiak erabil ditzakegu eragileak identifikatzeko, erraz mugitu eta lekualdatu ahal izateko. Era berean, lerroak lehendabizi arkatzez marraz ditzakegu, eta, behin betikoak direnean, errotuladoren markatu.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

Landuko dugun egoeraren konplexutasunaren eta lan-taldea osatzen duten pertsonen kopuruaren arabera, ordu eta erdi edo bi orduko saio batean, gutxi gorabehera, mapa sozial bat diseina dezakegu.


Taldea oso handia bada, azpitaldeak sor ditzakegu. Bakoitzak bere soziograma egin dezake, jarraibideak aurretiaz argituta; ondoren, proposamenak partekatu eta baterako mapa sozial bat marraz dezakegu guztion artean.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

Soziograma bat taldean marraztea ez da lan erraza. Izan ere, bakoitzak eragileen arteko loturei buruz pertzepzio eta ezagutza ezberdinak izan ditzake. Bestalde, aintzat hartu behar da eragileetako batzuk taldean egongo direla. Horixe bera da tresnaren interesa. Izan ere, ahalbidetzen digu egoerari buruzko hausnarketa kolektiboa sortzea, ikuspuntu ezberdinak alderatzea eta, horrenbestez, errealitateari buruzko ikuspegi konplexuagoa eta aberatsagoa lortzea. Era berean, kontu handiz ibili beharko dugu; izan ere, kasu batzuetan, aretoan bertan dauden pertsonen arteko harremanei buruz hitz egingo dugu. Hortaz, bideratzaileak arreta berezia jarri beharko du, analisia errespetuz egin eta min daitezkeen minberatasunak ez mintzeko.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Abiapuntuko egoeraren diagnosia hobetzen laguntzen badigu, argi eta garbi hautemateko eragileek eta horien arteko harremanek lantzen dugun errealitatean zer-nolako eragina duten. Halaber, oso bereziki, esku hartu beharreko elementuak identifikatzen laguntzen badigu.
- ▶ Taldea egindako lanarekin pozik badago eta soziograma egiteko prozesuan sortutako eztabaida aberasgarria izan dela uste badu.
- ▶ Azken emaitzak errealitatea irudikatzen badu eta, zehatzegia edo sakonegia izan gabe, egoeraren gako batzuk zehaztasunez islatzen baditu, eragileen arteko harreman eta loturei dagokienez.
- ▶ Soziogramaren bidez beste tresna batzuekin hautematea oso zail izango litzatekeen auzi garrantzitsuak identifikatu baditugu.



▶▶ 28 | ETORKIZUNENKO TAILER EDO ESZENARIOAK

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Teknika honek etorkizun desiragarriak irudikatu eta horiek lortzeko bideak zehazteko aukera ematen digu. 10 edo 15 urteko denbora-mugarekin lan egin ohi da, hau da, gertuegi edo urrunegi ez dagoen epe batekin. Hala ere, epea eztabaidatzen ari garen gaira eta testuingurura egokitu beharko da. Oro har, talde handian lan egiten da eta iritziak jasotzeko metodo gisa txartel bidezko ekarpenak eta ideia-jarioa (ik. 01. fitxa) erabiltzen dira. Zehazki, etorkizuneko tailer oso batean ikuspegi/iritzien bilketa hiru momentu edo fasetan oinarritzen da:

- ▶ **Kritika-fasea:** Partaideei proposatzen zaie lehenik eta behin landutako gaiaren ikuspegi negatiboa osatzeko. Adibidez, zein arazori edo erronkari egin behar izango die aurre denbora-epe horretan lurralde jakin batek? Edo natura-baliabideen aprobetxamendu jakin batek? Edo azpiegitura jakin batek? Edo talde sozial batek? Azken finean, asmoa da elkarrekin imajinatzea sekula lortu nahi ez genezakeen egoera bat. Komeni da etorkizunaren dimentsio negatibo hori adierazten hastea; horrela, alderdi positiboak landuko ditugu jarraian, eta, ondoren, proposamenen fasera igaroko gara. Argi dago talde guztietan daudela, maila handiagoan edo txikiagoan, kritika eta pesimismoa. Bada, horiek lehenbailehen azalartzea komeni da, bideratu ahal izateko. Horrela, taldeari eta plana eraikitzeko prozesuari eta abarri mesede handia egingo diegu.
- ▶ **Imajinazio-fasea:** Saioarean gidariak arazoan alderdi positiboa adierazteko eskatzen du, hau da, imajinatu dugun etorkizuneko errealitatearen beste aurpegia. Era berean, eszenatoki desiragarriak irudikatzea sustatzen da, bai eta amestutako errealitate horretara hurbiltzeko burura datozkigun ideia eta/edo proposamen zoro guztiak ere. Adibidez, zer-nolako lurraldea izan nahi genuke 15 urte barru? Zein izango litzateke gure eszenatoki desiragarria? Fase honetan ikuspegi negatiboek ez dute lekurik. Horiek aurreko etapan jasoko dira.

Saioko dinamizatzaileak forma emango die bi eszenatoki horiei, taldearen ideia eta iritzi guztiak oinarri hartuta eta betiere adostasunetik eraikitzeko ahaleginetan. Ideia ona da bi fase horien buruan bi eszenatokiak taldearentzat ikusgarri egotea. Horretarako, paper jarraitu batean edo arbel batean jaso ditzakegu, edo bakoitza papelografoaren orrialde batean isla dezakegu, ondoren horman bi orrialdeak paraleloan jartzeko. Laburbilduz, helburua da hurrengo faserako (azken fasea) errealitatearen bi ikuspegi horiek begi-bistan jartzea.

- ▶ **Gauzatze-fasea:** “lurra ukitzeko” unea iritsi da. Fase honetan eszenatoki desiragarria eta proposamen fantasiatsuenak errealitatearekin uztartu behar ditugu, aintzat hartuta etorkizunak ekar ditzakeen arazoak. Dinamizatzaileak, oraingoan, proposamen zehatzetarantz bideratu beharko ditu esku-hartzeak. Horretarako, adibidez, horrelako galderak egingo ditu: eszenatoki desiragarriko zein elementu da egingarria? Proposamen/ideia horietatik zein jarri daiteke martxan eszenatoki desiragarriarantz aurrera egiteko? Bestalde, imajinazio-fasean proposamenik jaso ez bada, galdera hauek egin litezke: zer egin dezakegu gaurtik hasita ikuspegi amestu horretara hurbiltzeko? Zein izango dira ebazti beharreko zailtasunak/arazoak? Nola saihets ditzakegu? Fase honetako zehaztasun-maila une honi eskainiko zaion denboraren arabera izango da.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Etorkizunaren proiektio honek arazo batzuetan ados ez dauden eragileen arteko topaguneak eta helburu komunak errazten dituzte. Izan ere, arazoaren gaurkotasuna dela eta, ezadostasun horrek gehiegi eragin dezake argudiaketan eta gehiegi estereotipatutako jarrerak sustatzen ditu (alde edo kontra), eta, modu horretan, ezinezkoa da eztabaidan eta eraikuntza kolektiboan aurrera egitea. Erronka ez da izango interes partikularrei mesede egingo dieten irtenbideak nola bilatu, baizik eta elkarrekin definitu dugun (eta beraz, partaide guztiak gaude ados) etorkizuneko eszenatoki desiragarri eta egingarri hori lortzeko bidea zehaztea. Esperientziak erakusten digu eszenatoki desiragarri komun hori beti existitzen dela. Eztabaidak oso gogorak badira ere, itxaropen partekatua dago beti.
- ▶ Teknika honek, azken batean, etorkizuna azpimarratu, sorkuntza sustatu eta prozesuan positibizazioa sartzen du¹³.
- ▶ Gainera, ikus dezakegunez, fase guztiak gauzatzen badira, teknika orokorra da, eta diagnosi-fasean, eztabaida-fasean eta proposamenen fasean erabil dezakegu.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Eremu egokia beharko dugu, partaide guztientzako aulkiekin. Horrez gain, papelografoa, paper jarraitua edo arbela. Partaideen proposamenak txarteletan jasoko baditugu, txartelak ere beharko ditugu.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

- ▶ Teknika honek aldaerak onartzen ditu, hiru faseak edo lehenengo biak bakarrik egiten ditugun. Hiru faseak egingo baditugu, komeni da gutxi gorabehera egun erdiko saio bat egitea (goiz bat edo arratsalde bat). Taldea oso handia bada eta eszenatokiak definitzeko azpialdeak sortzen badira, denbora hori gutxiago izango da, denbora gehiago beharko baitugu azpialdeen emaitzak partekatzeko. Hortaz, gutxi gorabehera egun erdiko bi saio beharko ditugu.
- ▶ Gure asmo bakarra etorkizuneko eszenatokiak/ikuspegiak eraikitzea bada (nahi ez ditugunak eta desiragarriak), nahikoa izango genuke bi ordu eta erdiko saio batekin.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

- ▶ Metodologia-formula askok erabiltzen dute arazoak hautemateko, etorkizuneko eszenatokiak diseinatzeke eta ekintza-lerroak antolatzeke estrategia hau, eta aurrerapena partaideek beren etorkizuna antolatzeke inplikazio-mailan oinarritzen dute. Lehenengo proposamena, eta entzutetsuena, EASW tailerrak (*European Awareness Scenario Workshop*) dira. Metodoa Danimarkako Teknologia Institutuak sortu zuen, eta, ondoren, Europako Komunitateen Batzordearen XIII Zuzendaritza Nagusiak sortu zuen. EASW tailerrez geroztik proposamen asko agertu ziren, hainbat aldaerarekin. Horietan gida honetan planteatutako pausoak jasotzen dira. Esteka¹⁴ honetan Bartzelonako Trinidad Nova auzoan egindako EASW tailerren lehenengo adibidearen emaitzen dokumentua kontsulta daiteke. Tailer hori auzoaren etorkizunari buruz hausnartzeko antolatu zen. Ondoz ondoko bi egunetan egin zen, 1999ko uztailean.
- ▶ Onartzen dituen aldaeretak bat (interesgarria izan daiteke parte hartzeko prozesu motaren arabera) soilik bi eszenarioak sortzea izango litzateke (nahi ez duguna eta desiragarria), eta agertoki desiragarri horretatik abiatuta, lortu nahi dugun plan, dokumentu edo araudiaren helburua lortzea.


13] Pindado, F. (coord.) (2002). *Eines per a la participació ciutadana. Bases, mètodes i tècniques*. Diputació de Barcelona. Papers de Participació Ciutadana, 6.

14] <http://cordis.europa.eu/pub/easw/docs/trinitat-es.pdf>

- ▶ Azken fasea, saio gehiago egiteko denbora nahikoa badago, ekintza-plan bat zehaztasunez gauzatzearekin batera uzta daiteke. Hori bideratzeko, adibidez, 21. fitxa (Hamar galderak) erabil genezake. Aldiz, denbora gutxi badugu, nahikoa izango litzateke azken fase honetan guztiok adostutako agertoki desiragarri eta egingarri bat osatu eta hori lortzeko jarraibide batzuk lantzearekin.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Etorkizunaz ikuspegi anitzak eta garrantzitsuak (negatiboak eta positiboak) jasotzen badira, eta dinamizatzailerak azpikategorietan sailkatzeko modukoak badira.
- ▶ Etorkizuneko agertoki desiragarria talde osoak adostu badu.
- ▶ Etorkizuneko agertoki desiragarria taldeak adostutako epean egin badaiteke.
- ▶ Ondorengo ekintzak orientatzeko jarraibide batzuk jasotzen badira (hiru faseen aldaeran), adostutako agertoki hori lortzeko bidean aurrera egiteko.





29 | BOZKETA HAZTATUAK

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Teknika erabilgarria da prozesuaren barruan aintzat hartzen ari garen zenbait jarduketa-proposamenen artean erabakiak hartzeko. Bereziki koherentziometroa (06. fitxa) eta proposamenak lehenestea (26. fitxa) bezalako beste teknika batzuen osagarri gisa aplikatzen badugu.

Bozketa haztatuen eta bozketa arruntaren arteko oinarritzko ezberdintasuna da asmoa ez dela zuzenean hautatu edo proposamen bakoitza puntuatzea (1etik 5era, adibidez), baizik eta partaide bakoitzak puntu jakin batzuk banatzea, lehenetsi nahi diren aukera ezberdinen artean. Lehenbizi, adierazitako tresnen bidez hausnarketa sustatuko dugu, eta, ondoren, puntuen banaketa egingo da.

Hau da bozketa-mota honen azpian dagoen logika: proposamen guztiak landu ezin ditugunez, baliabideak mugatuak baitira, nola banatuko nituzke baliabide horiek (nire x puntuak) aurkeztutako aukeren artean? Azken batean, teknika hau elkarren artean baztertzailak ez diren aukera batzuen artean bozkatzeko beharra dagoen edozein egoerarako pentsatuta dago.

Teknika aplikatzeko modua erraza da. Partaide bakoitzari x puntu ematen zaizkio (fitxak, haziak, itsasgarriak...), proposamenen artean bana ditzan. Adibidez, 5 proposamenen artean 2 aukeratu nahi badira, pertsona bakoitzari 5 puntu eman diezazkiokegu, ohartaraziz gehienez ere 3 puntu eman ahalko dizkiotela proposamen bakoitzari.

Lan-talde edo kolektibo ezberdinek eginiko proposamenak baditugu, bakoitzak bereak ez bozkatzeko eskatu diezaiekegu, norberak bere burua bozkatzea ekiditeko. Bozkatu edo puntuak esleitu ondoren, proposamen bakoitzak jaso dituen puntuak zenbatzen dira eta lehenetsitako proposamenen zerrenda egiten da.

Era berean, tresna hau erabil dezakegu pertsona askok proposamen edo aukera ezberdinen artean hautatzea nahi dugunean; hau da, bozketa taldea osatzen duten pertsonetatik harago egin nahi dugunean: auzo edo udalerrri osoa, kolektibo jakin bat, etab. Kasu horietan oso garrantzitsua da jendea bozkatzera gonbidatzea, proposamen bakoitzari buruzko informazio guztia helaraziz, bakoitzaren kalte eta onura nagusiak barne, taldean eztabaidatutakoaren arabera.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

- ▶ Teknika erabilgarria da erabaki kolektiboak hartzeko, aukera ezberdinak daudenean eta bat baino gehiago hautatu nahi denean.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

- ▶ Printzipioz, arbel bat edo paper jarraitua eta puntuak idazteko pegatinak edo pertsona edo erakunde bakoitzaren botoak jasotzeko errotuladore egokiak beharko genituzke bakarrik.
- ▶ Teknika aplikatzeko beste baliabide-mota batzuk ere erabil daitezke (haziak, adibidez). Kasu horretan, mahaiaren gainean edo lurrean proposamenak argi islatzen dituen kartel bat jarriko dugu, partaideek aukera ezberdinen artean haziak banatzeko.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

- ▶ Teknika hau oso arin egin daiteke, aldez aurretik aukera bakoitzaren abantaila eta eragozpenak behar bezala eztabaidatu badira. Partaideen kopuruaren arabera, 15-20 minutuan egin daiteke; baina, jakina, partaide gehiago dauden heinean, gero eta denbora gehiago beharko da.

AINZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

- ▶ Tresna hau oso erabilgarria izan daiteke hainbat aukeraren edo proposamenen inguruan erabakiak hartzeko, aldez aurretik behar bezala eztabaidatu badira. Oro har, onena litzateke aukera onenei buruzko adostasunak lortzea (horretan datza eztabaidaren garrantzia), baina kasu batzuetan beharrezkoa izan daiteke aukera ezberdinen artean bozkatzea; hori bai, bozketa egin aurretik hausnartu egin behar da.
- ▶ Garrantzitsua da bozketan kutsatze-efektua saihestea. Horretarako, taldeko kideei eskatuko diegu aldez aurretik euren erabakia idazteko, gainerakoek bozkatutakoaren arabera botoa alda ez dezaten.
- ▶ Teknika hau egiteko hainbat aldaera daude. Kasuaren arabera, egokiena aplikatuko dugu. Aukera bat da pertsona bakoitzari emandako puntuak kolore ezberdinetan banatzea: berdeak nahiago diren proposamenetarako eta gorriak argi eta garbi baztertzen direnetarako, esate baterako. Kasu horretan, baloratu beharko da partaideen sektoreen batek proposamenetako bat erabat baztertzen duen.
- ▶ Kontuz ibili behar dugu teknikaren emaitzak oso argiak eta garbiak ez badira. Proposamen ezberdinetan berdinketak edo antzeko balorazioak badaude, argi dago erabakiak hartu aurretik hobeto eztabaidatu behar direla. Egoera horretan interesgarria litzateke, beharrezko eztabaida egin ondoren, beste bozketa bat egitea hasieran boto gehien jaso dituzten proposamenen artean.

EBALUAZIORAKO IRADOKIZUNAK. TEKNIKAK ONDO FUNTZIONATU DU, BALDIN ETA...

- ▶ Aukera batzuetan eta bestetuetan lortutako emaitzen arteko ezberdintasuna argia bada, eta taldea hartutako azken erabakiarekin pozik badago.
- ▶ Amaitzean, taldeak pentsatzen badu erabilitako teknika azaldutako xedeetarako erabilgarria izan dela.





30 | EBALUAZIOAREN ETA JARRAIPENAREN BEHATOKIA

INFORMAZIOA
BILDU

DIAGNOSTIKATU

PROPOSATU

EZTABAIDATU

ERABAKI

PLANIFIKATU

EBALUATU

ZERTAN DATZA?

Azken fitxa hau auzi berezi baterako gorde dugu. Berez, ez da hemen azaldu ditugunen pareko teknika mota bat, baizik eta partaidetza diseinu-fasetik harago zabaltzeko tresna bat, fase hori amaitu eta plana, programa edo proiektua exekutatzeko fasera bitartekoa (dokumentu honen 4. kapituluaren “5. fase” esaten diogu horri).

Proposamen hau protokolo, prozedura, lan-talde eta/edo mekanismo erabilgarrien multzo bat eraikitzean datza, partaidetza-proiektuaren exekuzio-fasean aintzat hartzeko tresna izan dadin.

Hau da oinarritzko ideia: parte hartzeko prozesuaren barruan, lan-saio bat erabiliko da, gutxienez, plana, programa edo proiektua martxan dela, horren ebaluazioa eta jarraipena diseinatzeko. Horrek esan nahi du pentsatu eta erantzun egin beharko zaiela galdera hauei:

- ▶ Zer mekanismo mota artikulatuko dugu ebaluazioa ahalbidetzeko? Kontseilu edo lan-talde bat? Formala edo informala? Erakunde sustatzaileak sustatu eta kudeatuko du, edo parte hartzen duten pertsonak eta erakundeek egingo dute?
- ▶ Zer pertsona edo erakunde parte hartuko dute ebaluazio- eta jarraipen-prozesu horretan? Nolakoak izango dira haien arteko harremanak? Nola emango zaie guztiaren berri prozesuan parte hartu duten pertsonari eta/edo gizarteari, orokorrean? Aldizkako ebaluazio-txostenak egingo dituzte? Aldizkako deialdi zabalagoak egingo dira jarraipen horren berri pertsona gehiagori eman ahal izateko?
- ▶ Zer-nolako maiztasunarekin bilduko dira? Nola bilduko dute jarraipena egiteko beharrezko informazioa? Planaren erakunde sustatzaileak emango die? Beste bide batzuetatik eskuratuko dute? Informazioa eskatuko diete beste aditu batzuei?
- ▶ Nor arduratuko da saioen deialdi eta aktez eta horien difusioaz? Erakunde sustatzailea? Parte hartzen duten erakunde edo pertsonak? Ardura hori txandakatuko ote dute?
- ▶ Nola erabaki ahal izango du taldeak (objektibotasunez eta inpartzialtasunez) Planari dagokionez behar bezalako aurrerapena egiten ari den? Ebaluazio-adierazleak eta egiaztatzeko iturriak erabiliko dira? Horiek definituta daude jada edo eginkizun horretatik hasi behar dugu?

Galdera horiei erantzun ondoren, plan, programa edo proiektuaren dokumentura gehituko dira, modu antolatuan artikulatuta. Hortaz, plan horren esparruan egin beharreko eginkizunen barnean jasoko dira. “Behatoki” dei diezaiokegu, fitxan honetan egin dugun bezalaxe, edo hartutako erabakietara ondoen egokitzen den izena erabili.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Planaren, programaren edo proiektuaren exekuzioan jarraipen eta ebaluazio partekatua egitea ezinbesteko kalitate-irizpidea da, eta kasu guztietan gehitu beharko genuke prozesura. Hortaz, auzi bakarra litzateke jarraipena egiteko aurreikusitako dimentsio eta prozedurak parte hartzen ari garen planaren izaerara behar bezala egokitzea, eta exekuzio-fasean hori martxan jartzeko beharrezko mekanismoak artikulatzea.

Gehienbat, erakunde sustatzaileak hartu behar du erantzukizun hori, baina garrantzitsua da, halaber, diseinu- edo antolakuntza-fasean prozesuan parte hartu duten erakunde eta pertsonak ere erantzukizun hori partekatzea.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Bi momentu bereizi behar dira hemen:

- ▶ Alde batetik, planaren ebaluazioa eta jarraipena diseinatzeko unea. Fase honetan planteatutako galderei buruz eztabaidatu eta horien inguruko erabakiak hartu behar ditugu.
- ▶ Bestalde, planaren, programaren edo proiektuaren exekuzio-fasean prozedura horiek exekutatzeke unea. Horretarako, beharrezko baliabideak eta denbora erabiliko ditugu, aurretiaz zehaztutako bileretarako eta dagokion ebaluazio-txostenak egiteko.

ZENBAT DENBORA BEHARKO DUGU?

Lantzen ari garen planaren, programaren edo proiektuaren konplexutasunaren eta tamainaren arabera, denbora gehiago edo gutxiago beharko dugu exekuzio-fasean horren ebaluazioa eta jarraipena egiteko. Printzipioz, bi orduko lan-saio bat nahikoa izango da eztabaidatu eta jarraipena osatuko duten elementu nagusiak adosteko.

Bestalde, planaren jarraipena eta ebaluazioa exekuzio osoan zehar egin behar dira, exekuzioa gauzatu eta amaierako ebaluazio-txostena idatzi arte. Bertan, hala badagokio, honen ondoriozko etorkizuneko planetarako gomendioak jasoko dira.

AINTZAT HARTU BEHARREKO ZENBAIT ALDERDI (ABANTAILAK, OZTOPOAK, MARTXAN JARTZEKO IDEIAK ETA BESTELAKO AUKERAK, AINTZAT HARTU BEHARREKOAK...)

Planaren, programaren edo proiektuaren exekuzio-faserako ebaluazioa eta jarraipena diseinatzeko, aintzat hartu beharko dira parte hartzeko prozesuan zehar paper aktiboa eta garrantzitsua izan duten erakunde eta pertsonak. Saiatuko gara hurrengo fasean ere rol garrantzitsua bete dezatela. Horrela, adibidez, talde eragile batekin lan egin badugu, baliteke aukera onena izatea talde eragile horrek ere (izen horrekin edo beste batekin) jarraipenaren eta ebaluazioaren ardura hartzea. Eta talde handiago batek funtzionatu badu, horri ere dei egin diezaiokegu exekuzio-fasearen unereren batean (amaieran, gutxienez).

Era berean, exekuzioari buruz egiten diren ebaluazio-txosten guztiak bidali beharko dizkiegu parte hartzeko prozesuan aktiboki lagundu duten pertsona guztiei. Horren xedea da parte hartu zuten auziari buruz aldizkako informazioa jasotzea.

Kasuen arabera, garrantzitsua izan daiteke erakunde sustatzaileak emandako informazioa, hirugarren pertsona edo erakundeei eskatu ahal diegun informazioarekin egiaztatzea, datu eta ikuspegi multzo osatuagoari buruzko jarraipena egin ahal izateko.

Jarraipen- eta ebaluazio-lanean ezinbestekoa da ebaluaziorako planifikatutakoari dagokionez gertatzen ari dena aintzat hartzeaz gain, honako hauek ere jasotzea: ekintzak hobetzeko edo aldatzeko gomendioak, esku hartzeko iradokizunak, exekuzioa hobetzeko proposamenak, etab. Aintzat hartu behar dugu plan, programa edo proiektu baten exekuzioan malgutasun-maila bat dagoela beti; izan ere, errealitatea eta testuinguruak aldakorrek dira, eta baliteke diseinu-fasean oso interesgarriak ziren proposamen batzuk exekuzio-fasean horren garrantzitsuak ez izatea. Nolanahi ere, argumentu hori doitasunez erabili beharko dugu, ezinbestekoak diren ekintza batzuk ez egiteko aitzakia ez bihurtzeko.

SUGERENCIAS PARA LA EVALUACIÓN. EL PROCESO HABRÁ FUNCIONADO BIEN SI...

- ▶ Laguntza ematen baditu plan, programa eta proiektuaren exekuzio-fasean zehar, partaidetza eraginkortasunez integratzeko jarraipena eta ebaluazioa egiteko lan-metodologia gisa.

- ▶ Planen exekuzioa hobetzeko lagungarriak diren prozedurak indartu eta zabaltzea ahalbidetzen badigu, ebaluazio jarraituko mekanismoak gehituta, errealitate aldakorrari begira aberatsagoak eta malguagoak izateko.
- ▶ Bai administrazioan, bai gizartean, orokorrean, partaidetzaren kultura indartzea ahalbidetu eta erantzunkidetasuna sustatzen badu.





4 | PARTAIDETZA DIGITALEKO TRESNAK

Etorkizunean emaitza positiboak benetan eragiten dituen herritarren partaidetza su ez-tian egiten dena da, lan-saioetara joaten diren eragileen konpromisoa eta inplikazioa dituena. Guztiok dakigu partaidetzari dagokionez ez direla emaitza arin eta errazak existitzen. Hori dela eta, garrantzitsua da pixkanaka herritarren eta administrazioaren artean epe luzerako konfiantza-harremana sortzea. Lotura hori aurrez aurreko prozesuen bidez lortzen da bereziki, baina alderdi batzuetan lagungarriak izan daitezkeen tresna digitalak ere baditugu. Jarraian, horietako batzuk aurkeztuko ditugu.

Hasteko, aintzat hartu behar dugu parte hartu nahi duten pertsona guztiek ez dituztela betetzen horretarako baldintzak. Parte hartzeko prozesu bat diseinatzen denean, tailerrak antolatzen dira ordutegi eta leku zehatz batzuetan. Asmoa da ahalik eta jende kopuru handienera iristea, baina ezinezkoa da interesdun guztiak barne hartzea. Ordutegietara (lana, familiarekin bateragarri egitea, etab.) eta lekualdatzeetara (distantzia luzeegiak, garraio publikoaren gabezia, etab.) lotutako arazoak dira sarrien aipatzen direnak saioetara ez joateko. Baina, beste kasu batzuetan, baliteke pertsona batzuek euren burua gai ez ikustea jendaurrean hitz egiteko, eta euren iritzia dagokion mailan egongo ez dela pentsatzen duten eztabaida batean sartzeko. Uste okerra da hori, iritzi guztiak baliagarriak direlako, adierazteko modua aintzat hartu gabe.

Kasu horietarako, partaidetza elektronikoa oso lagungarria izan dakiguke. Pertsona batzuentzat errazagoa izan daiteke hirigintza-plangintzari buruzko iritzia ematea gauean, etxeko lasaitasunetik, eta ez ordubetera dagoen lan-saio batean. Argi dago kasu horietan eztabaida ez dela maila berean egongo, baina diagnosi bat abiarazteko edo proposamen zehatz batzuk balioztatzeko puntu egokia izan daiteke.

Gainera, tresna digitalak (web plataformak, aplikazioak, etab.) oso lagungarriak izan daitezke herritarren partaidetza eztabaida-prozesuetatik harago sustatzeko edo erabaki publikoetan eragiteko herritarrek eta gizarte-erakundeek sustatutako parte hartzeko ekimenak bultzatzeko (legegintzaren esparruko ekimen publikoak, esate baterako). Eginkizunak oso zabalak izan daitezke, jarduketara zehatz bat eskatzeko pertsonen mobilizazioan edo demokrazian izpiritu kritikoa sustatzeko informazioa ekartzetik, herritarrei aldizka galdetegi edo kontsultak egiteraino.

EUDEL-en (Euskadiko udalen elkarte) “eGobernantza, herritarren partaidetza eta berrikuntza”¹⁵ txostenean abantaila hauek adierazten dira informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeari dagokionez) señala las siguientes ventajas del uso de las tecnologías de información y comunicación:

- ▶ Gardentasuna sustatzea, informazioa eskuratzea ahalbidetzen duten kanalak prestatuz.
- ▶ Elkarreragina eta parte-hartzea susta daiteke, ezagutza partekatu eta sortzeko.
- ▶ Erabakiak hartzeko parte hartzeko prozesuak babestu.
- ▶ Komunitateak eraiki edo identifikatu, eta horietara atxiki.
- ▶ Behatokiak sortu.
- ▶ Erakundeen barne-kudeaketa hobetzea.

Aurkezten dugun hautaketa honetan tresna bakoitzaren funtzio nagusien adibideak bilatzen saiatu gara. Hala ere, aintzat hartu behar dugu, ekintza bakoitzerako, era berean baliagarriak diren beste aukera batzuk badaudela. Horren gain, beste xede batzuetarako diseinatutako aplikazio batzuk ere arrakastaz egokitu daitezke, partaidetzako inguruetara egokitzeko aukera badute. Horren adibide garbia da jarraian azalduko dugun Trello aplikazioa. Hasiera batean proiektuak antolatzeko diseinatu zen, baina Nafarroako hainbat lokaletan partaidetza babesteko erabili da.

15] http://www.eudel.eus/eu/publicaciones/libros/egobernantza_participacion_ciudadana_e_innovacion

Erreferentzia soil gisa, planteatutako tresnak doakoak diren edo ez adierazten da. Kasu gehienak, kode librean (eta hortaz, doakoa) diseinatutako moduluak dira, baina programazioko ekipo profesional baten inplikazioa behar dute martxan jartzeko.

		Informatiboa	Eztabaida	Bozketa	Laguntzeko tresna	Kalitate demokratikoa	Doakoa
01	DemocracyOS	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>			<input checked="" type="checkbox"/>
02	Adhocracy	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>			
03	Consul		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>			<input checked="" type="checkbox"/>
04	Decidim	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>			<input checked="" type="checkbox"/>
05	Consensus	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>			
06	Assembl	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>			
07	Loomio		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>			
08	Appgree		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>			
09	Consider.it			<input checked="" type="checkbox"/>			neurri batean
10	Argüman				<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>
11	Nova-Ideo	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>				<input checked="" type="checkbox"/>
12	LiquidFeedback		<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>			<input checked="" type="checkbox"/>
13	Reddit	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>			<input checked="" type="checkbox"/>
14	nVotes			<input checked="" type="checkbox"/>			
15	Agreedo				<input checked="" type="checkbox"/>		
16	Trello		<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>		<input checked="" type="checkbox"/>
17	Sli.do				<input checked="" type="checkbox"/>		neurri batean
18	Poli.is				<input checked="" type="checkbox"/>		
19	Change.org					<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
20	Osoigo					<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
21	Represent Boundaries					<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>
22	Pombola					<input checked="" type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>



01 | DEMOCRACYOS

INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNAKALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Web plataforma

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

<http://democracyos.org/>

ZERTAN DATZA?

Plataforma hau informaziorako sarbidea, eztabaida eta onlineko bozketak errazteko dago diseinatuta.

Plataformaren bidez eztabaidagai berri bat (DemocracyOS bat) sor daiteke. Jarraian horri buruzko informazio erabilgarria ematen da, eta, ondoren, eztabaida abiatu. Denbora baten buruan bozketa ireki daiteke, amaierako ondorio batera iristeko.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Eztabaida irekiak bozketa batekin amai daitezke. Hortaz, plataforma alderdi hauek lantzen dituen tresna orokorra da:

- ▶ Informazioa
- ▶ Eztabaida
- ▶ Bozketa

Plataforma hau gizarte-erakundeek, herritarren kolektiboek eta erakunde ofizialek (Argentinako Gobernua, Parisko Udala, etab.) erabili izan dute.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Aplikazioa instalatzeari eta eztabaida bat abiatzeari buruzko informazio guztia

<http://docs.democracyos.org/install.html>

ERABILEREN ADIBIDEAK

- ▶ DemocracyOs Frantzia. Frantziako eskola-erreformari buruzko eztabaida_ <http://college.democracyos.eu/>
- ▶ Argentinako Gobernua. Gobernu Irekiko Hirugarren Ekintza Planean jasoko diren helburuei buruzko kontsulta publikoa_ <https://consultapublica.argentina.gob.ar/>
- ▶ Open Knowledge Foundation (Brasil). Sao Paoloko Udal Ganbera izapidetzen ari den lege-proiektuei buruzko eztabaida_ <https://br.okfn.org/euvoto/>
- ▶ Parisko Udala_ <https://crm.paris.fr/2016/> (eztabaida itxia)

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Plataforma GPLv3 kode librean diseinatuta dago eta instalazioa doakoa da.

INFORMAZIO INTERESGARRI GEHIAGO

Aplikazioa instalatzeari eta eztabaida bat abiatzeari buruzko informazio guztia:

<http://docs.democracyos.org/install.html>

02 | ADHOCRACY

INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNA

KALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Liquid Democracy-k Berlinen sortutako web-aplikazioa da.

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

<https://liqd.net/en/software/>

ZERTAN DATZA?

Parte hartzeko prozesu oso baten garapenari heltzen dio.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Prozesu bakoitzerako berezko diseinua du. Hortaz, modulu ezberdinak erabili daitezke, benetako beharrianen arabera.

Funtzio nagusien artean nabarmentzekoak dira hauek: ideia-jasa sortzea, galdetegiak sortzea, eztabaida geolokalizatuak, testuen orrazketa eta agenda komun bat ezartzeko aukera.

ERABILEREN ADIBIDEAK

Mein Berlin. Berlingo Udala

<https://mein.berlin.de/>

Advocate Europe

<https://advocate-europe.eu/>

Opin. Platform for youth eParticipation

<https://opin.me/>

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Tresna hau web independente batean sortzen da; hortaz, domeinu eta zerbitzari erabilgarriak besterik ez dira behar.

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Kode libreak sortutako ordainpeko softwarea da. Tresna prozesuaren arabera aldatzen da; hortaz, prezioa ere alda daiteke.

INFORMAZIO INTERESGARRI GEHIAGO

Adhokrazia terminoak hierarkiarik ezari egiten dio erreferentzia; beraz, taldeko kide guztiek dute erabakiak hartzeko eta ekintzak sortzeko boterea.



INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNA

KALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Web-aplikazioa

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

<http://www.decide.es>

ZERTAN DATZA?

Herritarren artean eztabaida pizteko, proposamenak jasotzeko eta horiek bozkatzeko erabiltzen da. Adibidez, oso erabilgarria izan daiteke parte hartzeko aukera ematen duten aurrekontuak lantzeko.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Erabiltzaileek eztabaidak sortu ditzakete eztabaida-harien bitartez. Eztabaidak guztiek baloratzen dituzte, gai nagusiak nabarmentzeko.

Era berean, proposamenak sortu eta babesak lor daitezke. Babes nahikoa lortzen duten proposamenak bozketa-fasera igarotzen dira.

ERABILEREN ADIBIDEAK

Madrilgo Udala. Decide Madrid

<https://decide.madrid.es/>

Buenos Aireseko Udala

<http://bapc.buenosaires.gob.ar/>

Jaliscoko Udala. Participa Jalisco

<https://participa.jalisco.mx/>

Podemos. Podemos plaza

<https://plaza.podemos.info/>

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Tresna hau web independente batean sortzen da. Hortaz, domeinu eta zerbitzari erabilgarriak besterik ez dira behar.

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Modu librean edo diseinatzaileei laguntza eskatuta instala daiteke. Tresna prozesuaren arabera aldatzen da; hortaz, prezioa ere alda daiteke.

INFORMAZIO INTERESGARRI GEHIAGO

Kode librean (AGPLv3) sortutako softwarea da.

04 | DECIDIM

INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNA

KALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Web-aplikazioa

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

<https://decidim.org/>

ZERTAN DATZA?

Web-aplikazio hau Bartzelonako Udalarentzat diseinatu zen, baina modu librean erabil daiteke.

Edukian fitxa espezifikoak sor daitezke prozesuaren atariko informazioa gehitzeko, proiektuen exekuzio-maila islatzeko edo komentatu eta bozka daitezkeen proposamenak biltzeko.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Webgunea eztabaida birtuala pizteko edo aurrez aurreko partaidetzaren osagarri gisa erabili daiteke.

Parte hartzeko prozesu bakoitzerako inguru birtual oso bat sortzea ahalbidetzen du (informazio- eta eztabaida-fasetik itzulera-faseraino).

ERABILEREN ADIBIDEAK

Bartzelonako Udala. Decidim Barcelona

<https://decidim.barcelona/>

Iruñeko Udala. Erabaki

<https://erabaki.pamplona.es/>

Hospitalet de Llobregateko Udala. I'h-on participa

<https://www.lhon-participa.cat/>

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Tresna hau web independente batean sortzen da. Hortaz, domeinu eta zerbitzari erabilgarriak besterik ez dira behar.

Eskuliburuak eta dokumentazioa esteka honetan daude <https://decidim.org/docs/>

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Kode librean (AGPLv3) sortutako softwarea da, baina web-garapen profesionala behar du.

05 | CONSENSUS

INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNA

KALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Web-aplikazioa

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

Aplikazioa 2002an sortu zuten elkarrekin Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak (CEIA), Kataluniako Teknologia Institutuak (ICT), Localret-ek eta Jaume Bofill Fundazioak. Gaur egun, Clarcats (www.clarcats.com) enpresa arduratzen da webak sortzeaz eta mantentzeaz.

ZERTAN DATZA?

Interneteko tresna interaktiboa da, tokiko eremuko informaziora, kontsultara eta herritarren parte hartzera bideratutakoa. Modu honetan, parte hartzeko aurrez aurreko prozesuak osatzen ditu, informazio eta komunikazio jarraitua erraztuz eta aurrez aurreko partaidetzak erakartzen ez dituen herritarren partaidetza indibiduala edo taldekoa ahalbidetuz.

Hasiera batean 11 udalek parte hartu zuten (Badalona, Barberà del Vallès, Cardedeu, Granollers, Mataró, Rubí, Sabadell, Sant Cugat del Vallès, Sant Feliu de Llobregat, Terrassa eta Vic). Gaur egun, Kataluniako tokiko 100 gobernu baino gehiago atxiki dira Consensus proiektura.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Tresnak oinarri komuna du, baina tokiko erakunde bakoitzaren arabera egokitzen da. Horrela, udal bakoitzak erabaki dezake zer aukera eta funtzionalitate aktibatu edo proposatu nahi dizkien herritarrei:

- ▶ Albisteak. Gertakarien agenda. Osoko bilkuren agenda. Informazio-buletina. Herritarrek parte hartzeko eremuak. Alkate eta zinegotziei gutunak. Sinadura-bilketa. Foroak. Galdetegiak. Estatistikak.

Herritarrek parte hartzeko eremuan parte hartzeko prozesuak sortu eta kudea daitezke. Parte hartzeko prozesu bakoitzak azpi-atalak izan ditzake ("lan-talde" izena dute). Parte hartzeko eremu bakoitzari dokumentu, esteka, foro, galdetegi eta abarrak atxiki dakizkioke. Erabiltzaileek parte hartzeko eremuan izena eman dezakete euren profiletik.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Tokiko erakundeak parte hartzeko prozesurako matrize-webgunea izan beharko du.

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Ordainpeko zerbitzua da.

INFORMAZIO INTERESGARRI GEHIAGO

Web-tresna hau diseinatzeko eta sortzeko denbora behar da. Eskuarki, web hauek sortu aurretik barneko bilerak egiten dira, funtzionalitateak definitzeko. Hortaz, zenbait hilabete behar dira.

Tresna Joomla!-n programatuta dago. Kode irekiko lengoia kolaboratiboa darabil. Horrek esan nahi du mundu osoan esperientzia berriak sortzen laguntzen duela.

06 | ASSEMBL

INFORMATIVA

DEBATE

VOTACIÓN

HERRAMIENTA DE
APOYO

CALIDAD
DEMOCRÁTICA

GRATUITA

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Web-plataforma

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

<http://assembl.blunove.com/>

ZERTAN DATZA?

Web-plataforma honen bidez hasierako printzipioak partekatu, ideiak eta proposamenak jaso, eztabai-datu eta amaierako leheneste-lana egin daiteke.

Webgune soil batetik harago doa eta rol ezberdinak ezartzen ditu proiektuan inplikaturako pertsonentzat. Horrela, aurrez aurreko saioetan dinamizatzaileak eta iritziak egituratu eta antolatzeko laguntzaileak daude (aurrez aurre eta online), ideia guztiak jasotzeko. Mezuen antolaketa jarraituak zarata ezabatu eta partaideengan jartzen du fokua.

Planteaturako prozesuek, gutxi gorabehera, 2 eta 4 hilabete artean irauten dute.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Metodologia honi esker, parte hartzeko prozesu oso bat diseina dezakegu, aurrez aurreko saioak partaidetza elektronikorekin uztartuta.

ERABILEREN ADIBIDEAK

La Tribune. Cities for life

<https://assembl-civic.blunove.com/debate/citiesforlife>

Hezkuntzaren arloan I+Gari buruzko "Aprendizaje del mañana" (Etorkizuneko ikaskuntza) kontsulta

<https://assembl-civic.blunove.com/debate/apprendredemain>

Parisko etorkizunari buruzko eztabaida (Horizonte 2020)

<https://atelier.bnpparibas/smart-city/article/parisiens-contribution-penser-ville>

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Enpresa arduratuko da prozesu osoa bideratzeaz. Hortaz, zuzenean jarri behar da haiekin harremanetan, betekizunak ezagutzeko.

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Enpresa baten eskaintza komertzialaren barruan dago. Beraz, ordainpeko zerbitzua da.

INFORMAZIO INTERESGARRI GEHIAGO

AGPLan sortutako kode irekiko softwarea erabilita diseinatuta dago.

07 | LOOMIO

INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNA

KALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Web-plataforma

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

<https://www.loomio.org/>

ZERTAN DATZA?

Loomio eztabaida-taldeak sortzera bideratutako plataforma komertziala da.

Erabiltzaileek eztabaidak abiarazi eta proposamenak gauza ditzakete, taldeko gainerako kideek balora ditzaten. Partaideek aukera hauek dituzte: ados egon, ados ez egon, abstenitu edo blokeatu (muturreko ezadostasunetan).

Eztabaidak aurrera egin ahala, laburpen automatikoak jasotzen dira, grafikoki irudikatuta.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Tresna erabilgarria da eztabaida sortzeko, baina, batez ere, ondorioak ateratzeko eta bozketen ondoren erabakiak hartzeko.

ERABILEREN ADIBIDEAK

Débatte, organiser et prendre des décisions sur les grandes lignes de #MaVoix

<https://www.loomio.org/g/ufSdRiw6/-mavoix>

Podemos taldearen partaidetzari buruzko eztabaida-foroa

<https://www.loomio.org/g/5AksWhmp/podemos-grupo-de-trabajo-sobre-participaci-n>

Frantziako Pirata Alderdiaren barneko foroa

<https://www.loomio.org/g/gH87bTVn/parti-pirate-france>

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Tresna soila da. Kontuaren alta eman ondoren, talde bat ireki eta partaideak gonbidatu behar ditugu. Horiek ere erregistratu beharko dute. Egokitzen jotzen bada, eztabaida irekitzeko taldea publikoa izan daiteke.

Ez da programarik instalatu behar.

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Enpresa baten eskaintza komertzialaren barruan dago. Beraz, ordainpeko zerbitzua da.

INFORMAZIO INTERESGARRI GEHIAGO

Kode libreko softwarea erabilia diseinatuta dago.

08 | APPGREE

INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNA

KALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Mugikorrerako aplikazioa eta plataforma mugikorra.

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

<http://www.appgree.com>

<https://play.google.com/store/apps/details?id=com.mooncasttv.app.appgree&hl=es>

<https://itunes.apple.com/es/app/appgree/id606270279?mt=8>

ZERTAN DATZA?

Web eta mugikorrerako plataforma honi esker, talde handi baten eztabaidak eta proposamenak bidera daitezke.

Erabiltzaile bakoitzak algoritmo estatistiko baten arabera (DemoRank) jasotzen dituen galderi buruzko iritzia eman dezake. Algoritmo horrek ausaz hautatzen ditu taldea osatuko duten kideak. Partaideak taldeetan banatzen dira, ausaz, eta proposamen batzuk baloratzen dituzte. Aurretik adierazi bezala, onartu egiten da talde horrek erabiltzaile guztiak ordezkatzeko dituela. Hau da, partaideek ez dituzte proposamen guztiak ikusten, baizik eta horien azpimultzo bat.

Azkenik, gehien baloratutako proposamenak berriro bozkatzen dira (talde bakoitzeko gero eta pertsona gehiagoren aldetik), eta, azkenean, boto gehien dituen talde osoari aurkezten zaio, horri buruzko iritzia eman dezan.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Hau ez da eztabaidarako tresna bat. Hortaz, bere erabilera nagusia proposamen askoren artean bozketa bidez erabakiak hartzea da.

Sistemaren abantailak bozketen arintasuna eta partaideei ahalegin oso txikia eskatuta egin daitekeen proposamenen kopuru handia dira.

ERABILEREN ADIBIDEAK

Podemos _ <https://app.appgree.com/app/talk/856447843055968257.html>

Equo eta Guanyem (Bartzelona), app-ean bakarrik erabilgarri

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Aplikazioak garapen- eta mantentze-lan espezifikoak behar ditu. Hortaz, beharrezkoa da plataforma kudeatzen duen enpresarekin harremanetan jartzea.

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Ordainpeko zerbitzua da.

INFORMAZIO INTERESGARRI GEHIAGO

Aplikazio honek enpresei zuzendutako bertsio bat dauka (Appgree 4Biz), produktu edo zerbitzuei buruzko iritzia aztertzeko.



INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNA

KALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA
(neurri batean)

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Web-plataforma

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

<https://consider.it>

ZERTAN DATZA?

Consider.it plataformaren bidez foro batean proposatutako baieztapenetan oinarritutako iritzia jaso daiteke.

Foro bat sortzen da hainbat baieztapen edo proposamenekin, eta parte hartzeko gonbidapena egiten zaie interesekotzat hartutako pertsona edo erakundeei. Bada, horietako bakoitzak proposamenekiko adostasun-maila adieraz dezake. Gainera, norberaren jarrera indartzeko, iruzkinak egin daitezke.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Consider.it plataformako webgunean esaten da eztabaidarako tresna bat dela. Hala ere, ezin zaie beste partaideen iritziei erantzun eta erantzunak ezin dira indartu. Hori dela eta, bereziki erabilgarria da iritzia jaso eta emaitza jasotako botoen arabera haztatzeko.

ERABILEREN ADIBIDEAK

City of Seattle. Etxebizitzaren eskuragarritasunari eta bizigarritasunari buruzko kontsulta.

<https://hala.consider.it/?tab=Feedback%20on%20key%20principles>

NASA. Asteroid Initiative.

<https://ecastonline.consider.it/>

Washington Sustainable Food and Farming Network. Plan estrategikoa.

<https://wsffn.consider.it/>

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Web hau modu espezifikoan sortzen da kasu bakoitzerako. Beraz, beharrezkoa da enpresa kudeatzailearekin harremanetan jartzea.

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Doako bertsio erraz bat du, baina bertsio operatiboetan jasotako iritzi-kopuruaren arabera fakturatzen da.

INFORMAZIO INTERESGARRI GEHIAGO

AGPL kode librea diseinatuta.

10 | ARGÜMAN

INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNA

KALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Web-plataforma

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

<http://es.arguman.org/>

ZERTAN DATZA?

Argüman argumentuen analisira eta iritzi eta argumentuen mapaketara zuzendutako web-plataforma da.

Webean planteatutako baieztapenak aurkaratu edo argumenta daitezke, hiru ikuspegi hauen arabera: “zeren”, “baina” eta “hala ere”. Horrela, arrazoieta-zuhaitz batzuk sortzen dira, eta horiek erabilgarriak dira modu oso bisualean hainbat pertsonaren iritzia ezagutzeko.

Gainera, partaideek besteen argumentuak babes ditzakete.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Tresna hau jarrera hartzeko zein hasierako eztabaida-fasean aplika dezakete partaideek. Ez ditu eztabaida arinak sortzen. Hala ere, arrazoieta ordenatua eta horren aurkezpen argia sustatzen ditu.

ERABILEREN ADIBIDEAK

<http://en.arguman.org/there-is-no-such-thing-as-global-warming>

<http://en.arguman.org/a-vegan-diet-is-the-most-ethically-viable>

<http://es.arguman.org/la-renta-basica-universal-incondicional-es-aplicable-en-espana>

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Tresna hau webetik bertatik erabil daiteke bakarrik. Hala ere, estekak gehi daitezke webgunetik bertatik.

Zerbitzura sartzeko, premisak aurkezteko eta iritzia emateko, webean erregistratzea beharrezkoa da (oso erraza da).

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Doakoa da.

INFORMAZIO INTERESGARRI GEHIAGO

Kode irekian sortuta dago.

Garatzen jarraitzeko laguntza eman daiteke esteka honetan <https://github.com/arguman>

11 | NOVA-IDEO

INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNA

KALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Web-tresna eta -aplikazioa

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

<https://www.nova-ideo.com/>

<https://play.google.com/store/apps/details?id=com.ecreall.novaideo>

<https://itunes.apple.com/us/app/nova-ideo/id1284889284?mt=8>

ZERTAN DATZA?

Tresna honen bidez kolektibo baten iritzi eta proposamenak jaso daitezke hasierako planteamendu bati eta gainerako kideen ekarpenei buruz. Gainera, baterako dokumentuak sortzea eta ondoren horiek baloratzea errazten du.

Ekarpenetan dokumentu osagarriak atxiki daitezke.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Eztabaida-fasean eta edukiak elkarrekin sortzeko fasean erabil daiteke.

ERABILEREN ADIBIDEAK

APFY. APFY (Association Francophone Python) hitzaldiak hobeto antolatzeko ideiak eta proposamenak. Barneko eztabaida.

Beyondlab. Barneko eztabaida.

Grupo Engie (GDF-Suez). Barne-iradokizunetarako postontzia.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Doako bertsio soila erabiltzen bada, partaideak webean erregistratu eta eztabaida-eremua zabaldu behar da bakarrik. Ordainpeko bertsiorako, aldiz, weba kokatzeko domeinu bat beharko da.

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Ordainpeko zerbitzua da, baina izaera publikoko doako bertsio bat ere badago, eta oso funtzionala da (eztabaida itxiko saioak lortzeko oinarritzko bertsioan harpidetu behar da). Ordainpeko bertsioan erabiltzaile bakoitzak diru-sarrera bat egin behar du.

INFORMAZIO INTERESGARRI GEHIAGO

Software librea (AGPLv3+) diseinatutako tresna da.

Kodea esteka honetan deskargatu daiteke <https://github.com/ecreall/nova-ideo/>

12 | LIQUIDFEEDBACK

INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNA

KALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Web-plataforma

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

<http://liquidfeedback.org>

ZERTAN DATZA?

PModeratzailerik gabeko eztabaidarako plataforma da. Webaren arabera, sistema gutxiengo zaratatsuek eztabaida-prozesuan beste gutxiengoak ez kaltetzeko moduan diseinatuta dago.

Erabiltzaileak gaika sailkatutako proposamenak (ekimenak) bidal ditzakete, horiek baloratu eta bozka daitezten. Era berean, daudenekiko proposamen alternatiboak bidal daitezke.

Eztabaidaren ostean, bozketa bat antolatzen da epe zehaztuekin, pertsona guztiek sarbidea izan dezaten. Hala ere, gure botoa konfiantzazko pertsona bati eskuordetzeko aukera dago.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Proposamenak sortzeko eta erabakiak hartzeko.

ERABILEREN ADIBIDEAK

Alemanian Pirata Alderdian barne-eztabaidetarako erabiltzen da.

<https://www.piratenpad.de/>

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Softwarea instalatzeko profesional baten laguntza behar da.

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Kode irekian sortutako doako plataforma da.

Hona hemen sartzeko esteka <http://www.public-software-group.org/mercurial>

INFORMAZIO INTERESGARRI GEHIAGO

Webaren programatzaileek prestakuntza, aholkularitza eta web-ostatatzearen arloko zerbitzu osagarriak eskaintzen dituzte hemen <http://www.liquidfeedback.com/>



13 | REDDIT

INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNAKALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Web-plataforma eta aplikazio mugikorra

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

<https://www.reddit.com/>

<https://play.google.com/store/apps/details?id=com.reddit.frontpage&hl=es>

<https://itunes.apple.com/us/app/reddit-official-trending-news/id1064216828?mt=8>

ZERTAN DATZA?

Web-foroaren formatu tradizionaleko eztabaida-eremua da, zeinaren bidez pertsona askorengana hel daiteke.

Erabiltzaile guztiek abiarazi dezakete hari bat ekarpen batekin (testua, bideoa, irudia, etab.). Eta gainerako pertsonak interesgarria iruditzen zaien bozka dezakete. Bidalketa batek kontrako boto negatibo asko baditu, esteka ez da orrialde nagusian ateratzen. Hala ere, irakurleek bertan sartzeko aukera izango dute, esteka baten bidez edo lehentasunak doituta.

Gainera, iruzkinak egin dakizkioke hasierako ekarpenari. Era berean, erabiltzaile bakoitzaren ekarpenak bozka daitezke, adostasuna edo adostasun eza adierazteko.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Tresna baliagarria da eztabaida sortzeko eta ongi arrazoituta iritziak jasotzeko. Jatorrizko diseinua praktikoa da, baina ez da oso erakargarria foroetara oso ohituta ez dauden pertsonentzako.

ERABILEREN ADIBIDEAK

Podemos

<https://www.reddit.com/r/podemos/>

*Washington Post*eko albiste bati eginiko ekarpenak.

https://www.reddit.com/r/worldnews/comments/7prke8/trump_attacks_protections_for_immigrants_from/

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Zuzenean parte hartu daiteke webgune nagusitik, baina kode libreria ere sar daiteke, foroa berezko helbide batean berregiteko.

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Doakoa da.

INFORMAZIO INTERESGARRI GEHIAGO

Foroa kode librean sortu da, eta hemen deskarga daiteke webetan txertatzeko: <https://github.com/reddit/reddit/wiki>

14 INVOTES

INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNA

KALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Web-plataforma

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

<https://nvotes.com>

ZERTAN DATZA?

Bozketa elektronikoko eremuak sortzea ahalbidetzen du. autentifikazio-metodo, bozketa-sistema eta boto-paperen diseinu ezberdinen artean hauta daiteke. Halaber, horren bidez errolda kudea daiteke, kode espezifikoko gonbidapenak bidaltzeko.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Bozketa elektronikoetarako

ERABILEREN ADIBIDEAK

Bozketa itxiak direnez, ezin da adibiderik erakutsi. Erreferentzia gisa, adieraz dezakegu erakunde hauek erabili dutela: Bartzelonako Diputazioak, Lugoko eta Madrilgo udalek, eta Som Energia kooperatibak.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Enpresa diseinatzaileak kudeatzen du prozesu osoa.

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Aurreikusitako boto-emileen kopuruaren araberako ordainketa aldakorreko tresna bat da.

INFORMAZIO INTERESGARRI GEHIAGO

Lehen, Agora Voting zen aplikazioaren izena.

15 | AGREEDO

INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNA

KALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Web-tresna

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

<https://www.agreedo.com/es/index.html>

ZERTAN DATZA?

Bilerak modu eraginkorrean antolatu, gauzatu eta jarraitzera bideratutako tresna da.

Aplikazioak hainbat funtzio ditu, eguneko gai-zerrenda sortu eta bidaltzetik (agenda digitalean gehitzen du) akta sinpleak modu automatikoan sortzeraino. Bileraren ostean, esleitutako eginkizunen jarraipena egin eta ekintzak berrikus daitezke.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Bilerak antolatu eta jarraitzeko.

ERABILEREN ADIBIDEAK

Erabilera pribatuak dira, eta, hortaz, ezin dira adibideak erakutsi.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Web-nabigatzaileetan oinarrituta egiten du lan. Hortaz, erregistro bat besterik ez da erabili behar.

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Ordainpeko tresna bat da, baina hasierako frogak egiteko erabilgarria den oinarritzko bertsio bat ere badu.

16 | TRELLO

INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNA

KALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Web-tresna eta mugikorrerako aplikazioa

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

<https://trello.com/>

<https://play.google.com/store/apps/details?id=com.trello&hl=es>

<https://itunes.apple.com/es/app/trello/id461504587?mt=8>

ZERTAN DATZA?

Hasiera batean partekatutako proiektuen kudeatzaile gisa definitutako aplikazio honek hainbat gairen araberako (zerrendak) ekarpenen (txartelak) bilketa kudea ditzake.

Txartel bakoitzak artxibo atxikiak edo etiketak har ditzake barne.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Eztabaidarako erabil daiteke, baina bereziki erabilgarria da ideia eta proposamen errazak sortzeko.

ERABILEREN ADIBIDEAK

Saio pribatuak direnez, ezin dira adibide zehatzak erakutsi, baina adibidean funtzionamendua ikus daiteke: <https://trello.com/ejemplosdeboards>

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Aplikazioa web-nabigatzailetik edo mugikorretatik (aplikazioa deskargatuta) erabil daiteke. Horretarako, erregistratu besterik ez da egin behar.

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Doakoa da

INFORMAZIO INTERESGARRI GEHIAGO

Doako tresna da. Erabiltzeko erraza da, baina beharrezkoa da partaideak aplikazio horiek erabiltzera ohituta egotea.

17 | SLI.DO

INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNA

KALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA
(neurri batea)

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Web eta mugikorrerako plataforma

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

<https://www.sli.do/>

https://play.google.com/store/apps/details?id=com.slido.app&hl=es_419

<https://itunes.apple.com/us/app/sli-do/id954596240?mt=8>

ZERTAN DATZA?

Web-plataforma hau denbora errealeko iritziak jasotzera bideratuta dago. Gainera, ekitaldi batean partaideentzako galdetegiak edo sortzen diren Twitterreko etiketak gehitzea ahalbidetzen du. Bertaratuak ekitaldiaren web-esteka batean sartzen dira eta denbora errealean galderak bidaltzeko, beste bertaratu batzuek eginiko galderak bozkatzeko edo galdetegiak erantzuteko aukera dute.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Parte hartzeko prozesuetako informazio-saiotetan eginiko galderak dinamizatzeko.

ERABILEREN ADIBIDEAK

<https://www.sli.do/use-cases>

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Erabiltzaileek web edo mugikorreko aplikazioaren bidez ekitaldiaren eremuan sartu behar dute bakarrik.

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Antolatzeko alta eman eta agertzen diren preziopeko planen bat hautatu behar da. Kasu honetan ere doako bertsio bat dago, baina ez da % 100 eraginkor.

18 | POLI.IS

INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNA

KALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Web-modulua

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

<http://timeline.knightlab.com/>

ZERTAN DATZA?

Web-modulu honen bidez prozesu baten gertakari nagusiak jasotzen dituen denbora-lerro bat ikus daiteke.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Parte hartzeko prozesuetara informazio osagarria gehitzea ahalbidetzen du.

Gainera, item bakoitzari buruzko iritziak sortzea ahalbidetzen duten moduluak daude. Hau da, ikuspegi edo proposamen berriak jasotzeko modu egokia da.

ERABILEREN ADIBIDEAK

Nanterreko Udala. Participez Nanterre

<http://participez.nanterre.fr/>

Time. Nelson Mandela

<http://world.time.com/2013/12/05/nelson-mandelas-extraordinary-life-an-interactive-timeline/>

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Moduluak ongi funtzionatzen du edozein webgunetan, eta oso erraz instala daiteke Google Driveko txantiloien bidez. Jakina, webaren diseinurako sarbidea izan behar da.

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Doakoa da.

INFORMAZIO INTERESGARRI GEHIAGO

Modulua kode libreak (Mozilla Public License, MPL) programatuta dago, eta, horrenbestez, doakoa da.



INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNA

KALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Web-plataforma

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

www.change.org

ZERTAN DATZA?

Plataforma honetan edozein erabiltzailek ireki dezake pertsona edo erakunde zehatz bati zuzendutako eskabide bat. Ondoren, partaideek bat egin dezakete. Eskabidea zuzentzen zaien pertsonen plataformatik bertatik erantzun diezaiekete argudioei.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Kanpainak sortzeko, erabakiak hartzen dituzten pertsonengan eragiteko eta jarraitzaileak mobilizatzeko.

ERABILEREN ADIBIDEAK

Autobus irisgarriak Madrilen

<https://www.change.org/p/autobuses-accesibles-para-madrid-ya>

Ez nazazue Espainiatik bota! Larria da

<https://www.change.org/p/no-me-echen-de-espa%C3%B1a-es-urgente-interiorgob-maec-gob-denme-mi-permiso-de-residencia-mousequeda>

Minbiziaren aurkako ikerkuntza Granadako Unibertsitatean.

<https://www.change.org/p/financiaci%C3%B3n-para-este-prometedor-proyecto-de-investigaci%C3%B3n-contr-el-c%C3%A1ncer-ya>

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Ez da inolako instalazio edo ekintza konplexurik egin behar. Betekizun bakarra webean izena ematea da.

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Plataformaren erabilera doakoa da, baina funtzionamendua babesteko kideak onartzen ditu.

20 | OSOIGO

INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNA

KALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Web-plataforma

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

<https://www.osoigo.com/>

ZERTAN DATZA?

Osoigo ordezkari politikoen eta herritarren artean zubiak eraikitze diseinatutako web-plataforma da. Erabiltzaileak proiektuan parte hartzen duten politikariei zuzendu ahal zaizkie eta eztabaida ireki bat abiarazteko galderak egin ditzakete.

Politikarien erantzuna erregistratutako erabiltzaileek (15.000tik gora) baloratu ditzakete. Gaur egun, talde politikoetako 680 ordezkari daude erregistratuta.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Ezagutza sortzeko eta talde politiko anitzen ahots ezberdinak entzuteko. Parte hartzeko prozesu bat egitean, erabilgarria izan daiteke talde politikoek jarrerak hartzea sustatzeko.

ERABILEREN ADIBIDEAK

Politikariei zuzendutako galderak.

<https://www.osoigo.com/es/listado-politicos/navarra.html>

Eztabaida politikoak. Eztabaida Nafarroako presidentegaiekin

<https://agora.osoigo.com/es/debate-con-los-candidatos-a-la-presidencia-de-navarra.html>

Babesak biltzeko herritarren ekimenak. Trenbidearen ekimena - AHTrik EZ

<https://www.osoigo.com/es/acciones/iniciativa-por-el-tren-aht-ez.html>

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Galderak kontsultatzeko ez da erregistratu behar. Baina, talde politiko edo elkarte gisa parte hartzeko, alta eman behar da.

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Doakoa da.

Elkarte eta politikarientzat jakinarazpenen bidez zerbitzua monetizatzea aurreikusten da.

INFORMAZIO INTERESGARRI GEHIAGO

Euskadin jatorria duen ekimen pribatua da. Orain Latinoamerikara zabaltzen ari da.



21 I REPRESENT BOUNDARIES

INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNAKALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Web-aplikazioa

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

<http://represent.populus.org/>

ZERTAN DATZA?

Web-modulu hau orrialde partikularretan txerta daiteke, ordezkari politiko bakoitzaren eragin-esparruak identifikatzeko. Datu-baseak esparru geografikoetan antolatzea ahalbidetzen du.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Iritziak eta proposamenak jasotzeko fasean osagarri gisa erabil daiteke. Herritarren ekarpenak esparru geografiko bakoitzean benetako eragina duen politikariari zuzenean helaraztea ahalbidetzen du.

ERABILEREN ADIBIDEAK

Civic Impulse. GovTrack

<https://www.govtrack.us/>

Sunlight Foundation. Open States.

<https://openstates.org/>

Open North. Represent API.

<https://represent.opennorth.ca/>

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Modulua zuzenean txertatzen da webean. Horrenbestez, web aktibo bat eta hori aldatzeko beharrezkoak diren baimen guztiak edukitzea da baldintza bakarra.

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Modulua kode librean programatuta dago eta doakoa da.

INFORMAZIO INTERESGARRI GEHIAGO

Antolaketa politikorako sistema ezberdinak direla eta, gehienbat Estatu Batuetan eta Kanadan erabiltzen da. Hala ere, beste eremu batzuetan ere erabil daiteke.

22 | POMBOLA

INFORMATIBOA

EZTABAIDA

BOZKETA

LAGUNTZEKO
TRESNA

KALITATE
DEMOKRATIKOA

DOAKOA

TRESNA-/ESPERIENTZIA-MOTA

Web-aplikazioa

ERREFERENTZIAZKO WEB-HELBIDEA

<https://www.mysociety.org/democracy/pombola/>

ZERTAN DATZA?

UK Citizens Online Democracy-k (UKCOD) Erresuma Batuan Parlamentua monitorizatzeko sortutako softwarea da. Software honen bidez Parlamentuko eztabaidaren jarrerak eta bozketaren emaitzak ikus daitezke.

ZERTARAKO IZAN DAKIGUKE ERABILGARRI? ZEIN EGOERATAN ERABIL DEZAKEGU?

Aplikazioaren bidez Parlamentuko transkripzioak argitaratzen dituzten webguneekin konekta daiteke, politikariei buruzko informazioaren datu-base bat du eta politikari bakoitza bere irakurleriarekin konekta dezake (bai eta mapan kokatu ere).

ERABILEREN ADIBIDEAK

Kenia - Mzalendo

<http://info.mzalendo.com/>

Nigeria - Shine Your Eye

<http://www.shineyoureye.org/>

Sudáfrica - Herri Biltzarra

<http://www.pa.org.za/>

ZER IZAN BEHAR DUGU PREST?

Tresna hau web independente batean sortzen da. Hortaz, domeinu eta zerbitzari erabilgarriak besterik ez dira behar.

ZERBITZUAREN / APLIKAZIOAREN KOSTUA

Modulua kode librea programatuta dago eta doakoa da, baina instalazio eta garapen profesionalak behar ditu.

INFORMAZIO INTERESGARRI GEHIAGO

Aplikazioa Kenian sortu eta gehienbat Saharaz hegoaldeko Afrikan aplikatu da.



5 | PARTAIDETZA-PROZESU BAT DISEINATZEKO AHOLKUAK

NON KOKATZEN DITUGU AHOLKU HAUEK

Kapitulu honetan kontatuko duguna partaidetza instituzionalaren esparruan kokatzen da (gure kasuan, Nafarroako Gobernuak edo toki erakundeek sustatutako partaidetza, herritarrak erabaki publikoetan barne hartzeko), eta bi kategoria bereiz ditzakegu: izaera organikoa eta egonkorra duena, eta izaera funtzionala eta aldi baterakoa duena. Partaidetza organikoaren eta egonkorraren barruan kide anitzeko organoak daude, eta partaidetza funtzionala eta aldi baterakoan parte hartzeko prozesuak nabarmentzen dira.

Kasu honetan parte hartzeko prozesuetan zentratuko gara; planak, programak edo araudiak egin, garatu eta ebaluatzeari lotutako aldi baterako partaidetza-ekimenetan. Hala ere, dokumentu honetan deskribatzen diren gomendio eta teknika batzuk oso erabilgarriak izan daitezke, halaber, kide anitzeko organoen lanerako. Izan ere, esparru horretan ere (orain arte oso ohikoa ez izan arren) eztabaidara irekita dauden eta sortzaileagoak diren lan-metodologia berriak erabil daitezke.

Orrialde hauetan ez dugu prozesu-mota horiek planifikatzeko gida bat jaso nahi, hori ez baita gure helburua. Hala ere, jarraibide metodologiko batzuk proposatu nahi ditugu. Horien laguntzarekin egoeran kokatuko gara prozesuak planifikatu behar ditugunean, mahaiaren gainean parte hartzeko prozesuak dinamizatzeko tekniken katalogoa jarri aurretik.

Hori lortzeko, mota horretako prozesu bat egituratzen duten faseen sekuentzian oinarritzen gara, "Nafarroako Gobernuko plan, programa eta/edo araudietara lotutako parte hartzeko prozesuak planifikatu eta exekutatzeko gidan" jasotzen denarekin bat. Gomendiook emateko, fase hauek hartu ditugu oinarri:

- ▶ **1. fasea:** parte hartzeko prozesua diseinatzeko hasi aurreko erabakiak
- ▶ **2. fasea:** parte hartzeko prozesua diseinatzea
- ▶ **3. fasea:** prozesua garatzea
- ▶ **4. fasea:** jasotako proposamenak aztertzea eta erakunde sustatzaileak hartutako erabakiak berri hartzea. Plan, programa edo araudia onestea eta zabaltzea.
- ▶ **5. fasea:** exekuzioa eta ebaluazioa

1. FASEA/HASIERA: ALDEZ AURREKO ERABAKIAK

Lehenengo pausoa da honako hauek baloratzea: gure kasu zehatza, partaidetzak ekar ditzakeen abantaila eta aukerak, eta horien egokitasuna (bai eta beharrezko diren diren ahalegin eta baliabideak ere). Baloratu ondoren erabakiko dugu plana, programa edo araudia onesteko prozesuan nola jasoko dugun. Erabakitzea gauzatuko dugun planean, programan, proiektuan edo araudian partaidetza jendaurrean jartzeko epera mugatuko den (arudiak hori agintzen baitu) edo alde interesdunen partaidetza sakonagoa bermatzeko bestelako jarduerak/ekintzak gehituko ditugun.

Defendatzen dugu partaidetza administrazio publikoan indarrez sartzea, erabakiak hartzeko eta lan-estrategia gisa. Hala ere, kasu zehatz batzuetan, horien izaeragatik edo esku-hartzearen testuinguruagatik, baliteke parte hartzeko prozesu luzea eta sakona beharrezkoa ez izatea.

ORIENTATZEKO LAGUNGARRI IZAN DAKIZKIGUKEEN ZENBAIT GALDERA

- ▶ 1. Zein testuinguruan garatuko da plana, programa edo araudia? Zer lortu nahi dugu horrekin?
- ▶ 2. Zer eragin nahi genuke testuinguru horretako parte hartzeko prozesu batekin? Planari, programari edo araudiari buruzko erabaki adostuak hartu ahal izateko eztabaida? Iritziak jasotzeko eztabaida? Kontsulta publiko bat egitea?
- ▶ 3. Zer abantaila eta aukera ikusten ditugu gure testuinguruko aukerei dagokienez?
- ▶ 4. Badakigu parte hartzeko prozesu sakon bat egiteko baliabideak eta denbora behar direla, eta horiek erabil ditzakegu?
- ▶ 5. Partaidetza lagungarria izango da plan, programa edo araudi hobea sortzeko? Zein da gure testuingurura ondoen egokitzen den dimentsioa?: Jendurrean jartzeko epeko partaidetza? Edo tartean dauden aldean benetako partaidetza eraginkorreko parte hartzeko prozesua?

Galdera horiei emandako erantzunek hartu beharreko bidean jarriko gaituzte: Kontsulta publiko bat egin nahi badugu bakarrik, eta prozesu sakonagoetarako denbora eta baliabideak ez baditugu, partaidetza jendurrean jartzeko epera mugatuko da. Kasu horretan, Nafarroako Gobernuaren parte bagara, Gobernu Irekiko Zerbitzuarekin jarriko gara harremanetan, prozedura jendurrean jartzeko eta horren ezaugarriak diseinatzeko, eta parte hartzeko prozesuaren webgunearen edukia eta diseinua adosteko.

Aldiz, gizartearen iritzia, kezka eta ezagutzak integratu nahi ditugula erantzun badugu, eztabaida eta/edo kontsultarako prozesu sakonagoak sustatu nahi baditugu, gure plana eta martxan jartzeko prozesua eztabaidarako benetako eremuak eta/edo eremu birtualak gehituta hobe badaiteke, partaidetza instituzionaleko prozesu batez ari gara. Kasu horretan, ri jakinaraziko diogu, Nafarroako Gobernuaren parte bagara; bestela, tokiko erakunde bat ordezkatzeko badugu, laguntza eskatu ahal diegu.

PARTE HARTZEKO PROZESU SAKON BAT ABIARAZI NAHI DUGULA PENTSATZEKO ARRAZOI GAKO BATZUK

- ▶ Landuko diren gaiak buruz adostasun gutxi badago edo gaiak eztabaida sozial handia sor badezakete.
- ▶ Planak, programak edo araudiak erabaki hobek hartzea ahalbidetuko diguten diskurtsoak eta ezagutzak integratzeko eskatzen badu.
- ▶ Gai horri buruz eztabaida eta ulerkuntza kolektiboa piztea garrantzitsua bada.
- ▶ Mahaiaren gainean jarriko diren auziak (bai eta horien ondorengo exekuzioak ere) hainbat sektore eta gizarte-eragileren konplizitatea eta inplikazioa eskatzen badute.
- ▶ Herritarrak inplikatze beharrez berezia badago.
- ▶ Baliabideak eta denbora baditugu.

2. FASEA/ BIGARREN KOXKA: PARTE HARTZEKO PROZESUA DISEINATzea

Oraingoan beste erabaki bat hartu behar dugu: nola osatuko da planaren, programaren edo araudiaren lehen zirriborria? Bi aukera daude::

- ▶ Erakundeak zirriborria egitea bere talde teknikoarekin edo kanpoko laguntzarekin, baina parte hartzeko prozesurik edo alde aurreko kontsultarik egin gabe.
- ▶ Erakundeak parte hartzeko alde aurreko prozesu bat irekitzea planaren, programaren edo araudiaren zirriborria egiteko.

Lehenengo zirriborria partaidetzaren bidez idaztea erabakitzen badugu, kontuz ibili behar dugu ondoren irekitako parte hartzeko prozesua ez mugatzean edo baliogabetzean. Kasu honetan, beharrezkoa litzateke bereziki garrantzitsuak diren erakundeak gonbidatzea (gaian zuzenean inplikatuta daudenak). Ohartarazi behar genieke prozesuaren helburua interes orokorrera zuzendutako proposamenak jasotzea

dela, aldarrikapen eta eskaera partikularretatik harago. Horrela, zirriborroa alderdien interesak biltzera bideratutako negoziazioaren emaitza hutsa izatea eta ikuspegi orokorra galtzea saihestuko dugu. Parte hartzeko bi txanda egitean, beste arazo bat baloratu beharko dugu: partaideak eta erakundeak inplikatu dituzten eztabaidak eta deliberazioak ez daitezela bikoiztu. Izan ere, hala bada, partaidetza oso neketsua izan daiteke.

Bi kasuetan, prozesua diseinatzeko jarraian laburtzen ditugun oinarriko gomendio hauek aintzat hartzea komeni da:

- ▶ Hasteko, prozesura gonbidatuko ditugun **erakundeak eta pertsonak identifikatuko** ditugu, **deialdi** egokia egiteko. Bertan islatuta egon beharko dira prozesuan paper garrantzitsua jokatzen duten sentsibilitate, diskurtso, ezagutza eta interes guztiak.
- ▶ Jarraian, gauden testuinguru sozial, ekonomiko, ambiental, kultural eta abarren alde aurreko analisi bat egingo dugu, etorkizuneko esku-hartzearen jarduketa-eremuaren arabera alderdi horietako bata edo bestea gehiago nabarmenduz. Eginkizun hori oso lagungarria da. Analisi honek ahalbidetzen digu eragile gakoak (garrantzi, ordezkaritasun edo gizartean duten pisua dela eta parte hartzeko prozesuan aintzat hartu behar direnak) definitzen joatea. Aldez aurreko diagnosi hori egiteko, **dokumentazio-iturriak** aztertu, **inkestak** egin **edo elkarrizketa sakonetara** jo dezakegu. Elkarrizketa sakonak ikerkuntza sozialeko teknika bat dira eta erdi-egituratutako elkarrizketa baten bidez informazio-bilaketa erraztu eta antolatu egiten dute. Elkarrizketa horiek prozesuan ezinbestekoak izan daitezkeen aktoreei egiten zaizkie, gaien tartean dauden beste sektore, eragile edo erakundeei buruzko informazioa eman diezaguten.
- ▶ Azterlan horren emaitzarekin "**mapa soziala**" delakoa (ik. 27. fitxa) sortuko dugu, ikerkuntza sozialeko oinarriko tresna. Aztergai inplikaturik dauden gizarte-aktore nagusiak identifikatzeko erabiltzen da, eta aktore horien arteko harreman-mota edo gatazka potentzialei buruzko informazioa ematen digu. Laburbilduz, tresna horrek gai jakin bati dagokionez unean bertan gertatzen denaren panoramika eskaintzen digu, eta erabilgarri izan dakiguke parte hartzeko prozesuaren hainbat fasetan.
Testuinguruaren arabera eta esku-hartzearen irismena eta horrek dakartzan gatazka sozial esplizitu edo estaliak aintzat hartuta, mapa sozial hori modu erraz eta informalean sortuko dugu, edo horretarako kanpoko laguntza eskatu. Kanpoko laguntzari esker, prozesuaren esparrua hobeto ezagutu ahal izango dugu: gaiaren inguruko jarrera eta diskurtso ezberdinak, gizarte-eragileen arteko harremanak, jokoan dauden aldagai politiko eta ekonomikoak, etab. Beharrezkoa izan daiteke, adibidez, proiektu edo azpiegitura handien kasuan, bereziki edozein ekimenen aurkako hasierako oposizioa aurreikus-
tzen dugunean.
- ▶ Partaidetza eskatzen duen edozein prozesu diseinatzen denean argi izan beharreko **galdera** batzuk erantzun beharko ditugu:
 - Zein **fase** bereiziko ditugu plan, programa edo araudia sortzeko gure partaidetza-prozesuan? Eskuarki, bi fase bereiz ditzakegu argi eta garbi: abiapuntuko egoerari buruzko diagnostia gauzatzea (zerk funtzionatzen duen eta zerk ez ezagutzea ahalbidetu digu) eta plan, proiektu, programa edo araudi batean laburtu eta jasotzen diren proposamenak egitea.
 - Zer-nolako partaidetza-saioak** egingo ditugu fase bakoitzean?: aurkezpen-jardunaldiak, sektoreko eta/edo sektorearteko eztabaida-mahaiak, mahai tematikoak, lurralde-bilerak (auzoka, udalerrika, eskualdeka), informazio-foroak, itzultzeko jardunaldiak....
 - Egitura horietako bakoitzaren **zenbat bilera** antolatuko ditugu prozesuko fase bakoitzean eta guztira?
 - Zer-nolako garrantzia izango du **partaidetza birtualak** gure prozesuan? Prozesurako ekarpenak jasotzeko euskarri birtualen bat sortuko dugu? Zer-nolako tratamendua jasoko dute ekarpen horiek?
 - Nola egingo ditugu **deialdiak**? Deialdi irekiak izango dira edo eragile edo erakunde zehatzetara mugatutakoak? Zein izango dira irekiak eta zein itxiak? Denbora nahikoa dugu

deialdiak egiteko? Zer bitarteko erabiliko ditugu deialdiak egiteko? Azken orduko oroigarria egingo dugu, adibidez, WhatsApp bidez?

- ☑ Nola **komunikatu eta informatuko** dugu prozesuari buruz? Webgune bat sortuko dugu egutegia, aktak, informazio osagarria, etab. jasotzeko? Prozesuari buruzko informazio-/dibulgazio-materialen bat sortuko dugu? Planaren, programaren edo araudiaren lehen zirriborro bat badugu, dibulgazio-bertsio bat egingo dugu? Bilerei dagokienez... zer-nolako informazioa eta zein formatuan emango diegu partaideei?
- ☑ Zer-nolako lekua izango du **integrazioak** gure parte hartzeko prozesuan? Adin-talde zehatzetarako (haurrak, gazteak, nagusiak...) jarduera espezifikoak sortuko ditugu? Genero-ikuspegia modu espezifikoan aintzat hartuko dugu?
- ☑ Aurrekoa ikusita, zenbat **denbora** iraungo du prozesuak guztira? Hilabete, bi hilabete, urte erdi, urtebete? Gutxi gorabeherako egutegi bat egin beharko dugu aurreikusten ditugun fase eta jarduerak jasotzeko.
- ☑ Zer-nolako **espazioak** hautatu ditugu bilerak egiteko? Espazio eroso eta atseginak dira, eta beharrezko bitartekoak dituzte? Karga edo esanahi sinbolikoren bat dute deitutako pertsonentzat? Hala bada, karga horrek prozesua kaltetzen du edo mesede egiten dio?

Galdera horiei erantzuten joateko egokiena da modu orokorrean egitea, egindako alde zehatzak oinarri hartuta. Garrantzitsua da parte hartzeko esparru edo jarduerak ez irekitzea prozesua planifikatu eta diseinatu aurretik, argi izateko nora iritsi nahi dugun eta nola lortuko dugun hori.

PROZESUAREN KALITATEA HOBETZEKO AHOLKUAK

- ▶ **Gure prozesuko helburuei buruz**
Parte hartzeko prozesuaren helburuek argiak eta garrantzitsuak izan behar dute. Gure prozesuak eztabaidara, proposamenetara eta aukeren ebaluaziora irekita egon behar du.
- ▶ **Helburu horiek babesteari buruz:**
Prozesuko arduradun politiko eta teknikoek babesak, helburuei dagokienez, prozesuaren kalitatean eragiten du.
- ▶ **Hastapen hauetan dimentsio soziala barneratzeari buruz:**
Helburuak zehaztean aintzat hartu behar dira martxan jarriko den planari, programari edo araudiari dagokionez dauden hasierako kezka sozialak.
- ▶ **Partaideei buruz:**
Ziurtatu behar dugu partaidetza inklusiboa izatea eta eragile eta interesdunen aniztasuna bermatzea, bai eta landutako gaiak dagokienez gizartean dauden diskurtso, ezagutza eta sentsibilitateak jasotzea ere.
- ▶ **Genero-ikuspegiari buruz:**
Beharrezko bermeak ezarri behar dira, partaidetza gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-bal-dintzetan egin dadin, genero-ikuspegia zeharka integratze aldera.

3. FASEA/ PARTE HARTZEKO PROZESUA GARATZEA

Planaren, programaren edo araudiaren zirriborroa talde teknikoak egitea edo herritarrek parte hartzeko prozesu honetan zirriborroa egitea sartzeari erabaki dugun aintzat hartu gabe, gure prozesurako aurreikusitako jardueren multzoa garatzeko unera iritsi da (foroak, sektorekako eztabaida-mahaiak edo gai, eremu, espezializazio eta abarren arabera). Horretarako, material honetan jaso ditugun teknika edo tresnen artean hauta dezakegu, edo gure esperientziaren arabera bidezkoztat jotzen ditugunak.

PROZESUAREN KALITATEA HOBETZEKO AHOLKUAK

▶ **Partaideei emandako informazioari buruz:**

Informazioa ezinbestekoa da eztabaida sustatzeko. Hori dela eta, emandako informazioa nahikoa, zehatza, argia, anitza, erabilgarria, formatuan eta lengoian irisgarria eta partaideen profiletara egokitutakoa izango da.

▶ **Askotariko ikuspuntuak barneratzeari buruz:**

Erakunde sustatzailearen ikuspegi tekniko eta/edo politikoak ez diren bestelako informazioak biltzeak prozesuak aberasten ditu.

▶ **Deliberazioari buruz:**

Prozesuetan erabiltzen den metodologia erabilgarria izan behar da adostasunak lortzeko eta proposamen eta irtenbide sortzaile, berritzaile eta eraikitzaileak sortzeko, interes partikularretatik harago. Gainera, komeni da parte hartzeko aukera ezberdinak egotea partaideen beharren eta erabilgarritasunaren arabera. Era berean, aurrez aurreko saioetan ordezkaturik ez dauden pertsona, erakunde, kolektibo edo sektoreek parte hartzeko tresnak gaitzeak aukerak areagotzen ditu.

Parte hartzeko prozesuaren garapenak diseinu- eta planifikazio-fasean ezarritako jarraibideekin bat etorri behar du. Hala ere, neurri bateko malgutasuna hartu beharko dugu, garapenean zehar beharrezkotzat jotzen diren aldaketak egin ahal izateko. Adibidez, bilera gehiago egin behar badira aurreikusitakoak nahikoa ez direlako, edo eztabaidarako eremu berriren bat gaitu behar bada, edo adituei dei egin behar bazaie prozesuan informazio teknikoagoa behar delako... Garrantzitsua da mekanismoak gaitzea sortzen diren beharrez horiek alde aurretik diseinatu dugun prozesuaren esparruan artatu ahal izateko.

4. FASEA/ HARTUTAKO ERABAKIAK BERRIZ HARTzea, JASOTAKO PROPOSAMENAK OINARRI HARTUTA

Parte hartzeko prozesuaren une gako batera iritsi gara. Antolatu, landu eta erakunde eta partaideei prozesuaren emaitzak aurkezteko unea da, erakundeak jasotako argumentu eta proposamenak aztertu eta horiekin zer egin (planean, programan, proiektuan edo araudian sartu, edo bidezkoa bada, alde batera utzi) erabaki ostean.

Aurkezpenean, hartutako erabakiak edo prozesuaren ostean sortutako argumentu eta proposamenak gehitu edo baztertzeari buruzko gure erabakiak behar bezala justifikatu beharko ditugu. Gure erabakiak hurrengo kapituluan jasotzen ditugun parte hartzeko prozesuaren "jokoaren arauak" deritzenen esparruan sartu behar dira, eta proposamenen bat gehitu ez badugu, behar bezala justifikatu beharko dugu erabaki hori hartzeko gure arrazoiak (erabilitako irizpide teknikoak, ekonomikoak edo normatiboak).

Halaber, hartutako erabakiak berriz hartzean kontu handia izan beharko dugu planifikatzen dugun erabakiak berriz hartzeko jardunaldiaren formatuarekin. Prozesuarekin jarraitzeko eta gure planaren, programaren edo araudiaren etorkizunerako pauso oso garrantzitsua da. Hortaz, xehetasunak zaindu beharko ditugu, prozesua amaierako atalean kaltetzea saihesteko. Jardunaldia testuingurura eta partaideetara egokitzea oinarrizko araua da. Partaidetza instituzionaleko prozesua egin badugu, erabakiak berriz hartzeko jardunaldia ildo berean egingo da: deialdi zehatz eta itxia eginez eta horri dagokion garapenarekin.

Aldiz, gure prozesua komunitarioagoa izan bada, deialdia irekiagoa eta informagoa izan daiteke, eta, adibidez, jai-alderdia gehi dezakegu, elkarrekin egindako lana ospatzeko. Bi kasuetan, espazioa eta intendentzia zaindu behar dira: areto atsegina, anfiteatro nahikoak, dokumentazioa, kafea/ardoa eta pastak/mokaduak eskertzekoak dira beti, eta partaideen eta sustatzaileen arteko elkarrizketarako giro ona sortzen dute.

Jardunaldia egin ondoren, dokumentua behin betiko onestea proposatu ahalko dugu, prozesuaren ondorengo aldaketak gehituta. Eta, jakina, prozesua osatzen duten partaidetza-jarduerak baloratuko ditugu, azken itzulketa² hau barne.

2] Nafarroako Gobernuak administrazioaren parte bagara, prozesuaren amaierako emaitzei buruzko informazioa Herritarrek Artatzeko eta Herritarrek parte hartzeko Zerbitzura bidaliko dugu

PROZESUAREN KALITATEA HOBETZEKO AHOLKUAK

- ▶ **Parte hartzeko prozesuaren emaitzen tratamenduari buruz**

Parte hartzeko prozesuaren ondoriozko emaitzak, erabakiak eta akordioak funtsezko planifikaziora gehitzen saiatzen da, doitasunez jokatzuz eta forma emateko soluzio tekniko onenak bilatuz. Gainera, prozesuan sortu diren ideia, ikuspuntu edo proposamenak gehituta (eta horiek indartzea) plan eta programak hobetzea prozesu horien eraginaren erakusgarri ona da.
- ▶ **Prozesuaren benetako eraginaren inguruko gardentasunari buruz**

Partaideek informazio argia, zehatza eta argumentatua jasoko dute lortutako akordioak eta emaitzak plan, programa edo proiektuan sartzeko (edo ez sartzeko) moduari buruz.

5. FASEA/ AZKEN PAUSOA: PLANA, PROGRAMA EDO ARAUDIA EXEKUTATZEA ETA EBALUATZEA

Herritarren partaidetza ez da amaitzen dokumentua onestearekin, horren garapenean ere presente egon behar du. Horretarako, beharrezkoa da dokumentuaren (plana, programa edo proiektua) edukian bertan partaidetza bermatzeko neurri edo neurri-multzoren bat jasotzea, bai exekuzio-fasean, bai planaren, programaren edo araudiaren azken ebaluazioaren fasean (ik. 30 fitxa horri buruzko ideia batzuk jasotzeko).

PROZESUAREN KALITATEA HOBETZEKO AHOLKUAK

- ▶ **Exekuzio-fasean partaideei ematen zaien informazioari buruz**

Komeni da parte hartzeko prozesuan egon diren pertsona eta erakundeei aldizkako informazioa emateko mekanismoak gaitzea, plan, programa edo proiektuaren exekuzioari buruz. Informazio horrek gardena, zehatza, ulertteraza eta eraginkorra izaten jarraituko du.
- ▶ **Jarraipeneko partaidetza-mekanismoei eta horien funtzionamenduari buruz**

Komeni da partaideei jarraipeneko, sustapeneko eta/edo kontroleko eginkizunak egitea ahalbidetzen dien organo- edo tresna-motaren bat hornitzea, planaren, programaren edo proiektuaren exekuzio-fasean zehar. Eta, jakina, aztertu beharko da tresna horrek modu eraginkorrean funtzionatzen duen eta bete beharreko helburuak betetzen dituen.
- ▶ **Plana edo programa ebaluatzeko partaidetza-mekanismoei buruz**

Exekuzio-fasean eta hori amaitutakoan, plana, programa edo proiektua ebaluatzea ahalbidetuko duen partaidetza-trenaren bat sortzea komeni da. Era berean, egiaztatu egingo dugu sortutako ebaluazio-mekanismoei eraginkorrak diren.



6 | ERREFERENTZIAK

Ajangiz, R. et al. (2013) **Los nudos de la participación**. Innobasque.

- ▶ Hemen eskura daiteke: <http://www.innobasque.eus/uploads/documentos/2013/PUBLICACIONES/30041D9DA0FE035F9A65C4F16BB0271D2C652FFD.pdf>

Alberich, T. et al. (2009) **Metodologías participativas. Manual**. Observatorio Internacional de Ciudadanía y Medio Ambiente Sostenible (CIMAS)

- ▶ Hemen eskura daiteke: http://www.redcimas.org/wordpress/wp-content/uploads/2012/09/manual_2010.pdf

Alderdi, D. et al. (2005) **Participación. Guía de viaje. Orientaciones para exploración, aproximación y ruta**. Administrazio Publiko eta Justizia Saila. Eusko Jaurlaritzza.

- ▶ Hemen eskura daiteke: http://www.gardena.euskadi.eus/contenidos/recurso_tecnico/guia_participacion/es_def/adjuntos/guia_viaje_es.pdf

Euskadiko udalen elkartea (2009): **Nola egin kalitateko partaidetza-prozesua? Gida praktikoa**. Bilbo. EUDEL – Euskadiko Udalen Elkartea.

- ▶ Hemen eskura daiteke: http://www.eudel.eus/es/archivos/libro/GUIA_21.pdf

Colombo, C. (2006). **Innovación democrática y TIC, ¿hacia una democracia participativa?** IDP. Interne-teko aldizkaria, Zuzenbidea eta Politika, Universitat Oberta (Katalunia)

- ▶ Hemen eskura daiteke: <http://www.redalyc.org/pdf/788/78800308.pdf>

Fuster, M. & Subirats, J. (2012). **Crisis de representación y de participación. ¿son las comunidades virtuales nuevas formas de agregación y participación ciudadana?** Arbor. Ciencia, Pensamiento y Cultura, 188

- ▶ Hemen eskura daiteke: <http://arbor.revistas.csic.es/index.php/arbor/article/view/1491>

Ganuzá, E. et al. (2010) **La democracia en acción. Una visión desde las metodologías participativas**. Antígona (arg.), parte hartzeko prozesuak.

- ▶ Hemen eskura daiteke: <http://www.iesa.csic.es/publicaciones/120120123.pdf>

KATALUNIAKO GENERALITATEA (2010) **Planificar, ejecutar i avaluar els processos de participació**. Kataluniako Generalitatea. Barne, Erakunde Harreman eta Partaidetzarako Saila.

- ▶ Hemen eskura daiteke: http://participa.gencat.cat/media/W1siZiIsIjIwMTUvMDYvMjYvMTFFfMzdfMTBfMjk5X2d1aWFFcHJvY2Vzc29zLnBkZiJdXQ/guia_processos.pdf

Heras, Francisco (2002) **EntreTantos. Guía práctica para dinamizar procesos participativos sobre problemas ambientales y sostenibilidad**. GEA s.coop.

- ▶ Hemen eskura daiteke: http://www.mapama.gob.es/es/ceneam/recursos/materiales/entretantos_reed_2006_tcm7-247525.pdf

Pacheco i Canals, Jordi (2010) **Guia de disseny d'espais deliberatius per a la participació ciutadana**. Kataluniako Generalitatea. Barne, Erakunde Harreman eta Partaidetzarako Saila.

- ▶ Hemen eskura daiteke: <http://governobert.gencat.cat/ca/participacio-ciutadana/difusio-i-recerca/guies-breus-de-participacio-ciutadana/guia-de-disseny-despais-deliberatius-per-a-la-participacio-ciutadana/>

Parés, Marc & March, Hug (2012) **Guia per avaluar procesos participatius**. Kataluniako Generalitatea. Gobernaketa eta Erakundeen Harremanetarako Saila.

- ▶ Hemen eskura daiteke: http://participa.gencat.cat/media/W1siZiIsIjIwMTUvMDYvMzAvMThfNDJfMzRfMTVfM19ndWlhX2F2YWx1YXlucGRml1d/3-guia_avaluar.pdf

Peña-López, I. (2016). **Participación electrónica en los municipios. De la emancipación ciudadana a la red de ciudades abiertas**. Pensamendu Politikoko Nazioarteko Aldizkaria, 11, 63-88. Sevilla: Pablo de Olavide Unibertsitatea.

- ▶ Hemen eskura daiteke: <http://pensamientopolitico.org/Descargas/RIPP11063088.pdf>

Subirats, J. (2002). **Los Dilemas de una Relación Inevitable. Innovación Democrática y Tecnologías de la Información y de la Comunicación**. Cairo Carou, H. (Ed.), Democracia Digital. Límites y Oportunidades.



